



2026KO UDAL AURREKONTUEN AZTERKETA GENERO IKUSPEGITIK

2025eko iraila

AURKIBIDEA

1.	SARRERA ETA IBILBIDEA.....	3
2.	ARAU ETA PROGRAMA ESPARRUA.....	5
3.	METODOLOGIA.....	6
4.	AURREKONTU OROKORRAK.....	9
5.	AZTERTUTAKO PROGRAMEN JARRAIPENA	18
5.1.	OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK.....	21
5.1.1.	UDALTZAINGOA	21
5.1.2.	ESKAILERAK, ARRAPALAK ETA IGOGAILUAK.....	22
5.1.3.	MUGIKORTASUN BERTIKALA	23
5.1.4.	HIRI MUGIKORTASUNA	24
5.1.5.	HIRIGINTZA	25
5.1.6.	DONOSTIAKO ETXEGINTZA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA	26
5.1.7.	BIDE PUBLIKOAK	27
5.1.8.	HERRI ARGITERIA.....	28
5.1.9.	PARKE ETA LORATEGIAK.....	28
5.1.10.	CRISTINA ENEA	29
5.1.11.	HONDARTZAK	30
5.2.	BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUERAK	31
5.2.1.	BERDINTASUNA	31
5.2.2.	LANKIDETZA ETA GARAPENERAKO HEZKUNTZA.....	35
5.2.3.	DONOSTIA LAGUNKOIA	36
5.2.4.	GIZARTE ONGIZATEA: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA	37
5.2.5.	GIZARTE ZERBITZUEN ZENTROAK	37
5.2.6.	APARTAMENTU TUTELATUAK	38
5.2.7.	GIZARTE ABEGI ETXEA	39
5.2.8.	GIZARTERATZEA	40
5.2.9.	ADIN TXIKIKOEN PREBENTZIOA ETA FAMILIA	41
5.2.10.	ADINEKO PERTSONEN SUSTAPENA.....	42
5.2.11.	ADINEKO PERTSONENTZAKO EGOITZAK.....	43
5.2.12.	ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA	44
5.2.13.	GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK	45
5.2.14.	ZAHAR ETXEAK.....	45
5.3.	LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA	47

5.3.1.	KOMUNAK	47
5.3.2.	OSASUNAREN SUSTAPENA	48
5.3.3.	OSASUN PUBLIKOA ETA ANIMALIEN ONGIZATEA	49
5.3.4.	HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA	49
5.3.5.	UDAL MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA / MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA (LIBURUTEGIA) / MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA (TXISTULARIAK).....	51
5.3.6.	HEZIKETARAKO PROGRAMAK	52
5.3.7.	GIZA ESKUBIDEAK	53
5.3.8.	KULTUR ANIZTASUNA	55
5.3.9.	DONOSTIA KULTURA.....	56
5.3.10.	EUSKARA.....	57
5.3.11.	GAZTERIA.....	58
5.3.12.	DONOSTIA KIROLA / ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA / KIROL INSTALAZIOAK (DONOSTIA KIROLA).....	60
5.4.	JARDUKETA EKONOMIKOAK	62
5.4.1.	DONOSTIA TURISMO	62
5.4.2.	DONOSTIA SUSTAPENA, SA.....	63
5.4.3.	DBUS.....	65
5.4.4.	HIRI MANTENTZE ETA ZERBITZUAK: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA	67
5.4.5.	PROIEKTU ETA OBRAK	68
5.5.	JARDUKETA OROKORRAK	69
5.5.1.	GOBERNU ORGANOAK	69
5.5.2.	INFORMATIKA (DonostiaTIK)	70
5.5.3.	EKIALDEKO DISTRITUA	71
5.5.4.	GIZA BALIABIDEAK	72
5.5.5.	HERRITARREN PARTE HARTZEA	73
5.5.6.	KUDEAKETA EKONOMIKOA.....	74
5.5.7.	BARNEKO LANGILEEN PRESTAKUNTZA BERDINTASUN ARLOAN.....	75
6.	GASTU ERALDATZAILEAREN EBOLUZIOA ETA LABURPENA	76
7.	GASTU SENTIKORRAREN LABURPENA	82
8.	BALORAZIO OROKORRA ETA GOMENDIOAK.....	83

1. SARRERA ETA IBILBIDEA

Aurrekontu publikoa da **politika publikoak diseinatzea, planifikatzea eta kudeatzea** ahalbidetzen duen **tresna nagusia**. Haren bitartez hartzen dira herritarren beharrezkoen behar bezala erantzuteko baliabideak banatzeko moduari buruzko funtsezko erabakiak.

Genero ikuspegia duten aurrekontuez ari garenean, oraindik ere eremu sozialean, ekonomikoan, politikoan, ordezkaritza eta partaidetza irauten duten emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriei buruzko begirada fase guztietan (diseinuan, gauzatzean eta ebaluatzean) txertatzea ari gara. Kontua da arlo publikotik bultzatzen diren neurriek emakumei eta gizoni bestela eragiten dietela aitortzea.

Genero ikuspegia duten aurrekontu batek hasiera-hasieratik txertatu behar du ikuspegi hori. Horrela bakarrik baloratu ahal izango da haren aplikazioak hautemandako desberdinkeriak murrizten laguntzen duen edo, aitzitik, desberdinkeria horiek betikotzeko edo sakontzeko arriskua dakarren.

Aurrekontuak ez dira neutralak; beti izaten dute inpaktu bat, alde edo molde genero arrakalek zeharkatuta dagoena. Benetako berdintasuna sustatzen duten politiketan aurrera egin nahi badugu, ikuspegi hori aintzat hartuta aztertu eta diseinatu behar dira aurrekontuak.

Horrela, genero ikuspegia aintzat hartzen duten aurrekontuek helburu bikoitza betetzen dute:

- 1. Emakumeengan eta gizonengan duen eragin desberdina aztertzen dute**, askotariko diskriminazioak eragin ditzaketen beste faktore batzuk ere kontuan hartuta, hala nola adina, administrazio egoera, errenta maila, arraza edo etnia jatorria edo genero identitatea, besteak beste. Kontua ez da soilik baliabideak ekitatez bideratzen diren ala ez egiaztatzea, baizik eta baliabide horiek benetako premiei erantzuten dieten ala ez ebaluatzea.
- 2. Benetako berdintasuna bultzatzeko funtsezko tresna dira**. Ildo horretan, genero zeharkakotasuna funtsezko estrategia da gaur egun: ekintza publiko guztiak ikuspegi horren arabera eta sistematikoki berrikustea dakar, desberdinkeriak errepikatuko ez direla eta indartuko ez direla bermatzeko.

Berdintasunarekiko konpromiso politikoak neurri zehatzak eta iraunkorrak eskatzen ditu: araudi espezifikoak sortzea eta aurrekontu baliabideak handitzea, egitura espezializatuak abian jartzea eta politika publikoak diseinatzeko, kudeatzeko eta ebaluatzen dituztenak gaitzea edo trebatzea. Horrekin batera, gardentasunaren eta informazioaren aldeko apustu irmoa egin behar da.

Azken batean, **aurrekontu publikoa da** Donostiako Udaleko gobernu organoek onartutako **berdintasun planen esparruko politika guztiak garatzeko motorra**.

Donostiako Udalak, horretaz guztiaz jabetuta, prozesu bat abiarazi zuen 2013an, urteetan zehar eboluzionatu egin dena. Jarraian, **prozesuaren mugarri nagusiak** nabarmenduko ditugu, grafikoki:

2013 	Prozesuaren hasiera: • Konpromiso politikoa. • Prestakuntza / informazio saioak. • Akordio metodologikoak (berdintasuna / ogasuna).
2014 	• Txostena idaztea: <i>“Aurrekontuak genero ikuspegiarekin sortzeko gomendioak eta lehentasunezko azterketa arloak identifikatzea”</i>. Oinarri metodologikoa ezartzea eta egin beharreko urratsak zehaztea. • Prozesuan sakontzeko lehentasunezko arloak identifikatzea: Azpiegiturak eta hiri zerbitzuak, Mugikortasuna, Gizarte Ekintza, Gizarte Sustapena; Herriarren parte hartzea eta Donostia Kultura. • Prestakuntza saioak gobernu taldearekin eta lehentasunezko arloetako eta berdintasun eta ogasun arloetako teknikariek. • 2014ko abenduan, txosten hau egin zen: “2015eko udal aurrekontuen azterketa genero ikuspegitik”.
2015 	• Txosten hau idatzi zen: <i>“2016ko udal aurrekontuen azterketa genero ikuspegitik”</i>. • Aldaketak txostenaren edukian eta ikuspegiaren: 1. kapituluko gastuen analisia (plantilla eta kontratazioa) berariazko txostenetara bideratzea erabaki zen, eta azterketa aurrekontu programen arabera egituratzea, eta ez udaleko arloen edo sailen arabera. • Berdintasun Atalaren eta Programazio, Azterlan eta Aurrekontu Unitatearen arteko baterako lana egonkortu eta egituratu zen.
2016 2022 	• Urteko txostenak egitea egonkortzea: <i>“Udal aurrekontuen azterketa genero ikuspegitik”</i>, barne hartuta aurrekontu zuzenketatik eratorritako aldaketak eta aztertutako ekitaldi batzuetan aurreko aurrekontu zikloan aurreikusitako gastu eraldatzailearen betetze mailaren azterketa. • Berdintasun Atalaren eta Programazio, Azterlan eta Aurrekontu Unitatearen arteko baterako lana. • 2022ko aurrekontu proiektuaren prozesua: berdintasun unitatearen parte hartze aktiboa administrazio unitate bakoitzarekin (Sailak, Erakunde Autonomoak, Enpresa erakunde publikoak eta Sozietate Anonimoak) egindako aurrekontu proposamenak aztertzeko bileretan.
2023 2025 	• Metodologiaren aldaketa puntualak, arloek bete beharreko informazioa biltzeko fitxa barne. • Aztertutako programa kopuruaren gorakada. • 2025eko ekitaldia, datozen urteetan lortu beharreko hiru helburu identifikatzea: Prozesu honetan programa kopuru handiago baten parte hartzea handitzea; Gastu tipologia gastu eraldatzaile gisa eta/edo beste kategoria batzuetan sartzeko irizpideak berrikustea eta sistematizatzea, EAEko arau eta programa esparruak kontuan hartuta; eta informazioa biltzeko barne sistematika berrikustea eta erraztea. • Urteko txostenak egitea: <i>“Udal aurrekontuen azterketa genero ikuspegitik”</i> eta <i>“Berdintasunaren arloko gastu eraldatzailearen egikaritze mailaren azterketa”</i>.

2. ARAU ETA PROGRAMA ESPARRUA

Prozesu hau martxoaren 16ko **1/2003 Legegintzako Dekretuaren** esparruan biltzen da, eta dekretu horrexek onartzen du emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testuategina. Esparru horretan eta **Euskal Autonomia Erkidegoan**, Dekretu horixe da **arau esparru** nagusia. Hona hemen txosten honen edukiarekin lotutako **artikulu nagusiak**:

3.5 artikulua. Genero-ikuspegia txertatzea: EAEko botere publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, haietan guztietan ezar dadin desberdinkeriak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra.

Lege honen ondorioetarako, hau da genero-ikuspegia txertatzea: sistematikoki kontuan izatea emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian diferenteak, eta, horretarako, desberdinkeriak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jardura espezifikoak gehitzea politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horiek planifikatzeko, betearazteko eta ebaluatzeko fase guztietan.

15. artikulua. Aurrekontuak 1. EAEko administrazio publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren aurrekontu publikoetan, bereziki haiek taxutzeko fasean, emakumeen eta gizonen premia diferenteak kontuan izateko eta berdintasuna sustatzen eta sexuan oinarritutako desberdinkeriak desagerrarazten laguntzeko. Horretarako, gidalerroak ezarri behar dituzte, eginkizun hori gauzatzeko, horri jarraipena egiteko eta ebaluatzeko, eta trebakuntza-prozesu egokiak abiarazteko.

2. Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak aktiboki eta progresiboki sustatuko du Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren % 1, gutxienez, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak garatzera bideratzea” (Seigarren xedapen gehigarria: 2030erako aurrekontu orokorretan esleitutako guztizko gastuaren % 1,5).

Gainera, **programa esparru autonomiko** osagarri gisa, **Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategian** ezarritakoa aipatuko dugu:

2030 Estrategiaren 2. helburua: Berdintasun-politiken aurrekontua: Euskal administrazio publikoaren aurrekontuaren % 1,5, gutxienez berdintasun-politikak garatzeko erabiltzea.

1. ARDATZA: Gobernu ona

4. ILDOA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

I-1. 13: Aurrekontu orokorrak: Berdintasunerako Legea garatzeko behar diren baliabide ekonomikoak (berdintasunerako erakunde eta egiturak) aurrekontu orokorretan esleitzen eta zehazten dituzten euskal erakunde publikoen kopurua handitzea.

I-1. 14: Aurrekontu espezifikoak: EAEko administrazio publikoetako sail, zuzendaritza edo arloen kopurua handitzea, beren aurrekontu-partidetan berdintasun-politika garatzeko behar dituzten baliabide ekonomikoak urtero esleitzen eta zehazten dituztenak.

I-1. 15: Berdintasun-unitateen aurrekontuak: Berdintasunerako unitateetan beren helburuak betetzeko behar adinako aurrekontu-zuzkidura duten euskal herri-administrazioen kopurua handitzea.

Donostiako Udalak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan duen **programa esparruari dagokionez**, une honetan **aztertzeko eta onartzeko prozesuan dago Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana**. Plan horrek hainbat **neurri** sartzea aurreikusten du indarrean dagoen araudia betetzeko eta aurreko planetan lortutako aurrerapenak finkatzeko.

Artean onartzeke dagoen plana bada ere, honako **ardatz** hauek itxuratzen dira bertan: Gobernu ona, Emakumeen etxea eta lidergo feminista, Espazio seguruak, Espazio iraunkorrak eta Espazio interseksionalak. Ardatz horiek guztiz lerrokatzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategiarekin eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2003 Legegintzako Dekretuarekin.

Funtsezkoa da azpimarratzea Donostian emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Plana, behin onartu ondoren, benetan inplementatuko dela ziurtatzeko, **udal aurrekontu baliabideak harekin guztiz lerrokatuta egotea**. Politika publikoak zuzenean daude baliabide horien erabilgarritasunaren eta banaketaren mende; koherentzia hori gabe nekez lortuko dira planteatutako aurrerapenak eta, ondorioz, nekez murriztuko edo desagerraraziko dira plan honetan aurreikusitako neurrien definizioa eragin zuten genero arrakalak.

3. METODOLOGIA

Atal honetan aurkezten da 2026ko udal aurrekontuak aztertzeko xedean txertatutako aldaketa metodologiko esanguratsuena.

Lehendik adierazitako **arau eta programa esparruarekin** bat etorruta, **behar-beharrezkoa da esparru horietan definitutako portzentajeen barruan zer gastu mota zenbatu behar diren zehaztea**. Doikuntza hori funtsezkoa da, portzentaje horiek genero berdintasuna sustatzeko diseinatutako ekintzak baizik ez baitituzte aintzat hartzen, eta ez, eragin sozial orokorra eduki eta bizitza komunitariorako funtsezkoak diren arren, egiturazko desberdintasunak eraldatzen laguntzen ez dutenak.

Azpimarratu behar da udal jarduketa guztiek zeharka txertatu behar dutela emakumeen eta gizonen bizi dituzten errealitate desberdinen egoera, 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorruta. Betebehar horrek, beti berariazko aurrekontu zuzkidura bat ez badakar ere, benetako berdintasunaren bidean aurrera egiteko konpromiso iraunkorra eskatzen du. Zentzu horretan, udal kudeaketako arlo bakoitza berdintasunarekin lotutako gastuak bultzatzeaz eta ikuspegi interseksionala txertatzeaz arduratuko da, Berdintasun Atalaren laguntzarekin, beharrezkoa denean.

Oinarri horretatik abiatuta landu zen “Gastua genero ikuspegitik sailkatzeko gidalerroak” dokumentua, Programazio, Azterlan eta Aurrekontu zerbitzuaren eta Berdintasun Atalaren arteko lanaren emaitza. Gidalerro horiek udal kudeaketa arlo guztiei bidali zaizkie, **metodologia berrira egokitutako datu bilketarako fitxarekin batera**. Hori guztia 2026ko ekitaldirako aurrekontu proposamenak formulatzeko prozesuan laguntzeko bidalitako dokumentazioaren parte da, eta Programazio, Azterlan eta Aurrekontu Zerbitzuak koordinatu du dena.

Gidalerro horien elementu nagusia identifikatutako genero arrakaletan zuzenean edo zeharka eragin dezaketen aurrekontu zuzkidurak identifikatzeko eta sailkatzeko definitutako irizpideak dira. Hortik abiatuta, honako sailkapen hau ezarri da:

GASTU MOTA	DESKRIBAPENA
GASTU ERALDATZAILEA <i>(Gastua eta inbertsioa barne)</i>	Helburu nagusi gisa, genero arrakalak murrizteko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko diseinatutako aurrekontu zuzkidurei, neurriei eta/edo programei egiten die erreferentzia, ikuspegi intersektionala kontuan hartuta. Zuzkidura/neurri horien helburua ez da soilik dauden desberdinkeriei aldi baterako erantzutea ekintza positiboen bidez, baizik eta horiek sortzen eta betikotzen dituzten egiturazko sustraiei ere heltzea. Helburua da kultura, ekonomia, gizarte, lan eta ordezkaritza ereduak eraldatzea denboran zehar aldaketa iraunkorrak sortzeko xedearekin, berdintasuna printzipio arauemailea ez ezik errealtate eraginkorra ere izan dadin. Horien guztien batura izango da gastu eraldatzailearen guztizko portzentajea lortzeko erabili beharreko zenbatekoa, udal aurrekontu orokorren aldean, kuantifikatze aldera eta Udalak Emakunderen 2030 Estrategiarekin duen konpromisoa zehazte aldera. Gastuei emandako atal honetan, eta informazio kualitatibo gisa, arlo desberdinetako barne baliabideen bidez (1. kapitulua) egindako antzeko jarduerak aipatuko dira.

GASTU MOTA	DESKRIBAPENA
GASTU SENTIKORRA <i>(Gastua eta inbertsioa barne)</i>	Helburu nagusitzat berdintasuna sustatzea ez duten, baina, zeharka, biztanleriaren bizi baldintzen hobekuntzan eta bizitzaren jasangarritasun baldintzetan eragiten duten aurrekontu zuzkidurak, neurriak eta/edo programak dira. Helburua ez da genero desberdinkeriak iraunarazten dituzten mekanismoak eraldatzea, baina horiek ezabatuz gero, dauden arrakalak larriagotu litezke, eta emakumeei eta zaurgarritasun egoeran dauden beste kolektibo batzuei neurritz kanpo eragin diezaieke, abiapuntuko egoera dela eta. Gastu mota horretan genero ikuspegia txertatzeak desberdinkeriak zeharka murrizten lagun dezake, biztanleriaren premia espezifikoak kontuan hartuta. Aitzitik, ikuspegi hori ez izateak finkatu egin ditzake dauden arrakalak, eta betikotu egin ditzake emakumeen eta gizonen arteko egiturazko aldeak. Zuzkidura horiek beren horretan jarraituko lukete baita emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun egoeran ere, ezinbestekoak baitira herritarren eguneroko bizitzarako. Gastu mota horren zenbateko globala ez da gastu eraldatzailearen %aren kalkuluan sartuko. Eta bereiz zenbatuko da.

Bi gastu mota horiei begira, Gidalerroen dokumentuak sailkapen bakoitzean bil daitezkeen jarduketan tipologia bat jasotzen du. Jarraibide horiek erraztu egiten diete organo kudeatzaileei dagozkien partidak identifikatzea eta informazioa biltzeko euskarria behar bezala erabiltzea.

Metodologia berri horren arabera, esku artean dugun txostenak, gastu eraldatzailea eta gastu sentikorra zehaztuko ditu identifikatu eta hornitu den programa funtzional bakoitzean. Azkenik, bi aurrekontu zuzkidura mota horiei esleitutako zenbateko osoa aurkeztuko da orokorki.

Gainera, modu kualitatiboan adieraziko dira –esleitzeko irizpide objektiboak zehazten diren arte– 1. kapituluan gastu eraldatzailea xede duten jarduerak, langile horien dedikazio osoa gastu mota horretara bideratuta dagoen kasuetan izan ezik, Berdintasun Ataleko langileekin gertatzen den bezala, besteak beste.

Abiapuntuko irizpide horiek kontuan hartuta, eta azterketa diru sarreretan ez baizik eta gastuetan soilik mantenduta, **txosten hau elkarlanean egin dute Programazio, Azterlan eta Aurrekontu arloak eta Berdintasun atalak**. Azken horrek proposatu ditu aztertutako programa funtzionalei buruzko gomendioak.

Azkenik, adierazi behar da **genero ikuspegia politika publikoen garapenean txertatzea Udaleko teknikari eta politikari guztien baterako lana dela**, eta horiek gauzatzeko ardura udal organo kudeatzaile bakoitzari dagokiola.

Aurreko guztia kontuan izanik, hauxe da txostenaren egitura:

- **Udal aurrekontuen azterketa orokorra**, gastu arloen, gastu politiken, aurrekontu programen eta sailkapen ekonomikoaren arabera. Aurreko ekitaldiarekiko eboluzioa identifikatuz eta gastu eraldatzailea eta/edo sentikorra aintzat hartzen duten programak adieraziz.
- **Hautatutako programen jarraipen zorrotza**. Haietako bakoitzean aurrekontuaren bilakaera irudikatuko da aurreko ekitaldiarekin alderatuta, identifikatutako gastu eraldatzailea eta sentikorra adieraziko dira, baita berdintasun atalak proposatutako gomendioak ere.
- **Gastu eraldatzailearen eta gastu sentikoraren laburpena eta eboluzio orokorra**. Azken zatian, alde batetik, bereizita bilduko dira gastu eraldatzailearen guztizkoa eta udal aurrekontuen gaineko kalkulua, baita V. Planaren (oraindik onartzeke dago) araberako ardatzen gaineko trazabilitatea ere. Eta, bestetik, gastu sentikorraren laburpen taula bat erantsiko da.
- **Balorazio orokorra eta gomendioak**. Bertan alderdi positiboak, hobetzeko alderdiak eta prozesuan aurrera egiten jarraitzeko gomendioak jasoko dira, bai prozesuari berari eta bere metodologiari dagokionez, bai gastu eraldatzailea eta sentikorra identifikatzeari eta zuzkitzeari dagokionez.

4. AURREKONTU OROKORRAK

Donostiako Udalaren **2026rako aurrekontu proposamena 494.456.134 €**-koa da, eta, beraz, **2025ekoaren aldean -% 4,5ekoa da jaitsiera** (-23.036.913 €).

Jarraian, aurrekontua banakatuta aurkezten da sailkapen desberdinen arabera. Haietako bakoitzean, 2025. urtearekiko eboluzioa adierazten da, baita aurrekontu osoan hartzen duen zatia ere.

GASTU ARLOA

Erantsitako taulan ikus daitekeenez, 2026an **bi arlok baizik ez dute igoera izan**: Babes eta sustapen sozialeko jarduketak (+% 5,91) eta Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpenak (+% 1,43). Gainerako gastu arloek murrizketa bat izan dute euren aurrekontu zuzkiduretan.

Jaitsiera hori gorabehera, aurrekontuaren baitan **pisu erlatibo handieneko arloak** Oinarrizko Zerbitzu Publikoak (% 37,03) eta Jarduketa Ekonomikoak (% 21,34) dira.

GASTU-ARLOA	2025		2026		Aldea	
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%
OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK	196.600.427,00	%37,99	183.106.317,00	%37,03	-13.494.110,00	-%6,86
BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUKETA	39.586.161,00	%7,65	41.926.625,00	%8,48	2.340.464,00	%5,91
LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA	96.416.510,00	%18,63	97.799.679,00	%19,78	1.383.169,00	%1,43
JARDUKETA EKONOMIKOAK	110.161.438,00	%21,29	105.524.363,00	%21,34	-4.637.075,00	-%4,21
JARDUKETA OROKORRA	64.101.800,00	%12,39	56.370.463,00	%11,40	-7.731.337,00	-%12,06
ZOR PUBLIKOA	10.626.711,00	%2,05	9.728.687,00	%1,97	-898.024,00	-%8,45
TOTAL	517.493.047,00	%100,00	494.456.134,00	%100,00	-23.036.913,00	-%4,45

GASTU POLITIKAK

Politika publikoen kasuan, 8k igoera izan dute, 8k jaitsiera, eta 1ek eutsi egin dio zenbatekoari (Erretiro pentsioak).

Hurrengo taula erreferentziatzat harturik, hauexek izan dira **% 20tik gorako igoera** izan duten politikak: **Beste jarduketa ekonomiko batzuk** (+% 1902,74) eta **Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak** (+% 24,02).

Igoera izan duten gainerako politikek +% 5,91tik (**Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena**) +% 0,87ra (**Ingurumena**) bitarteko aldaketak erregistratu dituzte.

Jaitsiera izan dutenen artean, -% 45,58 (**Finantza eta zerga administrazioa**) eta -% 1,92 (**Komunitate-ongizatea**) bitarteko murrizketak izan dira.

Azkenik, pentsioen politikak 2025eko zuzkidura berberari eutsi dio.

GASTU POLITIKAK	2025		2026		ALDEA	
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%
OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK	196.600.427,00	%37,99	183.106.317,00	%37,03	-13.494.110,00	-%6,86
Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna	62.261.484,00	%12,03	63.491.084,00	%12,84	1.229.600,00	%1,97
Etxebizitza eta Hirigintza	50.845.605,00	%9,83	37.237.239,00	%7,53	-13.608.366,00	-%26,76
Komunitate-Ongizatea	66.079.868,00	%12,77	64.812.618,00	%13,11	-1.267.250,00	-%1,92
Ingurumena	17.413.470,00	%3,36	17.565.376,00	%3,55	151.906,00	%0,87
BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUKETA	39.586.161,00	%7,65	41.926.625,00	%8,48	2.340.464,00	%5,91
Erretiro pentsioak	5.000,00	%0,00	5.000,00	%0,00	0,00	%0,00
Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	39.581.161,00	%7,65	41.921.625,00	%8,48	2.340.464,00	%5,91
LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA	96.416.510,00	%18,63	97.799.679,00	%19,78	1.383.169,00	%1,43
Osasuna	3.433.507,00	%0,66	3.703.062,00	%0,75	269.555,00	%7,85
Hezkuntza	16.342.796,00	%3,16	16.520.744,00	%3,34	177.948,00	%1,09
Kultura	48.119.393,00	%9,30	50.481.860,00	%10,21	2.362.467,00	%4,91
Kirola	28.520.814,00	%5,51	27.094.013,00	%5,48	-1.426.801,00	-%5,00
JARDUKETA EKONOMIKOAK	110.161.438,00	%21,29	105.524.363,00	%21,34	-4.637.075,00	-%4,21
Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak	24.653.201,00	%4,76	30.574.380,00	%6,18	5.921.179,00	%24,02
Garraio publikoa	72.027.481,00	%13,92	64.027.186,00	%12,95	-8.000.295,00	-%11,11
Azpiegiturak	13.456.594,00	%2,60	10.438.894,00	%2,11	-3.017.700,00	-%22,43
Beste jarduketa ekonomiko batzuk	24.162,00	%0,00	483.903,00	%0,10	459.741,00	%1902,74
JARDUKETA OROKORRA	64.101.800,00	%12,39	56.370.463,00	%11,40	-7.731.337,00	-%12,06
Gobernu organoak	8.258.726,00	%1,60	6.415.237,00	%1,30	-1.843.489,00	-%22,32
Asimintrazio orokorra	38.369.563,00	%7,41	40.446.230,00	%8,18	2.076.667,00	%5,41
Finantza eta zerga administrazioa	17.473.511,00	%3,38	9.508.996,00	%1,92	-7.964.515,00	-%45,58
ZOR PUBLIKOA	10.626.711,00	%2,05	9.728.687,00	%1,97	-898.024,00	-%8,45
Zor publikoa	10.626.711,00	%2,05	9.728.687,00	%1,97	-898.024,00	-%8,45
GUZTIRA	517.493.047,00	%100,00	494.456.134,00	%100,00	-23.036.913,00	-%4,45

Azkenik, 2026ko guztizko aurrekontuetan portzentaje handiena (**% 10etik gorakoa**) hartzen duten politikei dagokienez, lau dira denera: Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna (% 12,84), Komunitate ongizatea (% 13,11) eta Garraio publikoa (% 13,92) eta Kultura (% 10,21).

AURREKONTU PROGRAMAK

2026an hauexek dira aldaketa nagusiak aurrekontu programen kopuruari dagokienez:

- **“Zientzia eta ezagutzaren koordinazioa” programa berria sortu da** 330.698 €-ko zenbatekoarekin, hiria zientziaren, ezagutzaren, berrikuntzaren eta ikerketaren erreferente gisa indartzeko eta finkatzeko.
- **Aurrekontu zuzkidura desagerrarazi da Mugikortasun Bertikala, Eraikuntzaren Birgaitzea, Hiri-Proiektua eta Next Haurreskolak** programetan.

Gainerako aurrekontu programen eboluzioa ondoko taulan dago jasota. Halaber, bertan adierazi dira 2026an **gastu eraldatzailea (T)** edo **gastu sentikorra (S)** duten programak. Hona hemen datu esanguratsuenak:

% 100dik gorako igoerak izan dituzten bi programa dauzkagu: Kontsumitzailearen udal bulegoa (% 534,07) eta Azokak (% 490,09).

7 programa dira **% 20tik % 100era** bitarteko igoera tartea izan dutenak, horien artean igoerarik handiena Zeharkako zerbitzuek (% 90,70) izan dutelarik eta txikiena Gizarte zerbitzuen zentroek (% 29,05). Tartean

daude Zahar etxeak (% 69,34), Sustapena, SA (% 47,44), Ekialdeko Distritua (% 36,96), Herritarren parte hartzea (% 32,55) eta La Perla balnearioa (% 20,88).

Jaitsierarik handiena izan duten programak, % **20tik gorako jaitsierarekin, 11 dira**: Garapen ekonomikoa (-% 97,49), Kirol instalazioak (-% 62,96), Hirigintza (-% 60,51), Kudeaketa ekonomikoa (-% 55,39), Proiektu eta obrak (-% 46,12), Informatika (-% 43,75), Gobernu organoak (-% 35,09), Eskailerak, arrapalak eta igogailuak (-% 32,89), Ekipamendu plana (-% 29,64), Hiriguneetako hots, argi eta atmosfera kutsaduraren aurkako babesa (-% 25,26) eta Babes zibila (-% 22,21).

Guztizko aurrekontuetan portzentajerik handienak (% 5etik gorakoak) dauzkaten programei dagokienez, hiru dira, aurreko ekitaldietan izandako berberak: **Udaltzaingoa** (% 6,56), **Donostia Kultura** (% 7,47) eta **Dbus** (% 12,88).

Jarraian aurkezten den taulan adierazten dira aztertutako programen artean zeintzuk dauzkaten gastu eraldatzailea (T) eta/edo sentikorra (S) 2026ko aurrekontuan.

AURREKONTU PROGRAMAK	2025		2026		ALDEA		Gastu E.	Gastu S.
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%		
OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK	196.600.427,00	%37,99	183.106.317,00	%37,03	-13.494.110,00	-%6,86		
Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna	62.261.484,00	%12,03	63.491.084,00	%12,84	1.229.600,00	%1,97		
Udaltzaingoa	30.381.587,00	%5,87	32.449.066,00	%6,56	2.067.479,00	%6,81	E	
Zirkulazioaren eta aparkalekuen antolamendua	6.756.588,00	%1,31	6.841.627,00	%1,38	85.039,00	%1,26		
Eskaierak, arrapalak eta igogailuak	577.661,00	%0,11	387.661,00	%0,08	-190.000,00	-%32,89		S
Mugikortasun bertikala	871.944,00	%0,17	0,00	%0,00	-871.944,00	-%100,00		
Hiri mugikortasuna	11.645.981,00	%2,25	11.048.668,00	%2,23	-597.313,00	-%5,13	E	
Herri babesa	298.700,00	%0,06	232.366,00	%0,05	-66.334,00	-%22,21		
Prebentzio eta suhiltzaile zerbitzua eta sorospena	11.729.023,00	%2,27	12.531.696,00	%2,53	802.673,00	%6,84		
Etxebizitza et Hirigintza	50.845.605,00	%9,83	37.237.239,00	%7,53	-13.608.366,00	-%26,76		
Hirigintza	16.939.238,00	%3,27	6.689.196,00	%1,35	-10.250.042,00	-%60,51	E	
Donostiako etxebizitza enpresa erakunde publikoa	22.465.300,00	%4,34	22.257.700,00	%4,50	-207.600,00	-%0,92		
Eraikitzen birgaitzea	3.250.000,00	%0,63	0,00	%0,00	-3.250.000,00			
Bide publikoak	3.052.760,00	%0,59	3.213.963,00	%0,65	161.203,00	%5,28		
Zolaketa eta asfaltatzea	5.138.307,00	%0,99	5.076.380,00	%1,03	-61.927,00	-%1,21		
Komunitate-ongizatea	66.079.868,00	%12,77	64.812.618,00	%13,11	-1.267.250,00	-%1,92		
Saneamendua	5.071.383,00	%0,98	5.060.296,00	%1,02	-11.087,00	-%0,22		
Ura	3.788.070,00	%0,73	3.232.721,00	%0,65	-555.349,00	-%14,66		
Ura eta saneamendua: zuzendaritza eta administrazioa	916.318,00	%0,18	916.242,00	%0,19	-76,00	-%0,01		
Hiriko hondakin solidoen bilketa	9.423.401,00	%1,82	9.100.193,00	%1,84	-323.208,00	-%3,43		
Honkainen kudeaketa: San Marcos	3.611.324,00	%0,70	3.496.024,00	%0,71	-115.300,00	-%3,19		
Honkainen tratatzea: San Marcos	11.750.959,00	%2,27	11.791.605,00	%2,38	40.646,00	%0,35		
Bide eta etxurren garbiketa	16.689.942,00	%3,23	16.781.673,00	%3,39	91.731,00	%0,55		
Polloe	1.466.581,00	%0,28	1.657.216,00	%0,34	190.635,00	%13,00		
Hilerriak	0,00	%0,00	5.000,00	%0,00				
Herri-argiteria	5.544.500,00	%1,07	4.744.500,00	%0,96	-800.000,00	-%14,43		
Saneamendua eta arazketa: Añarbe	7.812.390,00	%1,51	8.027.148,00	%1,62	214.758,00	%2,75		
Ingurumena	17.413.470,00	%3,36	17.565.376,00	%3,55	151.906,00	%0,87		
Ingurumena: zuzendaritza eta administrazioa	499.225,00	%0,10	495.289,00	%0,10	-3.936,00	-%0,79		
Parke eta lorategiak	9.075.767,00	%1,75	9.168.324,00	%1,85	92.557,00	%1,02		
Artikutza	1.370.881,00	%0,26	1.334.286,00	%0,27	-36.595,00	-%2,67		
Cristina Enea	799.416,00	%0,15	747.386,00	%0,15	-52.030,00	-%6,51	E	
Iraunkortasuna	1.672.895,00	%0,32	1.646.383,00	%0,33	-26.512,00	-%1,58		
Hiriguneetako hots-, argi eta atmosfera-kutsaduraren aurkako babesa	382.274,00	%0,07	285.717,00	%0,06	-96.557,00	-%25,26		
Hondartzak	3.613.012,00	%0,70	3.887.991,00	%0,79	274.979,00	%7,61		
BABES ETA SUSTAPEN ZOZIALEKO JARDUKETAK	39.586.161,00	%7,65	41.926.625,00	%8,48	2.340.464,00	%5,91		
Erretiro pentsioak	5.000,00	%0,01	5.000,00	%0,01	0,00	%0,00		
Klase pasiboak	5.000,00	%0,01	5.000,00	%0,01	0,00	%0,00		
Gizarte-Zerbitzuak eta gizarte-sustapena	39.581.161,00	%7,65	41.921.625,00	%8,48	2.340.464,00	%5,91		
Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa	886.928,00	%0,17	937.067,00	%0,19	50.139,00	%5,65		S
Gizarte zerbitzuen zentroak	5.515.901,00	%1,07	6.622.104,00	%1,34	1.106.203,00	%20,05		
Lankidetzak eta garapenarako hezkuntza	2.515.208,00	%0,49	2.725.120,00	%0,55	209.912,00	%8,35	E	
Donostia Lagunkoia	101.758,00	%0,02	101.758,00	%0,02	0,00	%0,00		
Apartamentu tutelatutak	2.500.524,00	%0,48	2.604.197,00	%0,53	103.673,00	%4,15		S
Gizarte abegi etxea	1.902.836,00	%0,37	1.940.658,00	%0,39	37.822,00	%1,99		
Gizarteratzea	5.620.744,00	%1,09	5.918.851,00	%1,20	298.107,00	%5,30		
Adin txikien prebentzioa eta familia	4.010.670,00	%0,78	4.344.742,00	%0,88	334.072,00	%8,33	E	S
Adineko pertsonen sustapena	744.575,00	%0,14	731.297,00	%0,15	-13.278,00	-%1,78		
Zaharren egoitzak	964.843,00	%0,19	1.114.079,00	%0,23	149.236,00	%15,47		S
Etxez etxeko laguntza	9.999.707,00	%1,99	10.036.989,00	%2,03	37.282,00	%0,37		S
Gizarte larrialdietarako laguntzak	3.728.741,00	%0,72	3.728.741,00	%0,75	0,00	%0,00		
Berdintasuna	1.088.726,00	%0,21	1.116.022,00	%0,23	27.296,00	%2,51	E	

AURREKONTU PROGRAMAK	2025		2026		ALDEA		Gastu E.	Gastu S.
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%		
LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENEA	96.416.510,00	%18,63	97.799.679,00	%19,78	1.383.169,00	%1,43		
Osasuna	3.433.507,00	%0,66	3.703.062,00	%0,75	269.555,00	%7,85		
Komunak	661.922,00	%0,13	670.953,00	%0,14	9.031,00	%1,36		S
Osasun sustapena	239.360,00	%0,05	244.396,00	%0,05	5.036,00	%2,10		
Osasun publikoa eta animalien ongizatea	1.497.375,00	%0,29	1.545.142,00	%0,31	47.767,00	%3,19	E	
Sorospen etxea	22.427,00	%0,00	18.771,00	%0,00	-3.656,00	-%16,30		
La Perla balnearioa	1.012.423,00	%0,20	1.223.800,00	%0,25	211.377,00	%20,88		
Hezkuntza	16.342.796,00	%3,16	16.520.744,00	%3,34	177.948,00	%1,09		
Hezkuntza: zuzendaritza eta administrazioa	274.291,00	%0,05	246.864,00	%0,05	-27.427,00	-%10,00		
Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua	8.852.570,00	%1,71	8.853.891,00	%1,79	1.321,00	%0,01		S
Udalaren musika eta dantza eskola	5.805.849,00	%1,12	6.084.742,00	%1,23	278.893,00	%4,80	E	
Heziketarako programak	338.502,00	%0,07	340.919,00	%0,07	2.417,00	%0,71	E	
Giza eskubideak	626.938,00	%0,12	558.401,00	%0,11	-68.537,00	-%10,93	E	
Kultur aniztasuna	444.646,00	%0,09	435.927,00	%0,09	-8.719,00	-%1,96	E	
Kultura	48.119.393,00	%9,30	50.481.860,00	%10,21	2.362.467,00	%4,91		
Donostia Kultura	35.683.297,00	%6,90	36.912.598,00	%7,47	1.229.301,00	%3,45	E	
Udalaren musika eta dantza eskola (liburutegia)	182.238,00	%0,04	186.405,00	%0,04	4.167,00	%2,29	E	
Tabakalera	2.131.667,00	%0,41	1.942.470,00	%0,39	-189.197,00	-%8,88		
Kultura: sustatzea eta bultzatzea	2.039.100,00	%0,39	2.064.593,00	%0,42	25.493,00	%1,25		
Udalaren musika eta dantza eskola (Txistulariak)	733.913,00	%0,14	756.993,00	%0,15	23.080,00	%3,14	E	
Euskara	3.108.109,00	%0,60	3.150.849,00	%0,64	42.740,00	%1,38	E	S
Zahar etxeak	1.527.337,00	%0,30	2.586.373,00	%0,52	1.059.036,00	%69,34		
Gazteria	2.713.732,00	%0,52	2.881.579,00	%0,58	167.847,00	%6,19	E	S
Kirola	28.520.814,00	%5,51	27.094.013,00	%5,48	-1.426.801,00	-%5,00		
Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa	182.000,00	%0,04	212.000,00	%0,04	30.000,00	%16,48		
Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa (Donostia Kirola)	5.163.745,00	%1,00	4.856.858,00	%0,98	-306.887,00	-%5,94	E	
Donostia Kirola	4.038.525,00	%0,78	4.361.897,00	%0,88	323.372,00	%8,01	E	
Kirol instalakuntzak	2.700.000,00	%0,52	1.000.000,00	%0,20	-1.700.000,00	-%62,96		
Kirol instalakuntzak (Donostia Kirola)	13.894.277,00	%2,68	13.940.226,00	%2,82	45.949,00	%0,33	E	
Anoeta Kiroldegia	2.542.267,00	%0,49	2.723.032,00	%0,55	180.765,00	%7,11		
JARDUKETA EKONOMIKOAK	110.161.438,00	%21,29	105.524.363,00	%21,34	-4.637.075,00	-%4,21		
Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak	24.653.201,00	%4,76	30.574.380,00	%6,18	5.921.179,00	%24,02		
Azokak	4.550,00	%0,00	26.849,00	%0,01	22.299,00	%490,09		
Donostia Turismo	4.413.441,00	%0,85	4.666.200,00	%0,94	252.759,00	%5,73	E	
La Sirena aterpetxea	619.580,00	%0,12	638.517,00	%0,13	18.937,00	%3,06		
Uliako aterpetxea	438.760,00	%0,08	448.841,00	%0,09	10.081,00	%2,30		
Aterpetxeak: zuzendaritza eta administrazioa	50.304,00	%0,01	51.123,00	%0,01	819,00	%1,63		
Ekonomiko-garapena	2.386.064,00	%0,46	59.900,00	%0,01	-2.326.164,00	-%97,49		
Fomento S.A.	16.740.502,00	%3,23	24.682.950,00	%4,99	7.942.448,00	%47,44	E	
Garraio publikoa	72.027.481,00	%13,92	64.027.186,00	%12,95	-8.000.295,00	-%11,11		
Garraioaren arloko administrazio orokorra	278.889,00	%0,05	282.817,00	%0,06	3.928,00	%1,41		
Bidaiaaren taldekako hiri garraioa	600,00	%0,00	600,00	%0,00	0,00	%0,00		
Beste bidaiarien garraioa	38.600,00	%0,01	38.600,00	%0,01	0,00	%0,00		
Dbus	71.709.392,00	%13,86	63.705.169,00	%12,88	-8.004.223,00	-%11,16	E	S
Azpiegiturak	13.456.594,00	%2,60	10.438.894,00	%2,11	-3.017.700,00	-%22,43		
Hiri mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa	1.668.604,00	%0,32	1.643.085,00	%0,33	-25.519,00	-%1,53	E	
Proiektu eta obrak	6.614.354,00	%1,28	3.563.834,00	%0,72	-3.050.520,00	-%46,12	E	
Uraren hornikuntza: Añarbe	5.173.636,00	%1,00	5.231.975,00	%1,06	58.339,00	%1,13		
Beste jarduketa ekonomiko batzuk	24.162,00	%0,00	483.903,00	%0,10	459.741,00	%1902,74		
Kontsumitzailearen udal-bulegoa	24.162,00	%0,00	153.205,00	%0,03	129.043,00	%534,07		
Zientzia eta ezagutzaren koordinazioa	0,00	%0,00	330.698,00	%0,07	330.698,00			

AURREKONTU PROGRAMAK	2025		2026		ALDEA		Gastu E.	Gastu S.
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%		
JARDUKETA OROKORRAK	64.101.800,00	%12,39	56.370.463,00	%11,40	-7.731.337,00	-%12,06		
Gobernu organoak	8.258.726,00	%1,60	6.415.237,00	%1,30	-1.843.489,00	-%22,32		
Udal talde politikoak	4.508.246,00	%0,87	4.617.231,00	%0,93	108.985,00	%2,42		
Gobernu organoak	2.770.044,00	%0,54	1.798.006,00	%0,36	-972.038,00	-%35,09	E	
Hiri proiektua	980.436,00	%0,19	0,00	%0,00	-980.436,00	-%100,00		
Zerbitzu orokorrak	38.369.563,00	%7,41	40.446.230,00	%8,18	2.076.667,00	%5,41		
Komunikazioak	838.270,00	%0,16	736.966,00	%0,15	-101.304,00	-%12,08		
Eraikinak	2.225.926,00	%0,43	2.104.316,00	%0,43	-121.610,00	-%5,46		
Informatika (Udala)	1.350.000,00	%0,26	759.325,00	%0,15	-590.675,00	-%43,75		
Informatika (DonostiaTIK)	9.481.773,00	%1,83	9.487.719,00	%1,92	5.946,00	%0,06	E	
Ekialdeko distritua	505.426,00	%0,10	692.253,00	%0,14	186.827,00	%36,96	E	
Lehendakaritza	1.825.671,00	%0,35	1.836.960,00	%0,37	11.289,00	%0,62		
Agiritegia	1.113.305,00	%0,22	1.078.123,00	%0,22	-35.182,00	-%3,16		
Giza baliabideak	3.595.235,00	%0,69	3.837.782,00	%0,78	242.547,00	%6,75	E	
Idazkaritza orokorra eta lege zerbitzuak	1.704.108,00	%0,33	1.934.770,00	%0,39	230.662,00	%13,54		
Barne zerbitzu orokorrak	3.798.457,00	%0,73	4.018.554,00	%0,81	220.097,00	%5,79		
Itzulpen bulegoa	411.356,00	%0,08	414.595,00	%0,08	3.239,00	%0,79		
Ibilgailuak	886.344,00	%0,17	867.938,00	%0,18	-18.406,00	-%2,08		
Ekipamendu plana	1.206.639,00	%0,23	849.000,00	%0,17	-357.639,00	-%29,64		
Zeharkako zerbitzuak	676.112,00	%0,13	1.289.368,00	%0,26	613.256,00	%90,70		
Udaleko informazio unitatea	731.505,00	%0,14	745.530,00	%0,15	14.025,00	%1,92		
Herritarren parte hartzea	4.615.991,00	%0,89	6.118.724,00	%1,24	1.502.733,00	%32,55	E	
Herritarrenganako arreta	2.959.445,00	%0,57	3.173.307,00	%0,64	213.862,00	%7,23		
Hauteskundeak	1.000,00	%0,00	1.000,00	%0,00	0,00	%0,00		
Ezustekoak	443.000,00	%0,09	500.000,00	%0,10	57.000,00	%12,87		
Finantza eta zerga administrazioa	17.473.511,00	%3,38	9.508.996,00	%1,92	-7.964.515,00	-%45,58		
Kudeaketa ekonomikoa	11.432.114,00	%2,21	5.100.179,00	%1,03	-6.331.935,00	-%55,39	E	
Next Hurrekolak	1.828.314,00	%0,35	0,00	%0,00	-1.828.314,00			
Tributu sistemaren kudeaketa	4.213.083,00	%0,81	4.408.817,00	%0,89	195.734,00	%4,65		
ZOR PUBLIKOA	10.626.711,00	%2,05	9.728.687,00	%1,97	-898.024,00	-%8,45		
Zor publikoa	10.626.711,00	%2,05	9.728.687,00	%1,97	-898.024,00	-%8,45		
Zor publikoa	10.626.711,00	%2,05	9.728.687,00	%1,97	-898.024,00	-%8,45		
GUZTIRA	517.493.047,00	%100,00	494.456.134,00	%100,00	-23.036.913,00	-%4,45		

GASTUEN SAILKAPEN EKONOMIKOA

Hurrengo taulan dago jasota, kapituluaren arabera eta banan-banan, aurrekontu zuzkidura:

GASTUAK	2025		2026		ALDEA	
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%
1. Pertsonal gastuak	184.539.881,00	%35,66	193.019.826,00	%39,04	8.479.945,00	%4,60
2. Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	186.442.218,00	%36,03	190.572.988,00	%38,54	4.130.770,00	%2,22
3. Finantza-gastuak	6.505.911,00	%1,26	5.259.087,00	%1,06	-1.246.824,00	-%19,16
4. Transferentzia arruntak	38.807.012,00	%7,50	39.734.388,00	%8,04	927.376,00	%2,39
5. Kreditu globala	443.000,00	%0,09	500.000,00	%0,10	57.000,00	%12,87
6. Inbertsio errealak	80.838.458,00	%15,62	47.130.877,00	%9,53	-33.707.581,00	-%41,70
7. Kapital-transferentziak	5.179.228,00	%1,00	842.703,00	%0,17	-4.336.525,00	-%83,73
8. Finantza-aktiboak	908.829,00	%0,18	3.396.230,00	%0,69	2.487.401,00	%273,69
9. Finantza-pasiboak	13.828.510,00	%2,67	14.000.035,00	%2,83	171.525,00	%1,24
GUZTIRA	517.493.047,00	%100,00	494.456.134,00	%100,00	-23.036.913,00	-%4,45

Honako hau ondorioztatzen da datuen azterketatik:

- **6 kapitulu ekonomikotan igoera dago**, zehazki honako hauetan, igoera handienetik txikienera: Finantza aktiboak (+% 273,69), Kreditu globala (+% 12,87), Pertsonal gastuak (+% 4,60), Transferentzia arruntak (+% 2,39), Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (+% 2,22) eta Finantza pasiboak (+% 1,24).

- **Hiru kapitulutan jaitsiera izan da:** Kapital transferentziak (-% 83,73), Inbertsio errealak (-% 41,70) eta Finantza gastuak (-% 19,16).
- 2025ean bezala, 1. kapitulua (% 39,04) eta 2. kapitulua (% 38,54) **dira aurrekontuetan proportziorik handiena dutenak.**

2026KO INBERTSIOAK

2026rako, **47.973.580 €**-koa izango da 6. eta 7. kapituluaren bitartez egin beharreko inbertsio finkatuen zenbatekoa. 2025koarekin alderatuta, **-37. 859. 106 €**-koa da jaitsiera (-% 44,11).

Aurrekontu programei dagokienez, honako hauetan biltzen dira inbertsiorik handienak, beheranzko hurrenkeran: Dbus (% 24,37), Donostiako Etxegintza erakunde publikoa (% 13,76) eta Sustapena, SA (% 15,93).

Komenigarria da inbertsioen genero inpaktuan aurrera egitea, honako hauek aztertuz: onuradunak sexuaren arabera bereizita, emakumeen eta gizonen abiapuntuak egoeran duen eragina, eta inbertsio batzuen onarpena beste batzuen gainetik lehenesteko erabilitako irizpideak.

2026rako, aurreikusitako inbertsioetan, honako hauek identifikatu dira gastu eraldatzaile edo sentikor gisa:

a) Gastu eraldatzailea

- **Hirigintza:** Hirigintza plangintzan generoak duen eragina egiaztatzeko txostenak (15.000 €).
- **Berdintasuna (50.000 €)** Emakumeen Etxearen kokapen berrirako.
- **Udal Musika eta Dantza Eskola**, 1.000 € **“Txoko morea” delakoan obra kopurua** handitzeko.
- **Donostia kultura**, **60.000 €** emakumezko egileen obrak erosteko eta San Telmo Museoa ikusgai jartzeko.
- **Proiektu eta obrak:** 500.000 €-ko kopuruari eusten zaio puntu kritikoak desagerrarazteko.

Adierazi behar da **Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua** programaren barruan badagoela inbertsioetarako zuzkidura orokor bat, Eusko Jaurlaritzak eman dezakeen dirulaguntzaren mende dagoena. Programa horren politikan dago **hirian patio inklusiboak inplementatzeko gidalerroa**, eta hala balitz gastu eraldatzaileak hartuko litzateke. Ondorengo likidazioaren kontrola aintzat hartuko dugu haietara bideratutako zenbatekoa egiaztatzeko, hala badagokio.

Bestalde, txosten honetan ezin izan da irizpide teknikoetan sakondu etxebizitzetan egindako inbertsioetatik gastu eraldatzaileak eta/edo sentikortzat zenbat har litekeen ondorioztatu ahal izateko. Datozen ekitaldietan aurrera egiten jarraitzeko lan ildo metodologiko gisa planteatzen da.

b) Gastu sentikorra

- **Eskailerak, arrapalak eta igogailuak** programaren **6. kapitulu** osoa (50 000 €).
- **Udalak** 6. kapitulan **Dbus-i egiten dion ekarpena:** (11.689.332 €).

AURREKONTU PROGRAMAK	2026	
	GUZTIRA	%
OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK	13.824.156,00	28,82%
Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna	2.336.000,00	4,87%
Udaltzaingoa	1.000.000,00	2,08%
Eskaierak, arrapalak eta igogailuak	50.000,00	0,10%
Hiri mugikortasuna	150.000,00	0,31%
Herri Babesa	25.000,00	0,05%
Prebentzio eta suhiltzaile zerbitzua eta sorospena	1.111.000,00	2,32%
Etxebizitza et Hirigintza	9.979.503,00	20,80%
Hirigintza	1.554.803,00	3,24%
Donostiako etxebizitza enpresa erakunde publikoa	6.599.700,00	13,76%
Bide publikoak	1.075.000,00	2,24%
Zolaketa eta asfaltatzea	750.000,00	1,56%
Komunitate-ongizatea	412.985,00	0,86%
Saneamendua	80.985,00	0,17%
Ura	80.000,00	0,17%
Polloe	192.000,00	0,40%
Herri Argiteria	60.000,00	
Ingurumena	1.095.668,00	2,28%
Parke eta lorategiak	550.000,00	1,15%
Artikutza	505.668,00	1,05%
Hondartzak	40.000,00	0,08%
OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK	764.556,00	1,59%
Gizarte-Zerbitzuak eta gizarte-sustapena	764.556,00	1,59%
Gizarte zerbitzuen zentroak	614.556,00	1,28%
Gizarteratzea	100.000,00	0,21%
Berdintasuna	50.000,00	0,10%
LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA	5.740.825,00	11,97%
Hezkuntza	150.000,00	0,31%
Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua	100.000,00	0,21%
Udalaren musika eta dantza-eskola	50.000,00	0,10%
Kultura	3.336.700,00	6,96%
Donostia Kultura	2.252.700,00	4,70%
Zahar etxeak	1.084.000,00	2,26%
Kirola	2.254.125,00	4,70%
Kirol instalakuntzak (Udala)	1.000.000,00	2,08%
Kirol instalakuntzak (Donostia Kirola)	150.000,00	0,31%
Anoeta Kiroldegia	1.104.125,00	2,30%
JARDUKETA EKONOMIKOAK	20.312.964,00	42,34%
Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak	7.860.542,00	16,39%
Donostia Turismo	209.200,00	0,44%
Ekonomi-garapena	8.900,00	0,02%
Donostiako Sustapena, S.A	7.642.442,00	15,93%
Garraio publikoa	11.694.332,00	24,38%
Garraioaren arloko administrazio orokorra	5.000,00	0,01%
Dbus	11.689.332,00	24,37%
Azpiegiturak	758.090,00	1,58%
Proiektu eta obrak	758.090,00	1,58%
JARDUKETA OROKORRAK	7.331.079,00	15,28%
Gobernu Organoak	379.901,00	0,79%
Gobernu Organoak	379.901,00	0,79%
Zerbitzu orokorrak	6.951.178,00	14,49%
Informatika (Udala)	759.325,00	1,58%
Informatika (DonostiaTIK)	702.021,00	1,46%
Ekialdeko distritua	295.930,00	0,62%
Agiritegia	545.000,00	1,14%
Ekipamendu-plana	400.000,00	0,83%
Zeharkako zerbitzuak	150.000,00	0,31%
Herritarren parte hartzea	4.098.902,00	8,54%
GUZTIRA	47.973.580,00	100,00%

PARTAIDETZAKO AURREKONTUAK

2025eko ekitaldian zehar partaidetzako aurrekontu prozesua eramaten ari da burura, baina txosten hau idazten ari garenean ez dugu aurkeztutako eta hautatutako proiektuei buruzko informaziorik. Behin informazio hori jaso ondoren, eranskin bat gehituko zaio txosten honi.

Argitaratutako informazioaren arabera, hauexek dira prozesuaren datak:

- Proposamenak egiteko fasea: martxoaren 10etik apirilaren 6ra.
- Aztertzeko fasea: apirilaren 7tik irailaren 29ra.
- Proposamenen argitalpena: irailaren 29tik urriaren 5era.
- Botazio fasea: urriaren 13tik 26ra.

5. AZTERTUTAKO PROGRAMEN JARRAIPENA

2026rako, **beste bost aurrekontu programa gehiago** aztertu dira, programa horietan gastu eraldatzailerako edo gastu sentikorrera bideratutako zenbateko bat hauteman baita. Zehazki, programa hauek dira:

- Eskailerak, arrapalak eta igogailuak (mantentze lanak),
- Cristina Enea,
- Komunak,
- Gobernu organoak,
- DonostiaTIK (Informatika).

Beraz, guztira 52 programa aztertu dira, **udal aurrekontu osoaren % 70,82** hartzen dute horiek (2025ean aztertutakoek % 67,49 hartzen zuten), eta programa guztien artetik % 47,27 biltzen dute.

Programa horien eboluzioari dagokionez, 2025eko ekitaldiarekin alderatuta, -% 3,69ko jaitsiera globala izan dela ikus daiteke. Hona hemen, programen arabera banakatuta:

- **34 programak igoera izan dute 2025eko aurrekontuaren aldean**, eta horietatik 5ek % 20tik gorako igoera izan dute.
- **4 programak aurrekontu osoarena baino jaitsiera txikiagoa dute (-% 4,5).**
- **12 programak aurrekontu osoarena baino jaitsiera handiagoa dute,**
- **2 programak 2025eko zuzkidura berberari eusten diote.**

Datozen orrialdeetan zehazten dira aztertutako programak, bi taulatan jasoak:

- Lehenengo taulan programen eboluzioa zehazten da 2025eko ekitaldiarekiko, eta aztertutako programa guztien gainean hartzen dutena adierazten da (hondo ilunagoarekin daude adierazita lehenengo aldiz aztertutako programak). Halaber, gastu eraldatzailea (T) eta/edo sentikorra (S) esleitu duten programak adierazten dira.
- Bigarren taulan daude banatuta programak, honako sailkapen honen arabera:

Tipologia	Udal aurrekontuak: - % 4,45ko beherapena
1	Udal-aurrekontuak baino igoera handiagoa
2	Berdina
3	Udal-aurrekontuak baino jaitsiera gutxiago
4	Udal-aurrekontuak baino jaitsiera handiagoa

Jarraian, programa bakoitzaren **azterketa zehatza** aurkeztuko dugu, bakoitzaren aurrekontu bilakaera, gastu eraldatzailea eta sentikorra eta gomendio espezifikoak barne. Txostenaren azken zatian gastu eraldatzailearen eta gastu sentikorraren bilakaera laburbiltzen duen gehigarri bat erantsiko da, baita balorazioak eta gomendio orokorrak ere.

AZTERTUTAKO AURREKONTU PROGRAMAK	2025		2026		ALDEA		Gastu E.	Gastu S.
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%		
Udalzaingoa	30.381.587,00	%8,36	32.449.066,00	%9,27	2.067.479,00	%6,81	E	
Eskailerak, arrapalak eta igogailuak	577.661,00	%0,16	387.661,00	%0,11	-190.000,00	-%32,89		S
Mugikortasun bertikala	871.944,00	%0,24	0,00	%0,00	-871.944,00	-%100,00		
Hiri mugikortasuna	11.645.981,00	%3,20	11.048.668,00	%3,16	-597.313,00	-%5,13	E	
Hirigintza	16.939.238,00	%4,66	6.689.196,00	%1,91	-10.250.042,00	-%60,51	E	
Donostiako etxegintza enpresa erakunde publikoa	22.465.300,00	%6,18	22.257.700,00	%6,36	-207.600,00	-%0,92		
Bide publikoak	3.052.760,00	%0,84	3.213.963,00	%0,92	161.203,00	%5,28		
Herri-argiteria	5.544.500,00	%1,52	4.744.500,00	%1,35	-800.000,00	-%14,43		
Parke eta lorategiak	9.075.767,00	%2,50	9.168.324,00	%2,62	92.557,00	%1,02		
Cristina Enea	799.416,00	%0,22	747.386,00	%0,21	-52.030,00	-%6,51	E	
Hondartzak	3.613.012,00	%0,99	3.887.991,00	%1,11	274.979,00	%7,61		
Gizarte zerbitzuen zentroak	5.515.901,00	%1,52	6.622.104,00	%1,89	1.106.203,00	%20,05		
Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa	886.928,00	%0,24	937.067,00	%0,27	50.139,00	%5,65		S
Lankidetzeta eta garapenarako hezkuntza	2.515.208,00	%0,69	2.725.120,00	%0,78	209.912,00	%8,35	E	
Donostia Lagunkoia	101.758,00	%0,03	101.758,00	%0,03	0,00	%0,00		
Apartamentu tutelatuak	2.500.524,00	%0,69	2.604.197,00	%0,74	103.673,00	%4,15		S
Gizarte abegi etxea	1.902.836,00	%0,52	1.940.658,00	%0,55	37.822,00	%1,99		
Gizarteratzea	5.620.744,00	%1,55	5.918.851,00	%1,69	298.107,00	%5,30		
Adin txikien prebentzioa eta familia	4.010.670,00	%1,10	4.344.742,00	%1,24	334.072,00	%8,33	E	S
Adineko pertsonen sustapena	744.575,00	%0,20	731.297,00	%0,21	-13.278,00	-%1,78		
Zaharren egoitzak	964.843,00	%0,27	1.114.079,00	%0,32	149.236,00	%15,47		S
Etxez etxeko laguntza	9.999.707,00	%2,75	10.036.989,00	%2,87	37.282,00	%0,37		S
Gizarte larrialdietarako laguntzak	3.728.741,00	%1,03	3.728.741,00	%1,06	0,00	%0,00		
Berdintasuna	1.088.726,00	%0,30	1.116.022,00	%0,32	27.296,00	%2,51	E	
Komunak	661.922,00	%0,18	670.953,00	%0,19	9.031,00	%1,36		S
Osasun sustapena	239.360,00	%0,07	244.396,00	%0,07	5.036,00	%2,10		
Osasun publikoa eta animalien ongizatea	1.497.375,00	%0,41	1.545.142,00	%0,44	47.767,00	%3,19	E	
Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua	8.852.570,00	%2,43	8.853.891,00	%2,53	1.321,00	%0,01	E	S
Udalaren musika eta dantza eskola	5.805.849,00	%1,60	6.084.742,00	%1,74	278.893,00	%4,80	E	
Heziketarako programak	338.502,00	%0,09	340.919,00	%0,10	2.417,00	%0,71	E	
Giza eskubideak	626.938,00	%0,17	558.401,00	%0,16	-68.537,00	-%10,93	E	
Kultur aniztasuna	444.646,00	%0,12	435.927,00	%0,12	-8.719,00	-%1,96	E	
Donostia Kultura	35.683.297,00	%9,81	36.912.598,00	%10,54	1.229.301,00	%3,45	E	
Udalaren musika eta dantza eskola (liburutegia)	182.238,00	%0,05	186.405,00	%0,05	4.167,00	%2,29	E	
Udalaren musika eta dantza eskola (Txistulariak)	733.913,00	%0,20	756.993,00	%0,22	23.080,00	%3,14	E	
Euskara	3.108.109,00	%0,85	3.150.849,00	%0,90	42.740,00	%1,38	E	S
Zahar etxeak	1.527.337,00	%0,42	2.586.373,00	%0,74	1.059.036,00	%69,34		
Gazteria	2.713.732,00	%0,75	2.881.579,00	%0,82	167.847,00	%6,19	E	S
Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa (Donostia Kirola)	5.163.745,00	%1,42	4.856.858,00	%1,39	-306.887,00	-%5,94	E	
Donostia Kirola (kirol ekintzak)	4.038.525,00	%1,11	4.361.897,00	%1,25	323.372,00	%8,01	E	
Kirol instalakuntzak (Donostia Kirola)	13.894.277,00	%3,82	13.940.226,00	%3,98	45.949,00	%0,33	E	
Donostia Turismo	4.413.441,00	%1,21	4.666.200,00	%1,33	252.759,00	%5,73	E	
Donostiako Sustapena, S.A.	16.740.502,00	%4,60	24.682.950,00	%7,05	7.942.448,00	%47,44	E	
Dbus	71.709.392,00	%19,72	63.705.169,00	%18,19	-8.004.223,00	-%11,16	E	S
Hiri mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa	1.668.604,00	%0,46	1.643.085,00	%0,47	-25.519,00	-%1,53	E	
Proiektu eta obrak	6.614.354,00	%1,82	3.563.834,00	%1,02	-3.050.520,00	-%46,12	E	
Gobernu organoak	2.770.044,00	%0,76	1.798.006,00	%0,51	-972.038,00	-%35,09	E	
Informatika - DonostiaTIK	9.481.773,00	%2,61	9.487.719,00	%2,71	5.946,00	%0,06	E	
Ekialdeko distritua	505.426,00	%0,14	692.253,00	%0,20	186.827,00	%36,96	E	
Giza baliabideak	3.595.235,00	%0,99	3.837.782,00	%1,10	242.547,00	%6,75	E	
Herritarren parte hartzea	4.615.991,00	%1,27	6.118.724,00	%1,75	1.502.733,00	%32,55	E	
Kudeaketa ekonomikoa	11.432.114,00	%3,14	5.100.179,00	%1,46	-6.331.935,00	-%55,39	E	
GUZTIRA	363.607.538,00	%100,00	350.180.130,00	%100,00	-13.427.408,00	-%3,69		
AURREKONTU OSOAREN GAINEKO %	%70,26		%70,82					

TIPOLOGÍA	PROGRAMA	IGOERA/JAITSIERA
1	Zahar etxeak	69,34%
	Donostiako Sustapena, S.A.	47,44%
	Ekialdeko distritua	36,96%
	Herritarren parte hartzea	32,55%
	Gizarte zerbitzuen zentroak	20,05%
	Zaharren egoitzak	15,47%
	Lankidetzak eta garapenarako hezkuntza	8,35%
	Adin txikikoen prebentzioa eta familia	8,33%
	Donostia Kirola (kirol ekintzak)	8,01%
	Hondartzak	7,61%
	Udaltzaingoa	6,81%
	Giza baliabideak	6,75%
	Gazteria	6,19%
	Donostia Turismo	5,73%
	Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa	5,65%
	Gizarteratzea	5,30%
	Bide publikoak	5,28%
	Udalaren musika eta dantza eskola	4,80%
	Apartamentu tutelatuak	4,15%
	Donostia Kultura	3,45%
	Osasun publikoa eta animalien ongizatea	3,19%
	Udalaren musika eta dantza eskola (Txistulariak)	3,14%
	Berdintasuna	2,51%
	Udalaren musika eta dantza eskola (liburutegia)	2,29%
	Osasun sustapena	2,10%
	Gizarte abegi etxea	1,99%
	Euskara	1,38%
	Komunak	1,36%
	Parke eta lorategiak	1,02%
	Heziketarako programak	0,71%
	Etkez etxeko laguntza	0,37%
	Kirol instalakuntzak (Donostia Kirola)	0,33%
	Informatika - DonostiaTIK	0,06%
	Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua	0,01%
2	Donostia Lagunkoia	0,00%
	Gizarte larrialdietarako laguntzak	0,00%
3	Donostiako etxegintza enpresa erakunde publikoa	-0,92%
	Hiri mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa	-1,53%
	Adineko pertsonen sustapena	-1,78%
4	Kultur aniztasuna	-1,96%
	Hiri mugikortasuna	-5,13%
	Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa (Donostia Kirola)	-5,94%
	Cristina Enea	-6,51%
	Giza eskubideak	-10,93%
	Dbus	-11,16%
	Herri-argiteria	-14,43%
	Eskailerak, arrapalak eta igogailuak	-32,89%
	Gobernu organoak	-35,09%
	Proiektu eta obrak	-46,12%
	Kudeaketa ekonomikoa	-55,39%
	Hirigintza	-60,51%
	Mugikortasun bertikala	-100,00%
UDAL AURREKONTUEN JAITSIERA		-4,45%

Tipologia	Udal aurrekontuak: - % 4,45ko beherapena
1	Udal-aurrekontuak baino igoera handiagoa
2	Berdina
3	Udal-aurrekontuak baino jaitsiera gutxiago
4	Udal-aurrekontuak baino jaitsiera handiagoa

5.1. OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK

Gastu arlo honetan 11 programa aztertu dira, aurreko urtean baino bi gehiago, Eskailerak, arrapalak eta igogailuak eta Cristina Enea programak sartu baitira. Beraz, hauexek ditugu:

- Udaltzaingoa.
- Eskailerak, arrapalak eta igogailuak.
- Mugikortasun bertikala.
- Hiri mugikortasuna.
- Hirigintza.
- Donostiako Etxegintza Erakunde Publikoa
- Bide publikoak.
- Herri argiteria.
- Parke eta lorategiak.
- Cristina Enea.
- Hondartzak.

5.1.1. UDALTZAINGOA

AURREKONTUAREN EBOLUZIOA

Udaltzaingoa programa **Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna** gastu politikan sartzen da, **eta % 6,56 hartzen du udal aurrekontuetan** (2025ean, % 5,87). Beraz, ekitaldi honetan **+% 6,81eko** igoera izan du.

UDALTZAINGOA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	28.412.497,00	29.783.976,00	1.371.479,00	%4,83
2. kapitulua	1.665.090,00	1.665.090,00	0,00	%0,00
6. kapitulua	304.000,00	1.000.000,00	696.000,00	%228,95
GUZTIRA	30.381.587,00	32.449.066,00	2.067.479,00	%6,81

Zerbitzu honetan **indarkeria matxistaren biktimak artatzeko bideratutako baliabideei** dagokienez, nabarmendu behar da **atxikitako langile zuzkiduraren emendioa** (2025ean 2 agente; 2026an 3 agente eta 1 agente lehen), 1. kapituluan jaso den bezala.

Programa honen igoera batez ere **6. kapituluan** gertatzen da Egiako polizia etxera bideratutako zuzkiduraren ondorioz (950.000 €).

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Hau da programa honetan identifikatutako **gastu eraldatzailea**:

- **1. kapitulua, indarkeria matxistaren biktimak artatzeko** atxikiriko langileena, jarduera horretan dedikazio osoa dutenena. Aipatzekoa da **langile kopuruaren igoera**, 2025ean 2 izan baitziren eta 2026an 4 izango baitira. **301.301 €**-ko zenbatekoa esleitu da.
- 226.99.04 partidari **3.000 €** esleitu dira **Berdintasun planetik** eratorritako jarduerak garatzeko.

Bi zenbateko horiek batera hartuta, **304.301 €-koa da gastu eraldatzailearen** guztizkoa, eta **% 43,43ko igoera du** 2025ekoarekin alderatuta (212.154 €). 2026. urteari begira ez da inbertsio espezifikorik aurreikusi, eta 2025ean indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko espazioa gaitzeko esleitutako partida egikaritzea espero da.

GASTU ERALDATZAILAREN EBOLUZIOA				
UDALTZAINGOA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	137.154,00	301.301,00	164.147,00	%119,68
2. kapitulua	0,00	3.000,00	3.000,00	
6. kapitulua	75.000,00	0,00	-75.000,00	-%100,00
GUZTIRA	212.154,00	304.301,00	92.147,00	%43,43

Bestalde, programa honetan **ez da gastu sentikorrik identifikatu**.

GOMENDIOAK

- Udaltzaingoaren organigraman **indarkeria matxistaren biktimak artatzeko unitatea izendatzea eta islatzea**, eta berdintasunerako prestakuntza espezializatua duten baliabide nahikoekin hornitzea, zerbitzuaren benetako beharrei erantzun ahal izateko.

5.1.2. ESKAILERAK, ARRAPALAK ETA IGOGAILUAK

AURREKONTUAREN EBOLUZIOA

Eskailerak, arrapalak eta igogailuak programa **Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna** gastu politikan sartzen da, eta **% 0,08 hartzen du udal aurrekontuetan** (2025ean, % 0,11). Beraz, ekitaldi honetan **-% 32,89ko jaitsiera** izan du.

ESKAILERAK, ARRAPALAK ETA IGOGAILUAK	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	367.661,00	337.661,00	-30.000,00	-%8,16
6. kapitulua	210.000,00	50.000,00	-160.000,00	-%76,19
GUZTIRA	577.661,00	387.661,00	-190.000,00	-%32,89

Jaitsiera batik bat 6. kapituluan gertatzen da, igogailuak berritzeko partidari baizik ez baitzaio eutsi. Bestalde, jaitsi egin da eskailerei eta arrapalei dagokien partida.

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Programa honetan ez da gastu eraldatzailearik identifikatu, baina bai **gastu sentikorra, 387.661 €-ko zenbateko globalarekin**.

Programa honen bidez ordaintzen dira hiriko eskailerak, arrapalak eta igogailuak behar bezala funtzionatzeko mantentze gastuak (gastu arruntak eta inbertsioak). Instalazio horiek hiriko mugikortasuna eta irisgarritasuna errazten dituzte, eta, horrexegatik, programaren **zuzkidura osoa** (387.661 €) **gastu**

sentikortzat hartu da, helburu nagusia berdintasuna sustatzea ez badu ere, zeharka herritarren bizi baldintzak eta bizitzaren jasagarritasun baldintzak hobetzen dituelako.

Hiriko mugikortasuna aztergai izan duten azterlan batzuek erakutsi dute **emakumeek** gizonek baino **joan-etorri gehiago egiten dituztela oinez, zaintza arduren eta ekoizpen lanaren eguneroko eginkizunen banaketa desberdinen ondorioz**. Horien artean sartzen dira adin txikikoei, adintsuei edo desgaitasunen bat duten pertsonen laguntzea, erosketak egitea eta hiri barnean joan-etorri labur asko egitea dakarten beste kudeaketa batzuk. Testuinguru horretan, egoera ezin hobean dauden eskailera, arrapalak eta igogailuak oso tresna garrantzitsuak dira, emakumei eta mugikortasuna murriztuta duten pertsonen modu seguruan, eraginkorrean eta autonomia handiago batez ibiltzeko aukera ematen baitie.

GOMENDIOAK

- Dauden instalazioak behar bezala erabiltzea, eta **horiek segurtasunez erabiltzeko neurriei arreta berezia jartzea** (gune kritikoak argizatzea, matxuren berri emateko deien funtzionamendu egokia, etab.).

5.1.3. MUGIKORTASUN BERTIKALA

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Mugikortasun Bertikala programa **Herritarren Segurtasuna eta Mugikortasuna** gastu politikan sartzen da, eta 2026ko ekitaldiari begira ez da programari atxikiriko gasturik aurreikusi.

Programa honetan biltzen dira hiri barnean igogailuak eraikitzeko bideratutako inbertsioak. Eta zuzkidurak esparru horretan hartzen diren erabakien arabera dira. Horrexegatik, gorabehera handiak izaten dituzte, ekitaldi honetan bezala.

MUGIKORTASUN BERTIKALA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
6. kapitulua	871.944,00	0,00	-871.944,00	-%100,00
TOTAL	871.944,00	0,00	-871.944,00	-%100,00

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Ez da gastu eraldatzaile edo sentikorrera bideratutako zuzkidurarik identifikatu.

GOMENDIOAK

- Kontuan harturik programa honetako (igogailuak, arrapalak, eskailera mekanikoak, etab.) **inbertsioek** zuzenean eragiten dutela mugikortasunean eta irisgarritasunean, eta zeharkako eragina dutela kontziliazioaren eta erantzukidetasunaren esparruan, hautapen irizpideetan genero irizpide berberak ikuspegi intersektional batez txertatzeko gomendioa egiten da: sexua, adina, errenta, gune kritikoak, etab.

5.1.4. HIRI MUGIKORTASUNA

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Hiri Mugikortasuna programa **Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna** gastu politikan sartzen da, eta % 2,23 hartzen du **udal aurrekontuetan** (2025ean, % 2,25). Beraz, 2026ko ekitaldirako zuzkidurak **-% 5,13ko** jaitsiera izan du.

HIRI MUGIKORTASUNA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	7.900.820,00	8.162.018,00	261.198,00	%3,31
2. kapitulua	2.727.410,00	2.727.410,00	0,00	%0,00
4. kapitulua	9.240,00	9.240,00	0,00	%0,00
6. kapitulua	1.008.511,00	150.000,00	-858.511,00	-%85,13
GUZTIRA	11.645.981,00	11.048.668,00	-597.313,00	-%5,13

Programaren aldaketa nagusia 6. kapitulan gertatu da (-% 85,13), eutsi egin zaie bide segurtasuneko jarduketei eta ez da bestelako inbertsio espezifikorik proposatu. Gainerako kapituluek ez dute aldaketa esanguratsurik izan.

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Honako hauetan zentratu da 2026rako zuzkidura **gastu eraldatzaile** gisa:

- **Autodefentsa feminista tailerra emakumezko mugikortasun agenteentzat (1.500 €).**
- **Jarduerak mugikortasun astean: Emakumea eta mugikortasuna hitzaldia (500 €).**
- **Garraio bertikalaren gida plana berrikustea genero ikuspegiarekin (18.000 €).** Aurreko urteko zuzkidura berbera, ez baitzen burura eraman.

Ondorioz, 2026. urterako gastu eraldatzailearen zenbatekoa 20.000 €-koa da, **4.000 €-ko igoera izan du**, eta, beraz, **% 25eko igoera** izan du 2025ekoarekin alderatuta.

Gastu sentikorrari dagokionez, **ez da atxikiriko zenbatekorik identifikatu.**

GOMENDIOAK

- Emakumezko mugikortasun agentei zuzendutako **autodefentsa feministako prestakuntza jarduerak sustatzen jarraitzea**. Eta prestakuntza horietan eta Gizonduz programaren bitartez zerbitzuko gizonetako langileei zuzendutako prestakuntzetan parte hartzeari buruzko datuen jarraipena egitea.
- **Hiri mugikortasun jasangarriko Planaren** genero eraginaren txostenean sartutako **neurriak eta gomendioak sustatzea**.
- Mugikortasun arloko zuzendaritzak burutu beharreko proiektuetan genero ikuspegia txertatzen eta ziurtatzen jarraitzeko, **departamentuen arteko (berdintasuna / mugikortasuna) lan batzordea** dinamizatzea.

5.1.5. HIRIGINTZA

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Hirigintza programa **Etxebizitza eta Hirigintza** gastu politikan sartzen da, eta % 1,35 hartzen du udal aurrekontuetan (2025ean, % 3,27). Beraz, 2026ko ekitaldirako zuzkidurak **-% 50,51ko jaitsiera izan du**

HIRIGINTZA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	4.602.426,00	4.919.693,00	317.267,00	%6,89
2. kapitulua	212.947,00	214.700,00	1.753,00	%0,82
6. kapitulua	12.123.865,00	1.554.803,00	-10.569.062,00	-%87,18
GUZTIRA	16.939.238,00	6.689.196,00	-10.250.042,00	-%60,51

Aurreko urteetan bezala, funtsean 6. kapituluaren zuzkiduran oinarritzen da zuzkidura aldea. **6. kapituluan** esleitutakoaren arabera, eutsi egiten zaio **plangintzan genero eraginaren ebaluazioa egiteko zuzkidura espezifiko** batekin jarraitzeko hartutako konpromisoari.

HIRIGINTZA	1.554.803,00
601.02 Hiri Lorategia Urbanizazioa	152.859,00
601.05 Illarra, Hitzarmen-batzarretarako ekarpenak	90.000,00
601.06 Infernua, Hitzarmen-batzarretarako ekarpenak	996.944,00
643.02 Genero inpaktua plangintzan	15.000,00
643.04 Antolatze eta gauatzeko lanak	300.000,00

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

2026rako bideratutako gastu eraldatzailea % 50 murriztu da, izan ere, desagerrarazi da 2025ean esleitutako zuzkidura, hirigintza ordenantza bat genero neurriekin lantzekoa. Baina eutsi egiten zaio honako honetara bideratutako zuzkidurari:

- Hirigintza plangintzan **genero eragina egiaztatze txostenak (15.000 €)**. Iaz esleitutakoari eusten zaio 643.02 partidaren baitan.

GASTU ERALDATZAILAREN EBOLUZIOA				
HIRIGINTZA	2023	2024	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
6. kapitulua	30.000,00	15.000,00	-15.000,00	0,0%
GUZTIRA	30.000,00	15.000,00	-15.000,00	-%50,00

GOMENDIOAK

- Donostiako **hiri plangintzan berdintasun atalaren parte hartzea** ziurtatzea.
- **Amara kaleko etxebizitza berrien diseinuaren lizitazioan Emakumeen Etxe** berriaren premiei erantzuteko gune egoki eta nahikoa gaitzen dela ziurtatzea, Emakumeen Etxea Elkarateak eta Berdintasun Atalak landutako "Emakumeen Etxe berriko premiak" txostenean ezarritakoaren arabera, eta Hirigintzari helaraztea.

5.1.6. DONOSTIAKO ETXEGINTZA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Donostiako Etxegintza enpresa publikoa **Etxebizitza eta Hirigintza** gastu politikan sartzen da. 2026rako aurrekontu zuzkidura -% 0,92 apaldu da, eta programa honek aurrekontuetan % 4,50 hartzen du (2025ean, % 4,34).

ETXEGINTZA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	2.482.000,00	2.665.000,00	183.000,00	%7,37
2. kapitulua	5.000.000,00	4.910.000,00	-90.000,00	-%1,80
3. kapitulua	2.384.000,00	2.208.000,00	-176.000,00	-%7,38
6. kapitulua	6.825.000,00	6.599.700,00	-225.300,00	-%3,30
9. kapitulua	5.774.300,00	5.875.000,00	100.700,00	%1,74
GUZTIRA	22.465.300,00	22.257.700,00	-207.600,00	-%0,92

Aldaketen zenbatekoa ez da esanguratsua zenbateko globalaren aldean eta genero ikuspegitik garrantzitsuak diren gastuekiko erlazioan.

Udalak 2026rako 4.0850.000 €-ko ekarpena egingo du gastu arrunterako eta 529.325 €-ko ekarpena kapital gasturako. 2025ean 4.086.000 €-ko eta 3.748.000 €-ko ekarpenak egin zituen, hurrenez hurren.

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

2026ko ekitaldiari begira **ez da gastu eraldatzailerako edo sentikorrerako bideratutako zuzkidurarik identifikatu.**

Halere, esan beharra dago, **etxebizitza tasatua arautzen duen azken udal ordenantzan** eta erantsitako inpaktuari buruzko txostenean adierazitakoaren arabera, emakumeek baliabide ekonomiko gutxiago izaten dituztela eta sarriago eskatzen dituztela babes publikoko etxebizitzak. Egoera hori babes berezia behar duten beste talde batzuetan ere ikusten da, hala nola indarkeria matxista jasan duten emakumeen artean, guraso bakarreko etxeetan, familia ugarietan eta abarretan.

Horregatik, eta EAEko Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legearen 2. artikuluan eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen 1/2023 Errege Dekretuaren 50. eta 62. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorruta, honako **neurri hauek jasotzen ditu ordenantza berriak:**

- **Baremazioa** udal etxebizitza tasatuak **esleitzeko sistema gisa, non errenta maila den haztapenerako irizpide nagusia.**
- Kolektibo batzuek (indarkeria matxistaren biktimak, guraso bakarreko familiak, familia ugariak eta behar bereziak dituzten beste kolektibo batzuk) etxebizitzak eskuratzeari lehentasuna ematen dioten **kupo espezifikoak.**

Horregatik guztiagatik, gaur egun **gastu eraldatzailerako edo sentikorrerako bideratutako zenbatekoa identifikatzeko zailtasun teknikoak** dauden arren, lan ildo bat zehaztu da berdintasun atalaren eta etxebizitza programaren artean, irizpide horiek adosteko.

GOMENDIOAK

- Erakundearen barneko nahiz kanpoko jarduketan **Berdintasunerako plan** bat lantzeko gomendioari eusten zaio, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko martxoaren Legearen 43., 50, eta 62. artikuluetan ezarritakoari erantzuteko.
- Berdintasun atalarekin lankidetz**a ildo bat sustatzea, ikuspegi intersektionalarekin, etxebizitza politikak emakumeen artean duen eragina neurtzeko Donostiako hirian.

5.1.7. BIDE PUBLIKOAK

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Bide Publikoak aurrekontu programa **Etxebizitza eta Hirigintza** gastu politikan sartzen da. Programa horren aurrekontu zuzkidura % 5,28 igo da, eta % 0,65 hartzen du udal aurrekontuetan (2025ean, % 0,59).

BIDE PUBLIKOAK	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	825.638,00	841.972,00	16.334,00	%1,98
2. kapitulua	1.246.991,00	1.296.991,00	50.000,00	%4,01
6. kapitulua	980.131,00	1.075.000,00	94.869,00	%9,68
GUZTIRA	3.052.760,00	3.213.963,00	161.203,00	%5,28

Aldaketa esanguratsuenak **6. kapituluan** gertatu dira, eta ondoko jarduketa ildo hauek igoera txiki batzuk izan dituzte 2025ekoekin alderatuta:

BIDE PUBLIKOAK		1.075.000,00
601.03	Irigarritasuna eta espazioa publikoak	350.000,00
601.02	Haur parkeak (berrikuntzak)	425.000,00
601.01	Barandak, hiri-altzariak eta seinalitika berritzea eta pintatzea	300.000,00

Komenigarria da genero ikuspegia aintzat hartzea haur parkeetan egiten diren berrikuntzetan eta irigarritasuna eta espazio publikoak partidan.

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Ez da gastu eraldatzaile edo sentikorrera bideratutako zuzkidurarik identifikatu.

GOMENDIOAK

- Aurrekontu programa honek burututako proiektuen kontratazioan eta diseinuan **genero irizpideak implementatu direla** egiaztatzea, eta ondoren **bete egin direla** egiaztatzea.
- Berresten da komenigarria dela **sailen arteko lan ildo bat ezartzea berdintasun atalarekin eta espazio publikoa mantentzeko, konpontzeko eta diseinatzeko programekin**, horietan genero ikuspegia zeharka txeratzeko.

5.1.8. HERRI ARGITERIA

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Herri argiteria aurrekontu programa **Komunitate ongizate** gastu politikan sartzen da. Programa horren aurrekontu zuzkidura **-% 14,43 apaldu da** 2026an, eta **% 0,96 hartzen du udal aurrekontuetan** (2025ean, % 1,06).

HERRI ARGITERIA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	5.484.500,00	4.684.500,00	-800.000,00	-%14,59
6. kapitulua	60.000,00	60.000,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	5.544.500,00	4.744.500,00	-800.000,00	-%14,43

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Ez da gastu eraldatzaile edo sentikorrera bideratutako zuzkidurarik identifikatu.

GOMENDIOAK

- Berresten da komenigarria dela **sailen arteko lan ildo bat ezartzea berdintasun atalarekin eta espazio publikoa mantentzeko, konpontzeko eta diseinatzeko programekin**, horietan genero ikuspegia zeharka txeratzeko.

5.1.9. PARKE ETA LORATEGIAK

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Parke eta Lorategiak aurrekontu programa **Ingurumen** gastu politikan sartzen da. Programa horren aurrekontu zuzkidura **% 1,02 igo da** 2026an, eta **% 1,85 hartzen du udal aurrekontuetan** (2025ean, % 1,75).

PARKE ETA LORATEGIA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	754.177,00	828.848,00	74.671,00	%9,90
2. kapitulua	7.321.591,00	7.789.476,00	467.885,00	%6,39
6. kapitulua	999.999,00	550.000,00	-449.999,00	-%45,00
GUZTIRA	9.075.767,00	9.168.324,00	92.557,00	%1,02

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Ez da gastu eraldatzaile edo sentikorrera bideratutako zuzkidurarik identifikatu.

GOMENDIOAK

- Berresten da komenigarria dela **sailen arteko lan ildo bat ezartzea berdintasun atalarekin eta espazio publikoa mantentzeko, konpontzeko eta diseinatzeko programekin**, horietan genero ikuspegia zeharka txeratzeko.

5.1.10. CRISTINA ENEA

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Cristina Enea aurrekontu programa **Ingurumen** gastu politikan sartzen da.

Cristina Enea 2008an sortu zen **Fundazio** gisa hiriko ingurumen politikan erreferente izateko helburuarekin. Donostiako Udalaren ekimenaz sortua, Gipuzkoako Foru Aldundia dauka Patrono sortzaile iraunkor gisa, eta 2015etik aurrera, Añarbeko Urak – Aguas del Añarbe SA fundazioaren babesle iraunkor da.

Ingurumen esparruko dibulgazioa eta sentsibilizazioa ditu xede Fundazioaren jarduerak, eta, horretarako, honako zentro eta jarduera hauek kudeatzen ditu: Ingurumen Baliabideen Etxea, Urgulleko Natur Txokoa. Ulia Interpretazio zentroa, Iraunkortasunaren Behatokia eta Bizikletaren Behatokia.

Programa horretatik dinamizatzen dira generoa aintzat hartzen duten jarduerak, horrexegatik txertatu behar da genero ikuspegia duten aurrekontuak aztertzeke prozesuan.

Udalak 747.386 €-ko ekarpena egingo du 2026rako, eta, beraz, 60.000 € gutxiago jarriko ditu 2025ean egindako ekarpenaren aldean (799.416 €). Zenbateko hori Iraunkortasun aurrekontu programan txertatutako NaturKlimara bideratu da.

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

2026rako, **2.000 €** esleitu dira **gastu eraldatzaile gisa**, Cristina Eneak sustatzen eta garatzen duen jardueran genero ikuspegia txertatzen jarraitzeko.

Bestalde, **ez da gastu sentikorrerako zuzkidurarik identifikatu**.

GOMENDIOAK

- Programazioetan genero ikuspegia txertatzeko ildoari eustea, **hala erakusketetan nola ikastaroetan eta prestakuntza saioetan, ikuspegi ekofeministari ere eutsiz**.

5.1.11. HONDARTZAK

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Hondartzak aurrekontu programa **Ingurumen** gastu politikan sartzen da. Programa horren aurrekontu zuzkidura + % **4,88** igo da 2026an, eta % **0,79** hartzen du udal aurrekontuetan (2025ean, % 0,70).

HONDARTZAK	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	119.802,00	121.778,00	1.976,00	%1,65
2. kapitulua	3.443.210,00	3.726.213,00	283.003,00	%8,22
6. kapitulua	50.000,00	40.000,00	-10.000,00	-%20,00
GUZTIRA	3.613.012,00	3.887.991,00	274.979,00	%7,61

2. kapitulari dagokionez, besteak beste, **227.99.04 Salbamendua eta Sorospena partida** igo da (+89.268 €) zerbitzu horiek kontratatzen direnetik, eta horietan **komenigarria da prestakuntza ziurtatzea indarkeria matxistaren aurreko prebentzioan eta arretan.**

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Ez da gastu eraldatzailerik edo sentikorrerik bideratutako zuzkidurarik identifikatu.

GOMENDIOAK

- Berdintasun atalarekin koordinatuta **hondartzako zerbitzuei** (batez ere kabinak eta sorospena) **lotutako langileen prestakuntza** indartzen duten genero klausulen txertaketa gaitzea, **indarkeria matxista prebenitzeko eta arreta emateko.**

5.2. BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUERAK

14 programa aztertu dira gastuen arlo honetan, zehazki hauek:

- Berdintasuna.
- Garapenerako lankidetzak eta hezkuntza.
- Donostia Lagunkoia.

GIZARTE EKINTZA ZUZENDARITZA

- Gizarte zerbitzuen zentroak.
- Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa.
- Apartamentu tutelatuak.
- Gizarte abegi etxea.
- Gizarteratzea.
- Adin txikikoen prebentzioa eta familia.
- Adineko pertsonen sustapena.
- Adineko pertsonentzako egoitzak
- Etxez etxeko laguntza.
- Gizarte larrialdietarako laguntzak.
- Zahar etxea (programa hori atal honetan jaso dugu *gizarte ekintzaren zuzendaritzapean dagoelako. Halere, aurrekontuari dagokionez, Lehenetsuneko ondasun publikoen ekoizpena eta Kultura arloko gastu politikan sailkatzen da).*

5.2.1. BERDINTASUNA

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Berdintasuna programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da. 2026rako 1.116.022 €-ko zuzkidura du, hau da, % **2,51ko** igoera izan du. Beraz, programa honek **udal aurrekontuen % 0,23 hartzen du** (2025ean % 0,21).

BERDINTASUNA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	482.894,00	490.936,00	8.042,00	%1,67
2. kapitulua	327.607,00	333.861,00	6.254,00	%1,91
4. kapitulua	228.225,00	241.225,00	13.000,00	%5,70
6. kapitulua	50.000,00	50.000,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	1.088.726,00	1.116.022,00	27.296,00	%2,51

1., 2. eta 4. kapituluetan izandako aldaketetan oinarritzen da programa honen igoera. **6. kapituluan eutsi egiten zaio 622.01 Emakumeen Etxearen kokapen berria partidaren zenbatekoari (50.000 €), aurreko urteetan zuzkidura hori izan zuelako baina egikaritu gabe geratu zelako.**

Bestalde, **1. kapituluan** izandako aldaketa Udalean aplikatutako % 2ko soldata igoera orokorraren emaitza da.

2. kapituluari dagokionez, guztira 6.254 €-ko igoera gertatu da jarraian adierazten den aldaketa multzoaren ondorioz:

- **227.25 partida berriaren sorrera:** Komunikazio agentzia, 14.000 €.
- Guztira, 16.907 €-ko **igoera**, partida hauetan banatuta:
 - **226.99. 03.** Emakumeen ahalduntzea (+ 15.000 €).
 - **227.01. 01** Garbiketa (+1. 907 €).
- Guztira, 27.650 €-ko **jaitsiera**, partida hauetan banatuta:
 - **226.99. 08** Pobreziaren eta prekarietatearen feminizazioaren aurkako estrategia (-15.000 €).
 - **226.99. 01** Indarkeria sexistaren aurkako ekimenak (-8.000 €).
 - **221.01. 00** Energia elektrikoa (-1.650 €).
 - **220.02. 00** Prentsa, liburuak, aldizkariak y beste argitalpen batzuk (-3 €).

2. kapituluko gainerako partidek eutsi egin diote 2025eko zuzkidurari.

2. kapituluaren baitan, 226.99 Bestelako gastuak sortako partidek **eta 227.04 Indarkeria sexistaren aurkako kanpainak** partidak eusten diete berdintasuna programaren arabera jarduketara nagusiei. Eta bi horien artean hartzen dute kapitulu honen aurrekontuaren % 78, jarraian zehazten den bezala:

Partida	Gastuen deskribapena	2026	2025	Aldea
226.99	Bestelako gastuak	192.790 €	200.790 €	-8.000 €
226.99.01	Indarkeria sexistaren aurkako ekimenak	36.000 €	44.000 €	-8.000 €
226.99.02	Ikerketa lanak eta prestakuntza	3.000 €	3.000 €	0 €
226.99.03	Emakumeen ahalduntzea	111.265 €	96.265 €	15.000 €
226.99.05	Erantzunkidetasuna eta zaintzak lantzeko ekintzak	6.000 €	6.000 €	0 €
226.99.07	V. Berdintasun Plana egitea	15.000 €	15.000 €	0 €
226.99.08	Pobreziaren eta prekarietatearen feminizazioaren aurkako estrategia	11.500 €	26.500 €	-15.000 €
226.99.11	Sexuak eta aniztasuna hezteko programa, eskola-umeei eta institutuei zuzendua	10.025 €	10.025 €	0 €
227.04	Indarkeria sexistaren aurkako kanpainak / Campañas contra la violencia sexista	67.636 €	67.636 €	0 €
	GUZTIRA	260.426 €	268.426 €	-8.000 €

Bi partida horien jaitsiera globala esku hartzeko **kanpainei** (227.25 Komunikazio-agenda) **lotutako karter, liburuxka eta abarren jarduerara espezifiko bat sortzeko** kreditu deribazioari zor zaio; 14.000 €-ko zenbatekoa esleitu zaio.

Aldaketa hori kontuan hartuta, **gisa honetako jardueretara bideratutako zenbateko orokorra** 274.426 €-koa da (2025ean, 268.426 €), eta, beraz, **6.000 €-ko gehikuntza** izan du eta 2. kapituluaren guztizko zenbatekoaren % 82 hartzen du.

Azkenik, **4. kapitulua** da igoerarik handiena izan duena (+13.000 €), % 5,70eko igoerarekin. 2025. urteko dirulaguntza lerro berberei eutsi zaie.

- **481.01 partida, Irabazi asmorik gabeko erakundeetarako dirulaguntzak**, emakumeen elkarteei eta elkarte mistoei zuzenduak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzen duten proiektuak edo jarduerak egiteko eta emakumeen asoziazionismoa eta parte hartzea sustatzeko hiriko bizitza politikoaren, ekonomikoaren, sozialaren eta kulturalaren esparru guztietan. **2025eko zuzkidura berberari eusten dio.**
- **481.02 partida, Dirulaguntza nominatiboa Emakumeen Etxea elkarteari**, Emakumeen Etxea dinamizatzeko, emakumeen topagune, eztabaidarako eta hausnarketarako gune gisa, bizitzaren eremu guztietan emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorrerantz aurrera egitea helburu duten politiketan, programetan eta proiektuetan eragin ahal izateko. **+13.000 €-ko igoera du.**

- **481.03 partida, Arrats elkarte eta Txiki Txoko proiektua**, bazterkeria arriskuan dauden emakumeei zuzenduta, batez ere emakume migratzaileei, zaurgarritasun egoeran bizi direnei, eta horietako asko guraso bakarreko familiak dira, adin txikiko seme-alabekin. Programa honetatik gizarte bizitzaren esparru guztietarako sarbidea ahalbidetzeko zerbitzu osagarriak eta laguntza sozialak eskaintzen dira: laguntza emozionala eta baliabideak adin txikiko seme-alabei arreta emateko gizarteratzeko/laneratzeko jarduerak garatzen dituzten bitartean, eta prestakuntza bizi kalitatea hobetzeko. **2025eko zenbateko berberari** eutsi dio.

Partida	Gastuen deskribapena	2.026	2.025	Aldea
481.01	Irabazi asmorik gabeko erakundeetarako dirulaguntzak	82.000 €	82.000 €	0 €
481.02	Dirulaguntza nominatiboa Emakumeen etxeko elkarteari	85.000 €	72.000 €	13.000 €
481.03	Arrats elkarte, TxikiTxoko proiektua	74.225 €	74.225 €	0 €
GUZTIRA		241.225 €	228.225 €	13.000 €

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Programa honi esleitutako zenbatekoaren guztizkoa gastu eraldatzailea da, programaren beraren jatorria eta xedea baita.

DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA

Emakumeen Etxea emakume askoren eta askotarikoen **topaketarako, prestakuntzarako, pentsamendurako eta ekintzarako** gune bat da, eta mugimendu feministaren eta Donostiako Udaleko Berdintasun atalaren arteko kudeaketa eredu misto edo partekatu baten bidez antolatzen da.

Donostiako Udalak **2026an 298.376,71 €-ko ekarpen ekonomikoa** egingo dio Emakumeen Etxeari. 2025ekoarekin alderatuta, zenbatekoa +% 4,17 handitu da (+ 11.957,65 €) hainbat faktoreren ondorioz: emakumeen etxea elkartearekiko hitzarmenaren eguneraketaren eta zuzkidura batzuen (etxeko langileen aholkularitza juridikoa eta etxeko langileei zuzendutako ahalduntze taldea, literatura feministako taldeak: euskaraz eta gaztelaniaz eta udako ikastaroak) berrikuspenaren ondorioz.

2023/2024ko ekitaldiari buruz argitaratutako azken oroitidazkiaren datuak kontuan hartuta, **Emakumeen Etxearen** gaur egungo espazioak ez die Donostiako Hiriaren beharrei eta dimentsioari erantzuten. Horrexegatik, eutsi egiten zaio **sarbide errazeko eta instalazio egokiko** kokapen berri baten eskaerari. Eskaera hori jada txertatu zen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko urriaren 20an onartutako **Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Planean: Emakumeen Etxe handi, anitz eta koordinatuagoa**. Eta ziurrenik une honetan onartzeke dagoen V. Planean jasoko da.

Ondoko koadroan dago jasota Udalak Emakumeen Etxeari egingo dion ekarpenaren xehetasuna:

DONOSTIAKO UDALAK EMAKUMEEN ETXERA EGINDAKO EKARPENA	
1. Hitzarmena Emakumeen Etxea Elkartarekin	
Espazioaren dinamizazioa arratsaldeko ordutegian	85.000,00 €
2. Langileak	
Berdintasun teknikari bat lanaldi osoan	59.813,29 €
3. Ikastaroak, ahalduntze-taldeak eta zerbitzuak	
Emakumeentzako banakako arreta psikologikoa eta taldeko psikoterapia-zerbitzua	20.408,74 €
Aholkularitza juridikoko zerbitzua	11.855,94 €
Aniztasun funtzionala duten emakumeentzako ahalduntze-taldea	9.679,03 €
Atzerriko emakumeentzako ikasketak baliozkotzeko zerbitzua	7.259,27 €
Sexu-informazioko eta indarkeria matxisten prebentzioko zerbitzua gazteentzat eta neska gazteen ahalduntze-taldea	15.772,35 €
Indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakumeen ahalduntze-taldea	10.483,15 €
Etxeko langileen eta kontratatzaileen aholkularitza juridikoko zerbitzua eta ahalduntze taldea	12.448,74 €
Literatura feministako taldeak: euskaraz eta gaztelaniaz	2.703,00 €
Udako ikastaroak	1.580,00 €
4. Eraikuntzaren mantenua	
Gastu arrunta (telefonoa, garbiketa, fotokopia, elektrizitatea, komunitateko gastuak, konponketa txikiak)	48.000,00 €
5. Komunikazioa	
Argazkiak eta bideoak	4.259,20 €
Hileroko programak: diseinua, maketazioa eta inprenta	3.000,00 €
Urteko memoriaren argitalpena: diseinua eta maketazioa	4.114,00 €
Memoria eta programak inprimatzea	2.000,00 €
GUZTIRA	298.376,71 €

GOMENDIOAK

- Hiria **Emakumeen Etxe** berri batez hornitzeko beharra, **partaidetza prozesu** baten bidez diseinatuko dena eta Donostiaren hiriburutzarekin bat etorriko dena.
- Indarkeria matxistaren aurkako Estatu itunaren** konpromisoei erantzuteko, behar-beharrezkoa da esparru horretan **baliabideen eta beharrianen azterlan eguneratu** bat egitea. Helburua da **proposamenak egin ahal izatea, egungo egoerari eta udalak** arlo horretan **duen eskumen esparruari erantzuteko**.

5.2.2. LANKIDETZA ETA GARAPENERAKO HEZKUNTZA

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Lankidetza eta garapenerako hezkuntza programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da. Programa honen aurrekontu zuzkidura **+% 8,35 igo da**, eta **% 0,55 hartzen du udal aurrekontuetan** (2025ean, % 0,49).

LANKIDETZA ETA GARAPENARAKO HEZKUNTZA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	322.571,00	332.483,00	9.912,00	%3,07
2. kapitulua	115.525,00	115.525,00	0,00	%0,00
4. kapitulua	2.077.112,00	2.277.112,00	200.000,00	%9,63
TOTAL	2.515.208,00	2.725.120,00	209.912,00	%8,35

Funtsean, **4. kapituluko** bi partidetan metatzen da igoera hori, jarraian zehazten den bezala:

- +140.000 €-ko igoera lehia askeko lankidetzarako Dirulaguntza lerrorako (481.01 partida).
- +60.000 € gehiago lehia askeko EpTS Dirulaguntzetarako (481.02 partida).

Genero ikuspuntutik, positibotzat jotzen dugu bi dirulaguntza horietan izandako igoera, oinarrietan eta diruz lagundutako proiektuetan zeharka sartzen baitira genero irizpideak. Beraz, gastu eraldatzailatzat hartu behar da.

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Programa honetan, **gastu eraldatzailera** bideratutako esleipen bat soilik identifikatu da.

Aurreko urteetan bezala **481.01** partidaren zenbateko osoa (**1.312.089 €**) **barne hartu da, berdintasunerako klausulak** aintzat hartzen dituzten **dirulaguntzetara bideratua**, GKE onuradunek emakumeak programen erdigunean jar ditzaten, emakumeak baitira pobreziatik eratorritako egoerak gehien nozitzen dituztenak.

Bestalde, zenbateko horri **481.02 partidaren ehuneko bat gehitu zaio**, horien artean arestian adierazitako helburu bertsuak aintzat hartu ohi direla identifikatu baita. Gehitutako zenbatekoa kalkulatzeko, 2024. urteko kontzesioaren ehunekoa erabili dugu (txosten hau idaztean ez ditugu eskura izan 2025eko datuak), guztizkoaren % 38ra iritsita (likidazio txostenean egiztatu beharrekoa). Guztira, **218.987,54 €**-koa da zenbatekoa.

Beraz, 2025. urtearekin alderatuta, **1.531.076,54 €**-koa da identifikatutako **gastu eraldatzailearen guztizkoa**, eta, beraz, **% 30,63ko igoera** izan da.

GASTU ERALDATZAILAREN EBOLUZIOA				
LANKIDETZA ETA GARAPENARAKO HEZKUNTZA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
4. kapitulua	1.172.089,00	1.531.076,54	358.987,54	%30,63
GUZTIRA	1.172.089,00	1.531.076,54	358.987,54	%30,63

GOMENDIOAK

- Zuzeneko dirulaguntza lerroetan genero klausulak txertatzea.

5.2.3. DONOSTIA LAGUNKOIA

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Donostia Lagunkoia programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da. **2025eko** ekitaldiaren aldean, **ez da** programaren aurrekontu zuzkidura **aldatu**, eta eutsi egiten dio **aurrekontuetan** hartzen duen ehunekoari (% 0,02).

DONOSTIA LAGUNKOIA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	101.758,00	101.758,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	101.758,00	101.758,00	0,00	%0,00

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Ez da gastu eraldatzailerak edo sentikorrerak bideratutako zuzkidurarik identifikatu.

GOMENDIOAK

- **Berdintasun atalarekin koordinazio dinamika** bat ezartzea gomendatzen dugu Donostia Lagunkoia proiektuan gastu eraldatzailetzat definitzen diren ekimen zehatzeko lerroak txertatzeko.

GIZARTE EKINTZA PROGRAMAK

Jarraian Gizarte Ekintza Zuzendaritzako programa guztiak aztertuko ditugu, eta amaieran gastu eraldatzailearen eta gastu sentikoraren laburpen taula bat erantsi dugu.

- Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa.
- Gizarte zerbitzuen zentroak.
- Apartamentu tutelatuak.
- Gizarte abegi etxea.
- Gizarteratzea.
- Prebentzioa, haurtzarora eta familia.
- Adineko pertsonen sustapena.
- Adineko pertsonentzako egoitzak.
- Etxez etxeko laguntza.
- Gizarte larrialdietarako laguntzak.
- Zahar etxeak.

5.2.4. GIZARTE ONGIZATEA: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da. 2026. urterako **zuzkidura +% 5,65 igo da**, eta, beraz, **% 0,19** hartzen du **udal aurrekontuetan** (2025ean, % 0,17).

GIZARTE ONGIZATEA: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	568.480,00	625.619,00	57.139,00	%10,05
2. kapitulua	35.482,00	28.482,00	-7.000,00	-%19,73
4. kapitulua	282.966,00	282.966,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	886.928,00	937.067,00	50.139,00	%5,65

Igoera hori batez ere **1. kapituluan** oinarritzen da arrazoi hauengatik: alde batetik, Udalak aurreikusitako soldata igoera orokorragatik (% 2). Eta, bestetik, Administrazio Orokorreko Teknikari plaza baten gehikuntzagatik, generoaren ikuspuntutik garrantzitsua den zerbitzua indartzen baitu.

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Programa honetan **gastu sentikorrera bideratutako partida** bat identifikatu da, baliabideak eskaintzen baitizkie desgaitasunarekin, osasun mentalarekin, gizarteratzearekin eta beste arlo batzuekin lotutako zaintza behar bereziak dituzten pertsonen arreta ematen dieten elkarteei. Gainera, elkarte horietan, beren denbora zaintza lanei ematen dieten emakumeek osatzen dute boluntarioen bolumenaren zatirik handiena.

Beraz, **gastu sentikorraren zenbateko orokorra, 274.800 €, 481.01 partidan** biltzen da, eta 2024ko kontzesio datuen arabera, 100dik gora elkartek aurkeztutako 132 proiektu ingururi erantzuteko baliatzen da zenbateko hori.

GOMENDIOAK

- Gizarte Ekintza programen artean eta **berdintasunaren eta indarkeriaren gaian koordinazio sistematika berrikusteko** gomendioa egiten dugu, proposatutako neurriak aplikatzen direla ziurtatzeko eta beste neurri berri batzuk lantzeko.

5.2.5. GIZARTE ZERBITZUEN ZENTROAK

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Gizarte zerbitzuen zentroak programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da. 2026rako aurreikusitako aurrekontua **+% 20,05 igo da**, eta **% 1,34** hartzen du **udal aurrekontuetan** (2025ean % 1,07).

GIZARTE ZERBITZUEN ZENTROAK	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	4.602.642,00	5.258.082,00	655.440,00	%14,24
2. kapitulua	563.259,00	749.466,00	186.207,00	%33,06
6. kapitulua	350.000,00	614.556,00	264.556,00	%75,59
GUZTIRA	5.515.901,00	6.622.104,00	1.106.203,00	%20,05

Programa honek gizarte zerbitzuen zentroetako pertsonal gastua biltzen du, gizarte zerbitzu horietan baitira euskal gizarte zerbitzuen sisteman sartzeko ateak. Programak hiru kapituluetan izan du igoera:

1. kapituluaren igoera % 2ko soldata igoera orokorraren eta, zerbitzua indartze aldera, 5 gizarte langile eta 3 administrari gehitzeko akordioaren ondorioa da.

2. kapituluaren igoerari dagokionez, hainbat partidatan izandako igoera eta jaitsiera sorta baten emaitza da. Horien artean nabarmentzen ditugu herritarrei zuzeneko zerbitzua ematen dietenak:

- **227.04.01 Laguntzeko programan izandako +166.525 €-ko igoera.**
- **227.93 partida, Intxaurrondoko otorduak, + 7.523 €-ko igoera.**

Kapitulu horretako gainerako aldagetak hornidurekin, segurtasunarekin, garbiketarekin eta abarrekin daude lotuta.

Azkenik, **6. kapituluaren** emendioa, Bretxako Gizarte zerbitzuen zentroa egitera bideratutako inbertsio bat aurreikusitako baita.

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Ez da gastu eraldatzailerik edo sentikorrerik bideratutako zuzkidurarik identifikatu.

GOMENDIOAK

- **Berdintasun atalarekin koordinatuta prestakuntza bat egitea arreta hobetzeko genero ikuspegitik.**

5.2.6. APARTAMENTU TUTELATUAK

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Apartamentu tutelatuak programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da. 2026rako aurreikusitako aurrekontua +% 4,15 igo da, eta % **0,53** hartzen du **udal aurrekontuetan** (2025ean % 0,48).

APARTAMENTU TUTELATUAK	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	208.045,00	222.953,00	14.908,00	%7,17
2. kapitulua	2.256.399,00	2.345.164,00	88.765,00	%3,93
4. kapitulua	36.080,00	36.080,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	2.500.524,00	2.604.197,00	103.673,00	%4,15

Programa horrek biltzen ditu 1. mendekotasun maila duten adineko pertsona autonomoei zuzendutako etxebizitza sozialak mantentzeko gastuak, eta beraz, eragin positiboa duen programa da zainketen esparruan. **4. kapituluan** eutsi egiten zaio AFAGI elkarteari (Alzheimerre edo beste dementziaren bat duten Gipuzkoako pertsonen, senitartekoen eta lagunen elkartea) emandako zuzeneko laguntzari.

2. kapituluaren igoera (+% 3,93), aurreko urteetan bezala, kudeatutako apartamentu eta etxebizitza komunitarioen gastuen eguneraketarekin lotzen da.

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

1. mendekotasun maila duten adineko pertsonen zaintza lerro bati eta behar bereziak eskatzen dituzten zaintza lanak egiten dituzten elkartei (AFAGI) eusten dienez, **gastu sentikortzat** hartzen da programa honen arabera jardueren izaera.

Apartamentu tutelatuak programak **baliabide baliotsu bat osatzen du generoaren ikuspegitik**, apartamentu horietan bizi direnen autonomia eta ongizatea ahalbidetzen baitute eta, aldi berean, **batez ere emakumeek familia eremuetan beren gain hartzen duten zaintza karga arintzen baitute**. Laguntza eredu horrek lagundu egiten du erantzukizunak birbanatzen eta zaintzaren inguruko rol tradizionaletatik eratorritako desberdinkeria murrizten.

Gastu sentikorraren esleipenean 1. kapitulua baztertu da, jarduera horretan ematen den dedikazioaren arabera gastuaren ehuneko bat esleitzea ahalbidetzen duten irizpide teknikoak identifikatzen ez diren bitartean.

Beraz, **2.381.244 €**-koa da programa honetan **identifikatutako gastu sentikorraren** guztizko kopurua.

GOMENDIOAK

- **Zerbitzuaren eskaera datuei, estaldura tasari eta onuradunak hautatzeko irizpideei** buruzko azterketa sistematikoa egiteko gomendioari eusten zaio, **sexuaren arabera bereizita, generoaren ikuspegitik balorazioa** egiteko. Era berean, desiragarria da **azterketarako aldagai berriak** integratzea (interseksionalitatea).

5.2.7. GIZARTE ABEGI ETXEA

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Gizarte abegi etxea programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da. 2026rako aurrekontua **+% 1,99 igo da**, eta **% 0,39 hartzen du udal aurrekontuetan** (2025ean % 0,37).

GIZARTE ABEGI ETXEA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	1.166.524,00	1.192.195,00	25.671,00	%2,20
2. kapitulua	736.312,00	748.463,00	12.151,00	%1,65
GUZTIRA	1.902.836,00	1.940.658,00	37.822,00	%1,99

226.10 Kanpoko enpresek egindako aparteko lanak partidaren zuzkidura murriztu dela azaldu behar dugu, eta partida horrek eusten ziola Abegi Etxea zentroaren erabiltzaileei genero ikuspegiarekin zuzendutako prestakuntzara eta jardueretara bideratutako gastu eraldatzaileari. Izan ere, **Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimei Arreta emateko Zerbitzua (IMBEAZ) biltzen den programara **bideratu dira mota horretako gastuak.****

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Ez da gastu eraldatzaile edo sentikorrera bideratutako zuzkidurarik identifikatu.

Aurreko puntuan adierazi bezala, aurreko urteetan programa honi gastu eraldatzaile gisa esleitutako zuzkidura (2025ean, 10.200 €), IMBEAZ zerbitzuan esleitu da 2026an.

GOMENDIOAK

- Abegi Etxeari atxikiriko langileen **barne prestakuntza sustatzea berdintasunaren arloan eta ikuspegi intersektionalarekin.**

5.2.8. GIZARTERATZEA

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Gizarteratzea programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da. 2026rako, 2025ean bezala, **+% 5,30** igoko da, eta **% 1,20** hartuko du udal aurrekontuetan (2025ean, % 1,09).

GIZARTERATZEA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	604.287,00	624.026,00	19.739,00	%3,27
2. kapitulua	3.507.457,00	3.685.825,00	178.368,00	%5,09
4. kapitulua	1.509.000,00	1.509.000,00	0,00	%0,00
6. kapitulua	0,00	100.000,00	100.000,00	
GUZTIRA	5.620.744,00	5.918.851,00	298.107,00	%5,30

Programa honen igoerari dagokionez, nabarmentzekoa da **6. kapituluko** Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua berritzeko egindako esleipen berria.

2. kapituluan egindako aldaketak zerbitzuen aurrekontu egokitzapenetan oinarritzen dira, hala nola kanpoko laguntza teknikoetan, mantentze gastuetan, alokairuetan, horniduretan eta abarretan egondako egokitzapenetan.

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Ez da gastu eraldatzailerako edo sentikorrerako bideratutako zuzkidurarik identifikatu.

GOMENDIOAK

- Gizarte bazterkeria egoera larrian dauden emakumeei eta haurrei eta programa honek kudeatutako zentroetako balizko erabiltzaileei zuzendutako **ekintza positiboak inplementatzea**.

5.2.9. ADIN TXIKIKOEN PREBENTZIOA ETA FAMILIA

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Adin txikikoen prebentzioa eta familia programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da. 2026rako **+% 8,33ko** igoera aurreikusten da, eta **% 0,88** hartuko du udal aurrekontuetan (2025ean, % 0,78).

ADIN TXIKIKOEN PREBENTZIOA ETA FAMILIA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	1.087.703,00	1.384.855,00	297.152,00	%27,32
2. kapitulua	2.922.967,00	2.959.887,00	36.920,00	%1,26
GUZTIRA	4.010.670,00	4.344.742,00	334.072,00	%8,33

Aurreko urtean bezala, igoerarik handiena **1. kapituluan** gertatu da, antzeko arrazoi batengatik, epai judizial baten ondorioz Udalak kontratatu beharreko psikologo talde bat (3 lagun) kontratatu behar delako. Eta beste psikologo plaza bat gehiago dagoelako, zerbitzua indartu dela agerian utzirik.

2. kapituluari dagokionez, honako aldaketa hauek nabarmenduko ditugu gastu eraldatzaile eta gastu sentikorrekin lotuta daudelako:

- 227.04.02** Indarkeria matxistaren aurkako prebentzioa programaren **partida +10.000 €-an handitu da IMBEAZ** zerbitzuaren urteko oroitidazkia egiteko eta kasu konplexu jakin batzuetan ikuskaritza saioak egiteko.
- 227.04.05** Arreta sozio-hezitzailea eta psiko-soziala zerbitzua programaren **partidak +192.267 €-ko igoera du**.
- 227.04.09** Prestakuntza, aholkularitza eta esku hartze goiztiarra programaren **partidak -184.942 €-ko jaitsiera du**.

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimei Arreta emateko Zerbitzua (IMEBAZ) programa honetan txertatzen da maila funtzionalean. IMEBAZek ostatu, harrera, diagnostiko, orientazio, laguntza psikologiko eta premiazko laguntza ekonomikoko baliabideak eskaintzen dizkie indarkeria matxistari aurre egin behar dioten emakumeei.

Programa honetan gastu eraldatzailea eta gastu sentikorra identifikatu dira.

a) Gastu eraldatzaileari dagokionez:

- IMEBAZeko **pertsonal gastu** osoa gastu eraldatzailea da.
- Gainera, 2026rako, **IMEBAZ zerbitzuaren urteko oroitidazkia egiteko bideratutako** zuzkidura handitu da, eta partida horren irismena ere handitu da **nolabaiteko konplexutasuna duten kasuak gainbegiratzeko. Guztira, 20.000 € esleitu dira** (227.04.02 partida).

Beraz, **guztira 353.817 €**-koa da programa honen **gastu eraldatzailea**, eta, horrenbestez, % 5,10ekoa da igoera.

GASTU ERALDATZAILAREN EBOLUZIOA				
ADIN TXIKIKOEN PREBENTZIOA ETA FAMILIA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	326.661,00	333.817,00	7.156,00	%2,19
2. kapitulua	10.000,00	20.000,00	10.000,00	%100,00
GUZTIRA	336.661,00	353.817,00	17.156,00	%5,10

b) Gastu sentikorrari dagokionez:

Programa honetan, partida hauek identifikatu dira **gastu sentikor gisa zuzeneko lotura dutelako zaintza lanekin**:

- **227.04.09** Prestakuntza, aholkularitza eta esku hartze goiztiarra **partida**, 876.358 €-ko zenbatekoarekin.
- **227.04.05** Arreta sozio-hezitzailea eta psiko-soziala zerbitzua **partida**, 1.963.919 €-ko zuzkidurarekin.

Beraz, **guztira 2.840.277 €-ko gastua** izango da **gastu sentikorrean**.

GOMENDIOAK

- **Datuak biltzeko sistematika eta** indarkeria matxista jasan duten emakumeen arreta integralean esku hartzen duten **erakundeen arteko koordinazioa hobetzen jarraitzea**.

5.2.10. ADINEKO PERTSONEN SUSTAPENA

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Adineko pertsonen sustapena programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da. 2026. urterako zuzkidura **-% 1,78 murriztu da**, eta, beraz, **% 0,15 hartzen du** udal aurrekontuetan (2025ean, % 0,14).

ADINEKO PERTSONEN SUSTAPENA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	305.182,00	310.439,00	5.257,00	%1,72
2. kapitulua	423.061,00	404.526,00	-18.535,00	-%4,38
4. kapitulua	16.332,00	16.332,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	744.575,00	731.297,00	-13.278,00	-%1,78

Programa horren bidez laguntzen zaie beren jarduerak udal ekipamenduetan edo ekipamendu propioetan garatzen dituzten adinekoen elkarteei.

2. kapituluan gertatutako aldaketa, hornidura elektrikoaren murrizketan ez ezik, 227.04.01 Dinamizazioa zentroetan partidaren jaitsieran ere oinarritzen da (-8.273 €).

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Ez da gastu eraldatzailerak edo sentikorrerak bideratutako zuzkidurarik identifikatu.

GOMENDIOAK

- **Berdintasunarekin batera koordinatzea** gomendatzen dugu adineko pertsonen zuzendutako programa guztiak berrikusteko eta **berdintasunaren eta indarkeriaren** gaian premia berriak detektatzeko. **Ikuspegi intersektionala** barne hartuta.

5.2.11. ADINEKO PERTSONENTZAKO EGOITZAK

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Adineko pertsonentzako egoitzak programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da. 2026. urterako aurreikusitako aurrekontua **+% 15,47 handitu da**, eta, beraz, **% 0,23 hartzen du udal aurrekontuetan** (2025ean, % 0,19).

ADINEKO PERTSONENTZAKO EGOITZAK	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	964.843,00	1.114.079,00	149.236,00	%15,47
GUZTIRA	964.843,00	1.114.079,00	149.236,00	%15,47

2. kapituluan zentratzen da aurrekontu zuzkidura. Zenbateko hori Zorroaga Fundaziora bideratuko da bizitegi ekipamenduan adineko autonomoentzako ostatu eta arreta zerbitzua emateko. Aurreko urteetan bezala, Zorroaga Egoitzako erabiltzaileen koordainketaren arabera zehazten da zuzkidura, eta jaitsiera horren arrazoia 2024ko benetako koordainketatik eratorritako doikuntza da.

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Programa osoa gastu sentikor gisa identifikatzen da, 1. mendekotasun maila duten adineko pertsonen zaintza lerro bati erantzuten diolako eta, aldi berean, batez ere emakumeek familia eremuetan beren gain hartzen duten zaintza karga arintzen duelako. Laguntza eredu horrek lagundu egiten du erantzukizunak birbanatzen eta zaintzaren inguruko rol tradizionaletatik eratorritako desberdinkeria murrizten.

Beraz, programa honi atxikitako **gastu sentikorraren guztizko zenbatekoa 1.114.079 €-koa da.**

GOMENDIOAK

- **Zerbitzuaren eskaerari eta estaldura tasari buruzko datuak sexuaren arabera bereizita** aztertzeko gomendioari eusten diogu, zerbitzuaren egokitasuna genero ikuspegitik balioetsi ahal izateko.

5.2.12. ETXEZ ETXeko LAGUNTZA

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Etxez etxeko laguntza programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da. 2026rako +% 80,37ko igoera aurreikusten da, eta, beraz, % 2,03 hartuko du udal aurrekontuetan (2025ean, % 1,93).

ETXEZ ETXeko LAGUNTZA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	120.170,00	122.054,00	1.884,00	%1,57
2. kapitulua	9.879.537,00	9.914.935,00	35.398,00	%0,36
GUZTIRA	9.999.707,00	10.036.989,00	37.282,00	%0,37

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Etxez etxeko laguntza zerbitzua **zuzeneko zaintzetara bideratutako gastua da**, eta inpaktu hirukoitza du: zerbitzuaren hartzaile diren pertsonengan, lan hori betetzen duten profesionalengan eta/edo lan hori bere gain hartuko luketen pertsonengan, zerbitzua desagertuko balitz. Hiru kasuetan, emakumeak dira gehien-gehienak.

Etxez etxeko laguntza zerbitzua hil ala bizikoa da laguntza jasotzen dutenentzat, eta, gainera, funtsezko espazioa da genero estereotipoak zalantzan jartzeko, zaintza lanak agerian jartzeko eta gizarte justuago eta zuzenago baterantz egiteko.

Beraz, **etxaz etxeko laguntza zerbitzua kontratatzeko zuzkidura (227.21.01 partida, 9.904.435 €-ko zenbatekoarekin) gastu sentikor gisa** identifikatu da; izan ere, genero desberdinkeriak betikotzen dituzten mekanismoak eraldatzeko xede espezifikoak ez badu ere, zuzkidura hori desagerrarazita dauden arrakalak handitu egin litezke.

Gastu sentikorraren esleipenean 1. kapitulua baztertu da, jarduera horretan ematen den dedikazioaren arabera gastuaren ehuneko bat esleitzea ahalbidetzen duten irizpide teknikoak identifikatzen ez diren bitartean.

Beraz, **gastu sentikorraren guztizko zenbatekoa 9.904.435 €-koa da.**

GOMENDIOAK

- **Etkez etzeko zerbitzuaren lizitaziorako** erabilitako kontratazio agiriak **genero ikuspegitik aztertzea** gomendatzen dugu.

5.2.13. GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Gizarte larrialdietarako laguntza programa **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** gastu politikan sartzen da, eta 2026rako **aurrekontu zuzkidura berberari** eutsiko dio. **Udal aurrekontuetan % 0,75 hartuko du** (2025ean, % 0,72).

GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
4. kapitulua	3.728.741,00	3.728.741,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	3.728.741,00	3.728.741,00	0,00	%0,00

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Ez da gastu eraldatzailerik edo sentikorrerik bideratutako zuzkidurarik identifikatu.

GOMENDIOAK

- **Datuak sexuaren arabera bereizteko eta genero ikuspegitik aztertzeko praktikan sakontzea.** Datuen azterketan, ahal dela, **ikuspegi intersektionala** txertatzea (adina, jatorria, etab.).

5.2.14. ZAHAR ETXEAK

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Zahar etxeak programa Gizarte Ekintzaren zuzendaritzapean dago. Halere, aurrekontuari dagokionez, **Lehetasunezko ondasun publikoen ekoizpena** gastuan eta **Kultura** arloko gastu politikan sailkatzen da.

2026rako **+% 69,34ko igoera** aurreikusten da, eta, beraz, **% 0,52 hartuko du** udal aurrekontuetan (2025ean, % 0,30).

ZAHAR ETXEAK	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	728.137,00	779.173,00	51.036,00	%7,01
4. kapitulua	723.200,00	723.200,00	0,00	%0,00
6. kapitulua	76.000,00	1.084.000,00	1.008.000,00	%1326,32
GUZTIRA	1.527.337,00	2.586.373,00	1.059.036,00	%69,34

Programa honetan izandako aldaketa batez ere 6. kapituluan oinarritzen da, partida berri bat sartu baita (guztira 1.084.000 €) Erdialdeko zahar etxea berritzeko.

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Ez da gastu eraldatzailerako edo sentikorrerako bideratutako zuzkidurarik identifikatu.

GOMENDIOAK

- **Berdintasunarekin batera koordinatzea** gomendatzen dugu adineko pertsonen zuzendutako programa guztiak berrikusteko eta berdintasunaren, zainketen eta indarkeriaren gaian premia berriak detektatzeko.

GIZARTE EKINTZAKO PROGRAMEN GASTU ERALDATZAILEAREN ETA GASTU SENTIKORRAREN LABURPENA

Hona hemen Gizarte Ekintzako programen 2026rako esleitutako gastu eraldatzailen eta sentikorren laburpena:

- a) **Gastu eraldatzailari dagokionez**, 353.817 €-koa da zenbatekoa, eta, beraz, % 2,01eko igoera du 2025ekoarekin alderatuta.

GASTU ERALDATZAILAREN EBOLUZIOA				
GIZARTE EKINTZA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	326.661,00	333.817,00	7.156,00	%2,19
2. kapitulua	20.200,00	20.000,00	-200,00	-%0,99
GUZTIRA	346.861,00	353.817,00	6.956,00	%2,01

- a) **Gastu sentikorrari dagokionez**, 16.514.835 €-koa da guztizko zenbatekoa. Gastu tipologia hori identifikatzen den aurreneko urtea denez, ez da haren eboluzioa sartzen.

GASTU SENTIKORRA			
Unitatea	2. Kap.	4. kap.	GUZTIRA
Gizarte Ekintza	16.203.955,00	310.880,00	16.514.835,00

5.3. LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA

16 programa aztertu dira gastu arlo honetan, aurreko urtean baino bat gehiago, komunak programa gehituta. Hauexek dira:

- Komunak.
- Osasunaren sustapena.
- Osasun publikoa eta animalien ongizatea.
- Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua.
- Udal Musika eta Dantza Eskola (3 programa): Musika eta dantza eskola / Musika eta dantza eskola (Liburutegia) / Musika eta dantza eskola (Txistulariak).
- Heziketarako programak.
- Giza eskubideak.
- Kultur aniztasuna.
- Donostia kultura.
- Euskara.
- Gazteria.
- Kirolak: Zuzendaritza eta administrazioa.
- Kirolak: Zuzendaritza eta administrazioa (Donostia Kirola) / Kirol instalazioak (Donostia Kirola).

5.3.1. KOMUNAK

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Komunak programa **Osasuna** gastu politikan sartzen da. 2026rako aurrekontu zuzkidura +% 1,36 igo da, eta % 0,14 hartzen du udal aurrekontuetan (2025ean, % 0,13).

KOMUNAK	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	661.922,00	670.953,00	9.031,00	%1,36
GUZTIRA	661.922,00	670.953,00	9.031,00	%1,36

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Programa honen zuzkidura osoa (670.953 €) gastu sentikor gisa identifikatu da.

Hirian komun publikoak eta doakoak izatea ez da soilik hiri azpiegituraren kontu bat, ekitatearen eta eskubideak bermatzearen kontua ere bada. **Espazio horiek ez izateak edo nahikoa ez izateak eragin desberdina du pertsonengan**, eta, bereziki, emakumeengan, adinekoengan eta haur txikiekin ibiltzen direnengan, haiek izaten baitituzte **zaintzarekin edo ziklo biologikoekin lotutako premia fisiologiko handienak**.

Genero ikuspegitik begiratuta, komun publikorik ez izatea oztopo izan daiteke hiri **espazioaren erabilera ekitatiborako**. Emakume askok beren ibilbideak mugatu ditzakete edo bide publikoan denbora luzez egotea saihesten dute, ezin baitute komun segurua, garbia eta doakoa erabili. Gabezia horrek emakume horien mugikortasuna murrizten du, eta hiriko bizitza komunitarioan, kulturean eta ekonomikoan parte hartzea baldintzatzen du.

Gainera, komun publikoek rol bat jokatzen dute segurtasunaren arloan. Espazio egokirik ez badago, batzuetan konponbide inprobisatuak erabili behar izaten dira, indarkeria, jazarpena edo gaixotasunak gertatzeko arriskua areagotuz. Horrexegatik, **komun publiko irisgarriak, higienikoak eta behar bezala banatuak bermatzea hiri politika inklusiboen funtsezko osagaia da.**

GOMENDIOAK

- Komun publikoen **diseinuan eta antolaketan ikuspegi intersektzionala** txertatzea. Eta, hala badagokio, haien kokapenetan puntu kritikoak identifikatzea (argiztapena, irisgarritasuna, irekitzeko sistemak, etab.).

5.3.2. OSASUNAREN SUSTAPENA

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Osasunaren sustapena programa **Osasuna** gastu politikan sartzen da. 2026rako aurrekontu zuzkidura **+% 2,10 handitu da**, eta udal aurrekontuetan hartzen duen pisua **% 0,05ekoa** da, 2025ean bezala.

OSASUN SUSTAPENA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	135.110,00	140.146,00	5.036,00	%3,73
2. kapitulua	104.250,00	104.250,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	239.360,00	244.396,00	5.036,00	%2,10

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Ez da gastu eraldatzailerik edo sentikorrerik bideratutako zuzkidurarik identifikatu.

GOMENDIOAK

- Berdintasun atalarekin batera koordinazio lerroari eustea**, burura eramandako diagnostikotik abiatuta **berdintasunaren gaian edo/eta emakumeen osasunean eragiten duten neurriak** identifikatzeko.

5.3.3. OSASUN PUBLIKOA ETA ANIMALIEN ONGIZATEA

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Osasun publikoa eta animalien ongizatea programa **Osasuna** gastu politikan sartzen da. 2026rako aurrekontu zuzkidura **+% 3,19 igo da**, eta % 0,31 hartzen du udal aurrekontuetan (2025ean, % 0,29).

OSASUN PUBLIKOA ETA ANIMALIEN ONGIZATEA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	754.580,00	644.050,00	-110.530,00	-%14,65
2. kapitulua	742.795,00	901.092,00	158.297,00	%21,31
GUZTIRA	1.497.375,00	1.545.142,00	47.767,00	%3,19

Programa honetako **1. kapituluaren** jaitsiera, KIUBeko (Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegoa) langileak programa horretan behar bezala atxikitzeagatik gertatu da, eta ez programa horretan atxikitzeagatik.

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Gastu eraldatzaile gisa mantentzen dira **6.000 €** adikzioak programan (226.99.04) genero ikuspegia txertatzeko. Esku hartze horren izaera **garrantzitsua da genero ikuspegitik**, zuzeneko ekintzak burutuko baitira Donostiako gazteekin, eta horien bitartez beste udal zerbitzu batzuetara bideratu eta/edo landu ahal izango baitira desberdinkeria, jazarpen eta indarkeria egoerak.

Gastu sentikorrari dagokionez, **ez da atxikiriko zenbatekorik identifikatu**.

GOMENDIOAK

- **Ikasgeletan** adikzioen arloan **esku hartzeko programan genero ikuspegia** sakontzeko abiarazitako **lan ildoarekin jarraitzea**.

5.3.4. HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua programa **Hezkuntza** gastu politikan sartzen da. 2026rako aurrekontu zuzkidurak ia zenbateko berberari **eutsi dio** (+% 0,01), eta udal aurrekontuetan **% 1,79ko** pisua du (2025ean % 1,71).

HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN FUNZIONAMENDUA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	2.029.729,00	2.142.361,00	112.632,00	%5,55
2. kapitulua	6.272.841,00	6.611.530,00	338.689,00	%5,40
6. kapitulua	550.000,00	100.000,00	-450.000,00	-%81,82
GUZTIRA	8.852.570,00	8.853.891,00	1.321,00	%0,01

Programa honen bitartez ordaintzen dira sare publikoko **lehen hezkuntzako eta haur hezkuntzako ikastetxeetako mantentze lanak**. Aldaketarik handiena 6. kapituluan gertatu da, murriztu egin baita ikastetxeetako obretara bideratutako ohiko partida.

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

2026ko ekitaldiari begira, programa honetan **ez da gastu eraldatzailen zenbateko zehatzik identifikatu**. Programa hau patio inklusiboen antolaketari lotuta egon ohi da.

Ikastetxeetan **patio inklusiboak** inplementatzea estrategia eraginkorra da txikitatik errepikatzen diren genero rolei eta estereotipoei aurre egiteko eta horiek eraldatzeko. Espazio horiek, **parte hartze ekitatiboa eta jolas kooperatiboa** sustatzeko diseinatuta baitaude, askatasunez elkarreragiteko aukera ematen dute, **genero bakoitzari “dagokionari” buruzko espektatiba tradizionalak ezarritako mugarik gabe**.

Ingurune horiek errespetu, lankidetzeta eta enpatia bezalako balioak sustatzen dituzte, eta, **jokabide diskriminatzaileak eta bazterkeriak prebenitzen dituztenez, errotik heltzen diete desberdinkeriei**. Ikastetxeko ingurunea desberdintasunak aitortzen eta erabiltzen diren espazio bihurtzen denean, murriztu egiten dira estereotipoetan oinarritutako bazterkeriak edo jokabide diskriminatzaileak normalizatzeko aukerak. Hala bada, patio inklusiboek aberastu egiten dute heziketa esperientzia, eta, gainera gizarte ekitatiboagoetarako oinarriak jartzen dituzte, non parte hartzea eta garapen pertsonala ez dauden genero arau murriztaileen mende.

Nolanahi ere, gisa honetako obrak kanpoko dirulaguntzen mende daude (Eusko Jaurilaritza), eta dirulaguntzak emanez gero, **programaren ildo operatiboaren zati izango da patio inklusiboen garapena**.

Bestalde, **gastu sentikorrari dagokionez**, zuzenean lotzen baita zaintza sarearekin, hiriko **Haur Eskolak egoki mantentzeko gastuei** atxikitzen zaie, eta gutxi gorabehera % 8 hartzen du programako 2. kapituluan. Guztira, **528.922,40 €**.

GOMENDIOAK

- **Egungo patioen eraldaketa bultzatzen jarraitzea**, eredu inklusibo bihur daitezen, espazioaren erabilera ekitatiboa ahalbidetuko dutenak, eta elkarreragiteko beste eredu batzuk sustatu daitezen. Nesken eta mutilen arteko espazioen hierarkiak gaindituz eta beste jolas eredu batzuk ahalbidetuz.

5.3.5. UDAL MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA / MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA (LIBURUTEGIA) / MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA (TXISTULARIAK)

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Musika eta Dantza Eskola **Udal Erakunde Autonomoa** da, eta arautu gabeko irakaskuntzaren helburuetan parte hartzen du, kulturaren sorkuntza, kritika eta transmisioari begira, musika eta dantza diziplinen berariazko eta lehentasunezko eremutik.

Hiru aurrekontu programek osatzen dute programa honen aurrekontua: Musika eta dantza eskolak, 6.084.742 €-ko zuzkidurarekin (2025ekoarekin alderatuta, % 4,80ko igoera) **Hezkuntza** gastu politikaren baitan. Eta Musika eta dantza eskola (liburutegia), 186.405 €-ko zuzkidurarekin (2025ean baino % 2,29 gehiago) eta Musika eta dantza eskola (Txistulariak), 756.993 €-ko aurrekontu zuzkidurarekin eta +% 3,14ko igoerarekin **Kultura** gastu politikaren baitan.

Beraz, batera hartuta, Musika Eskolak **7.028.140 €-ko aurrekontua du 2026.** urterako, hau da, 2025ean baino **+% 4,55 gehiago. Udal aurrekontuetan % 1,42hartzen du** (2025ean, % 1,30).

Udalaren ekarpenaren guztizkoa 4.110.193 €-koa da, 4.060.193 € gastu arrunterako eta 50.000 €-koa kapital gasturako.

MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	6.098.730,00	6.280.040,00	181.310,00	%2,97
2. kapitulua	622.570,00	697.400,00	74.830,00	%12,02
3. kapitulua	700,00	700,00	0,00	%0,00
6. kapitulua	0,00	50.000,00	50.000,00	
GUZTIRA	6.722.000,00	7.028.140,00	306.140,00	%4,55

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Aurreko urteetan bezala, programa honetako **gastu eraldatzailea** Eskolako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren inplementazioan biltzen da. Gainera, nabarmendu behar da badela **barneko Berdintasun batzorde** bat, berdintasun atalarekin koordinatuta, plan hori kudeatzen eta dinamizatzen duena.

2026rako **15.600 €-ko gastu eraldatzailea** aurreikusi da, eta, beraz, **+4.000 €-ko (+% 34,48) gehikuntza** dakar **2025ekoarekin alderatuta.**

Igoera hori **227.99.99 “Kanpoko bestelako enpresa lanak” partidan** gertatzen da nagusiki, **guztira 13.000 €-rekin**, gisa honetan banatuta:

- Epifanía Argaz y Muniberren obrak moldatzeko lanak hainbat musika talderentzat (9.000 €).
- Plantillaren egoeraren azterketa amaitzea berdintasunaren ikuspegitik eta plantillari aurkeztea (2.500 €).
- Berdintasuna sustatzeko xedea duten 3 jarduketa egitea, gutxienez (1.500 €).

Bestalde, 2025eko zenbateko berberari eusten diote honako hauek:

Funts bibliografikoak partida (628.01):

- Liburutegiko "Txoko Morea" handitzea berdintasun gaiak lantzen dituzten emakumezko egile eta interpreteen materialaz (1.100 €).

"Garraioak" partida (228.08):

- Berdintasuna sustatzeko xedea duten 3 jarduketa egitea, gutxienez (1.500 €).

Era berean nabarmendu behar da **2025ean zehar beren hezkuntza proiektua berrikusi dutela**, eta "Bizikidetzaz sustatzeko eta edozein diskriminazio modu arbuiatzeko irizpideak eta neurriak" izeneko atal bat txertatu dela. Bertan, **hezkidetzaz eta kulturartekotasuna** sartu dira ikastetxearen jardueraren irizpide gisa.

GASTU ERALDATZAILAREN EBOLUZIOA				
MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
Kanpoko bestelako enpresa lanak (227.99.99)	9.000,00	13.000,00	4.000,00	%44,44
Funts bibliografikoak (628.01)	1.100,00	1.100,00	0,00	%0,00
Garraioak (228.08)	1.500,00	1.500,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	11.600,00	15.600,00	4.000,00	%34,48

Azkenik, **ez da gastu sentikorrari** lotutako zenbatekorik **identifikatu**.

GOMENDIOAK

- **Berdintasun Batzordetik jarduerak sustatzeko egungo politikari** eustea eta, ahal den neurrian, gastu eraldatzailerak bideratutako baliabideak emendatzea.

5.3.6. HEZIKETARAKO PROGRAMAK

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Hezkuntza gastu politikako **Heziketarako Programak** programa **+% 0,71 handitu da**. Eutsi egiten dio aurrekontuetan duen % 0,07ko pisuari.

HEZIKETARAKO PROGRAMAK	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	126.190,00	131.771,00	5.581,00	%4,42
2. kapitulua	81.983,00	81.985,00	2,00	%0,00
4. kapitulua	130.329,00	127.163,00	-3.166,00	-%2,43
GUZTIRA	338.502,00	340.919,00	2.417,00	%0,71

4. kapituluaren jaitziera, -3.166 €, 481.05 Dirulaguntza Zubietako "Eskola Txikia" partidan zentratzen da (2025ean dirulaguntza eman zitzaizen Igeldoko eta Zubietako "Eskola txikiei").

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Finkatu egiten da aurreko urteetako aurrekontu zuzkidura gastu eraldatzailari dagokionez. Guztira, 70.318 € esleitu dira (ia 2025ean bezainbeste, 70,369 €).

Honako xede hau du:

- **226.99.01 "Berdintasun programa" partida, guztira 24.855 €-ko zenbatekoarekin (2025eko antzeko zenbatekoa) ikastetxeetako hezikidetzaren programetara bideratuak, hala nola "Harreman gozagarriak", "Batu eraldatu" tailerrak, "Desioa, gogoia, beharrak, harremanak eraikitzen" eta "Bizikidetzaren" programetara.**
- **226.99.02 "Genero indarkeria prebenitzeko programa" partida, 28.130 €-ko zenbatekoarekin (2025ean, 28.211 €), hainbat programetara bideratuak: Sexualitatearen inguruko heziketa integrala Donostiako ikastetxeetan, "Sexus zentzuz", mikroantzerki saioak eta eztabaida deskonektatuak sustatzea, gazteen artean teknologiaren erabilera aztertuz eta landuz.**
- **229.99-06 LGTBIQ+ diskriminazioaren aurkako jarduerak partida, "Aniztasunean hezi" programa, 10.500 €-ko zuzkidurarekin, 2025eko zenbateko berberarekin.**
- **481.03 "Hip Hip Hurri Programa" partida, 6.833 €-ko zuzkidurarekin, 2025eko antzeko kopuruarekin.**

GASTU ERALDATZAILAREN EBOLUZIOA				
HEZIKETARAKO PROGRAMAK	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	63.536,00	63.485,00	-51,00	-%0,08
4. kapitulua	6.833,00	6.833,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	70.369,00	70.318,00	-51,00	-%0,07

Bestalde, ez da gastu sentikorrari lotutako zenbatekorik identifikatu.

GOMENDIOAK

- **Ikuspegi intersektionalarekin ezarritako proiektuak aldizka berrikustea, beharren arabera egokitze aldera.**

5.3.7. GIZA ESKUBIDEAK

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Hezkuntza gastu politikan sartzen den **Giza Eskubideak** programaren zuzkidura **-% 10,93an** murriztu da 2026rako. Aurrekontu publikoetan duen **pisua ere apaldu egin da % 0,12tik % 0,11ra**.

GIZA ESKUBIDEAK	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	257.189,00	194.585,00	-62.604,00	-%24,34
2. kapitulua	270.769,00	264.836,00	-5.933,00	-%2,19
4. kapitulua	98.980,00	98.980,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	626.938,00	558.401,00	-68.537,00	-%10,93

1. kapituluaren jaitsiera erretiro baten ondorioa da. **2. kapituluaren** murrizketa 227.25 Komunikazio agentzia partidan oinarritzen da ia oso-osorik, eta programa horretako 2. kapituluaren jarduerari erantzuten dion partida sortak 2025eko aurrekontu zuzkidura berberari eutsi dio.

ida	Gastuen deskribapena	2026	2025	Aldea
226.99	Bestelako gastuak	198.400 €	198.400 €	0 €
226.99.01	Oroimen historikoa	40.250 €	40.250 €	0 €
226.99.02	Sentsibilizazio eta kontzientziazio programak	98.616 €	98.616 €	0 €
226.99.06	Oraitzepenezko ekintzak eta biktimen aitortza	18.000 €	18.000 €	0 €
226.99.08	Gerra Zibileko kokalekuak seinaleztatzea	18.750 €	18.750 €	0 €
227.04	Bisita gidatuak eta antzeztuak	22.784 €	22.784 €	0 €
	GUZTIRA	221.184 €	221.184 €	0 €

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

2026rako eutsi egin zaio **226.99.02 Sentsibilizazio eta kontzientziazio programak** partidari esleitutako **gastu eraldatzaileari (29.000 €)**, gisa honetan banatuta:

- 15.000 € ekainaren 28ko LGTBIQ+ Kanpainarako.
- 2.000 € LGTBIfobiari buruzko urteko txostenak egiteko.
- 12.000 € “LGTBIQ+ ekintza integraleko Planerako” (esan beharra dago, datuen transmisioan gertatutako akats baten ondorioz, 2025eko txostenean zuzkidura hori desagerrarazitzat aurkezten dela, nahiz eta azken aurrekontuetan onartu egin zen).

GASTU ERALDATZAILAREN EBOLUZIOA				
GIZA ESKUBIDEAK	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	29.000,00	29.000,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	29.000,00	29.000,00	0,00	%0,00

Bestalde, **ez da gastu sentikorrari** lotutako zenbatekorik **identifikatu**.

GOMENDIOAK

- **LGTBIQ+ ekintza plan bat** egitea gomendatzen dugu, dagoeneko eginda dagoen diagnostikotik abiatuta **helburuak, ardatzak, neurriak, baliabideak eta plangintza** zehaztu ditzan plana burura eramateko, udal berdintasun planarekin bat etorrira.

5.3.8. KULTUR ANIZTASUNA

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Hezkuntza gastu politikan sartzen den **Kultur Aniztasuna** programa **-% 1,91n apaldu da**, baina eutsi egiten dio aurrekontuetan duen pisuari, **% 0,09 hartzen baitu**.

KULTUR ANIZTASUNA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	186.048,00	177.329,00	-8.719,00	-%4,69
2. kapitulua	170.908,00	170.908,00	0,00	%0,00
4. kapitulua	87.690,00	87.690,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	444.646,00	435.927,00	-8.719,00	-%1,96

1. kapituluan zentratzen da alde hori, eta hirurtekoen benetako egoeraren doikuntzatik eratortzen da.

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Programa honek, aurreko urteen bezala, gastu zenbateko jakin bati eusten dio gastu **eraldatzaile** gisa, **Emakumeen Etxeko** emakumeak ahalduzko eta elkarteko **Emakumeen kulturarteko gunea** dinamizatzeko –jatorri askotariko emakumeen gunea da, astero-astero bilerak egiten dituen gure hirian migrazioaren bizipena partekatze–.

2026rako jaitsiera txiki bat izango du zenbatekoan (-504,55 €), eta, beraz, **guztira 8.481 €-ko** zuzkidura izango du.

GASTU ERALDATZAILAREN EBOLUZIOA				
KULTUR ANIZTASUNA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	8.985,55	8.481,00	-504,55	-%5,62
GUZTIRA	8.985,55	8.481,00	-504,55	-%5,62

Gastu sentikorrari dagokionez, ez da atxikiriko zenbatekorik identifikatu.

GOMENDIOAK

- **Sentsibilizazio kanpainetan genero ikuspegia** txertatzea, eta kanpaina horietan emakumeen eta gizonen errealitate desberdinak ikusaraztea (arrazakeria eta xenofobia, ijito herria, etab.).
- Emakume migratzaileen, arrazializatuen eta **ijitoen behar espezifiko**en azterketan sakontzea eta, hala badagokio, **politika** espezifiko **berriak** inplementatzea.

5.3.9. DONOSTIA KULTURA

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Donostiako **Udalaren mendeko Enpresa Erakunde Publikoa** da Donostia Kultura. Udalaren kultura politika bideratzen du, eta herritarrei kulturarekin eta herri jaiekin lotutako hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie, zerbitzu horiek nortasun indibiduala eta kolektiboa osatzen duten adierazpenez hartzen baitira.

2026rako **+% 3,45ean handitu da** programa honen **aurrekontu zuzkidura**, eta udal aurrekontuetan **% 7,47 hartzen du** (2025ean, % 6,90).

Udalaren ekarpenaren guztizkoa 29.952.700 €-koa da, 27.700.000 € gastu arrunterako eta 2.252.700 € kapital gasturako.

DONOSTIA KULTURA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	15.687.995,00	16.097.995,00	410.000,00	%2,61
2. kapitulua	17.103.136,00	17.797.320,00	694.184,00	%4,06
4. kapitulua	754.981,00	754.981,00	0,00	%0,00
6. kapitulua	2.127.700,00	2.252.700,00	125.000,00	%5,87
8. kapitulua	9.485,00	9.602,00	117,00	%1,23
GUZTIRA	35.683.297,00	36.912.598,00	1.229.301,00	%3,45

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Programa honetan **gastu eraldatzailea +% 93,02 emendatu da 2025. urtekoarekin alderatuta**, 60.000 €-ko inbertsioa aurreikusi baita emakumezko egileen obrak erosteko (likidazio txostenean egiaztatu beharrekoa). Horren ondorioz, 2026rako gastu eraldatzailearen zenbatekoa 125.500 €-koa izango da.

Kultur jardueri dagokienez, honako hauetan biltzen da gastu eraldatzaile gisa esleitutako aurrekontu zuzkidura:

- **Gure Ahotsak** programa, **35.000 €-ko zuzkidurarekin**. Aurreko urteetan, Emakumearen Nazioarteko Egunaren esparruan eraman da burura ekimen hau emakumezko musikariei ikusgarritasuna emateko.
- **Eutsi egiten zaio** 7.000 €-ko **zuzkidurari emakumearen asterako (Intxaurrondo eta Altza)**.
- Azkenik, **San Telmo Museoko** jardueri dagokienez, aurreikuspenen arabera segida emango zaio **“Gure gizartearen erronkak”** jarduerari, **7.500 €-ko** aurrekontu zuzkidurarekin. Gizarteak gizonen eta emakumeen artean sortu dituen eta desberdinkeria bihurtu diren desberdintasun moral, fisiko, sozial eta kulturalen garrantzia eta konplexutasuna aitortzean datza erronka hori.

GASTU ERALDATZAILAREN EBOLUZIOA				
DONOSTIA KULTURA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
Berdintasun plana eta formakuntzak (2024)	15.000,00	15.000,00	0,00	%0,00
Emakumearen asteak (Intxaurrondo eta Altza)	7.000,00	7.000,00	0,00	%0,00
Gure ahotsak kontzertua	35.000,00	35.000,00	0,00	%0,00
San Telmo Museoan: erosketetan emakumeen artelanak handitzen jarraitzea	0,00	60.000,00	60.000,00	
San Telmo Museoan: Gure gizartearen erronkak	7.500,00	7.500,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	64.500,00	124.500,00	60.000,00	%93,02

Bestalde, programa honetan **ez da gastu sentikorrik identifikatu**.

GOMENDIOAK

- Donostia Kulturaren berdintasun planaren garapenean **berdintasun atalarekiko koordinazioa indartzea eta bultzatzea** elkarriketa sistematizatu baten bidez.
- Donostia Kulturaren **Berdintasun planaren ebaluazioa** egitea.

5.3.10. EUSKARA

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Kultura gastu politikan sartzen den **Euskara** programa **+% 1,38 handitu da**, eta aurrekontuetan % 0,64 hartzen du (2025ean, % 0,60).

EUSKARA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	1.226.613,00	1.263.291,00	36.678,00	%2,99
2. kapitulua	1.068.293,00	1.065.875,00	-2.418,00	-%0,23
4. kapitulua	813.203,00	821.683,00	8.480,00	%1,04
GUZTIRA	3.108.109,00	3.150.849,00	42.740,00	%1,38

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Eutsi egiten zaie gastu eraldatzaile gisa esleitutako 10.000 €-ko zenbatekoari eta haren xedeari, **zaintza lanak egiten dituzten emakume migratzaileei** zuzenduta euskara sustatzeko, kontratatzen dituzten enpresen bidez banatzeko: hizkuntza harrera, baliabidek, etab.

Bestalde **gastu sentikor gisa identifikatzen da 227.99.04 “Oporretan euskaraz udaleku irekiak” partidaren zuzkidura, 194.925 €-ko zenbatekoarekin**, zuzenean dagoelako lotuta uda parteko kontziliazio neurri batekin.

GOMENDIOAK

- Gaur egungo esku hartzeko ildoei (**emakume atzeritarrek ahalduz**) eta udal arloen artean **zeharkako neurriak** (generoa, kulturartekotasuna eta hizkuntza irizpideak) **txertatzeko** ildoei eustea.
- Ikastetxeetan eta eskolaz kanpoko jardueretan bideratzen diren esku hartzeetan hezkidetzaren eta intersektualitatearen** ikuspegia bermatzea.

5.3.11. GAZTERIA

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Gazteria programa **Kultura** gastu politikan sartzen da. Aurrekontu zuzkidura **+% 6,19 handitu da**, eta udal aurrekontuetan duen pisua ere % 0,58ra emendatu da (2025ean, % 0,52).

GAZTERIA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapituluak	526.828,00	548.035,00	21.207,00	%4,03
2. kapituluak	1.974.047,00	2.195.687,00	221.640,00	%11,23
4. kapituluak	137.857,00	137.857,00	0,00	%0,00
6. kapituluak	75.000,00	0,00	-75.000,00	-%100,00
GUZTIRA	2.713.732,00	2.881.579,00	167.847,00	%6,19

2. kapituluari dagokionez, **jardueraren soziokulturala** partida (**226.06**) eta **Hautxokoaren eta Gaztelekuaren** sarera bideratutako (**227.04**) dira programa honen hartzaile diren kolektiboetan (neskak, haur nerabeak eta gazteak) zuzeneko eragina dutenak, eta garrantzitsuak dira genero ikuspegitik. Hautxokoetara eta Gaztelekuetara bideratutako zuzkiduraren kasuan, kapitulu honetan zenbateko handiena baitu (% 77), **handitu egin da 2026an (+158.337 €, +% 10,38)**.

Partida	Gastuen deskribapena	2026	2025	Aldea
226.06	Jardueraren soziokulturalak	193.015,00	177.236,00	15.779,00
226.06.03	Haur eta gazte aisialdia (denbora librearen eta Gabonak)	35.000,00	35.000,00	0,00
226.06.04	Gazte plana	28.600,00	23.324,00	5.276,00
226.06.05	Kultura hedatzea	5.200,00	5.200,00	0,00
226.06.06	Kultura sustatzea	34.295,00	34.292,00	3,00
226.06.07	Berdintasun programak	40.000,00	40.000,00	0,00
226.06.09	Martx Up! Programa	38.870,00	38.870,00	0,00
226.10.00	Kanpoko enpresek egindako aparteko lanak	11.050,00	550,00	10.500,00
227.04	Zerbitzu enpresak	1.684.343,00	1.526.006,00	158.337,00
	GUZTIRA	1.877.358,00	1.703.242,00	174.116,00

Berdintasun programak partidak **2024ko zuzkidura berberari** eusten dio.

6. kapituluari dagokionez, ez da zuzkidura berririk aurreikusi 2026rako.

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Programa honetan **gastu eraldatzailea eta gastu sentikorra** identifikatu dira.

a) Gastu eraldatzaileari dagokionez:

Gastu eraldatzailea -75.000 €-an murriztu da zuzkidura horrek 2025ean Parte Zaharrean Haurtxoko bat irekitzeko xedea zuelako (jada gauzatua).

Eutsi egiten zaio jardueretara bideratutako zuzkidurari, 40.000 €-ko zenbatekoarekin, gisa honetan banatuta:

- Indarkeria matxistak nerabezaroan gaiari buruzko IX. jardunaldiak (20.000 €).
- Beldur Barik programaren garapena (5.000 €).
- Indarkeria matxistaren aurkako eta berdintasuna sustatzeko jarduerak udal Haurtxokoetan, Gazteleketan eta Kontadoresko gazte gunean (martxoak 8, azaroak 25, autodefentsa ikastaroak, maskulinitasun tailerrak, Kontadoresko laborategiak, Kontadoresko agertokia, etab.) (6.000 €).
- Laguntza genero ikuspegiarekin eta feminisмотik lantzen diren enplegua sustatzeko proiektuetan. Martx UP! (5.000 €).
- Haurtxokoetan sexu hezkuntzako proiektua garatzea (4.000 €).

GASTU ERALDATZAILAREN EBOLUZIOA				
GAZTERIA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	40.000,00	40.000,00	0,00	%0,00
6. kapitulua	75.000,00	0,00	-75.000,00	-%100,00
GUZTIRA	115.000,00	40.000,00	-75.000,00	-%65,22

b) Gastu sentikorrari dagokionez:

Haurtxokoen eta Gaztelekuen sarea kontziliazioa zuzenean ahalbidetzen duen baliabidea da, eta bertatik haurrekin eta gazteekin lantzen dira berdintasunerako udal Planarekin bat datozen **hezkidetzak jarduerak**. Horrexegatik, ekipamendu eta jardura horiek estrategikoak dira genero ikuspegitik, eta programa honen partida hauek **gastu sentikortzat** hartzen dira:

- 226.06.09 Martx Up! programa partida (38.870 €).
- 227.04 partida, Haurtxokoei eta Gaztelekuei dagokien zatia (1.474.414,63 €).
- 481.03 Roteta Berri partida, Haurtxokoa eta "Gabonak zuretzat" programa kudeatzen laguntzeko dirulaguntza (39.350 €).
- 481.03 Dirulaguntzak Haurtxokoak Kabia Elkarteari partida. Haurtxokoa eta "Gabonak zuretzat" programa kudeatzen laguntzeko dirulaguntza (25.307 €).

Beraz, guztira **1.577.941,63 €-ko** gastua izango da **gastu sentikorrean**.

GOMENDIOAK

- Gaur egun berdintasun atalarekin dauden **komunikazio eta koordinazio ildoak eustea**.

5.3.12. DONOSTIA KIROLA / ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA / KIROL INSTALAZIOAK (DONOSTIA KIROLA)

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Udalaren Tokiko Erakunde Autonomoa da Udal Kirol Patronatua, eta udalerrian kirola garatzea du helburu. 2026rako aurrekontu zuzkidura **+% 0,27 emendatu da**, eta udal aurrekontuetan % 4,68ko pisua hartzen du (2025ean % 4,46).

Hiru aurrekontu programek osatzen dute aurrekontua: Kirolak: Zuzendaritza eta administrazioa, 4.856.858 €-ko zuzkidurarekin (2025ean baino -% 5,94 gutxiago), Donostia Kirola-Sustapena, 4.361.897 €-ko zuzkidurarekin (2025ean baino +% 8,01 gehiago) eta Kirol instalazioak, 13.940.226 €-ko zuzkidurarekin (2025ean baino +% 0,33 gehiago).

Udalaren ekarpenaren guztizkoa 11.970.000 €-koa da, 11.820.000 € **gastu arrunterako** eta 150.000 €-koa **kapital gasturako**.

DONOSTIA KIROLA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	6.379.784,00	6.732.841,00	353.057,00	%5,53
2. kapitulua	14.788.263,00	14.682.640,00	-105.623,00	-%0,71
3. kapitulua	25.000,00	25.000,00	0,00	%0,00
4. kapitulua	1.403.500,00	1.568.500,00	165.000,00	%11,76
6. kapitulua	500.000,00	150.000,00	-350.000,00	-%70,00
GUZTIRA	23.096.547,00	23.158.981,00	62.434,00	%0,27

4. kapituluari dagokionez, dirulaguntza batzuen zenbatekoa handitu dela nabarmendu behar dugu, eta beste dirulaguntza lerro berri batzuk sortu direla, horien artean **erreginareen koparen harira Bera Berari** bideratutakoa azpimarratu behar dugularik (60.000 €). **Gehikuntzaren** guztizko zenbatekoaren % 62 goi mailako **emakumezkoen taldeentzako lerro espezifiko nominatiboetara bideratuta dago** (ikus xehetasunak gastu eraldatzailea atalean).

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Programa honen gastu eraldatzailea +% 69,31 handitu da 2025ekoarekin alderatuta. Igoera hori gisa honetan banatzen da:

- **226.99.05 partida: 10.000 €**, Donostia Kirolaren barneko berdintasun plana diseinatzeko (zuzkidura berria).
- **227.99.26 partida: Berdintasuna sustatzeko jarduerak**, bi ekimen berrirekin: MTB Hirulau (10.000 €) eta 227.99.27 partida, Hiru hiriburuak (10.000 €). 2025ean 15.000 € esleitu ziren berdintasuna sustatzeko jarduerak inplementatzeko.
- 226.99.04 partida, **Women's Tennis Association (WTA) delakoan lankidetzan aritzeko: 18.848,80 €.**
- **282. 000 €** goi mailako emakumezko taldeei **dirulaguntza nominatibo sorta bat emateko** (2025ean 180.000 €), taula honen arabera:

Partida	Deskribapena	2026	2025
471.03	Goi-mailako emakumezkoen taldea: Real Sociedad de Fútbol S.A.D. (Belar hockeya 2026/27)	12.000,00 €	10.000,00 €
481.08	Goi-mailako handiko emakumezkoen taldea: Bera Bera R.T. (Eskubaloia 2026/27)	75.000,00 €	60.000,00 €
481.09	Goi-mailako handiko emakumezkoen taldea: Ibaeta K.E. (Saskibaloia 2026/27)	75.000,00 €	60.000,00 €
481.10	Goi-mailako handiko emakumezkoen taldea: C.H. Txuri Urdin (Izotz Hockeya 2026/27)	8.400,00 €	7.000,00 €
481.11	Donostia Arraun Lagunak (Arrauna 2026)	42.000,00 €	35.000,00 €
481.12	Goi-mailako handiko emakumezkoen taldea: C.H. Txuri Berri (Curling 2026/27)	3.600,00 €	3.000,00 €
481.13	Goi-mailako handiko emakumezkoen taldeak: Atletico SS (Atletismoa 2026/27)	6.000,00 €	5.000,00 €
481.19	Bera - Bera (Erreginaren Kopa)	60.000,00 €	0,00 €
Guztira		282.000,00 €	180.000,00 €

Dirulaguntza horien zenbateko globalak Donostia Kirolakek emandako **gutzizko dirulaguntzen % 17,98 hartzen du.**

Horrekin guztiarekin, **orotara 330.148,80 €-koa da gastu eraldatzailea.**

GASTU ERALDATZAILAREN EBOLUZIOA				
DONOSTIA KIROLA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	15.000,00	48.148,80	33.148,80	%220,99
4. kapitulua	180.000,00	282.000,00	102.000,00	%56,67
GUZTIRA	195.000,00	330.148,80	135.148,80	%69,31

GOMENDIOAK

- **Berdintasun planaren irismena** Donostia Kirolakek sustatuta herritarrei zuzendutako jarduerara zabaltzea, kontuan harturik jarduerak emakumeengan eta gizonengan duen eragina eta erabiltzen diren baliabideen bolumena.
- Donostia Kirolak barruan eta Donostiako kirol klub guztietan **“Kirol jardunean haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteko protokoloa”** implementatu dela egiaztatzea.
- Behin diseinatu ondoren, **barneko berdintasun plana** inplementatzeko beharrezkoak diren **baliabideak** aurreikustea.

5.4. JARDUKETA EKONOMIKOAK

5 programa aztertu dira gastuen arlo honetan, zehazki hauek:

- Donostia Turismo.
- Donostia Sustapena, SA
- Dbus.
- Hiri mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa.
- Proiektu eta obrak.

5.4.1. DONOSTIA TURISMO

PROGRAMAREN AURREKONTU-EBOLUZIOA

Donostia-San Sebastián Turismoa, SA Donostiako Udalaren merkataritza sozietatea da, **Sozietate Anonimoaren izaera du, eta udal titulartasunekoa da erabat.**

2026rako **aurrekontu zuzkidura** +% 5,73 emendatu da, eta udal aurrekontuetan % 0,94ko pisua hartzen du (2025ean % 0,85).

Udalaren ekarpenaren guztizkoa 3.791.000 €-koa da, 3.582.500 € **gastu arrunterako** eta 209.200 € **kapital gasturako**.

DONOSTIA TURISMO	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	2.356.082,00	2.555.211,00	199.129,00	%8,45
2. kapitulua	1.877.159,00	1.901.789,00	24.630,00	%1,31
6. kapitulua	180.200,00	209.200,00	29.000,00	%16,09
GUZTIRA	4.413.441,00	4.666.200,00	252.759,00	%5,73

1. kapituluan izandako igoera batez ere turismo arretarako bulego berri baten irekieran oinarritzen da (RENFE), eta **6. kapituluan** izandako igoera 2025ean jada baziren partida batzuetan egindako aldaketan eta Renferen bulegoa moldatzeko eta hornitzeko partida berriaren (150.000 €) emaitza da. Komenigarria da ekipamendu berrien diseinuan genero ikuspegia txertatzea.

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Programa honetan **5.000 €-ko gastu eraldatzailea** identifikatu da. 2025ekoarekin alderatuta, **-12.500 €-an murriztu da** (-% 71,43) Berdintasunerako II. Planetik eratorritako ekimenei lotutako zenbatekoa murriztu delako.

Hona hemen zenbateko horren xedea:

- II. Berdintasun Planetik eratorritako ekimenak (inklusiboa izango den barneko/kanpoko komunikazio eskuliburu batzuk garatzea, LGTBIQ+ protokolo bat garatzea, etab.): 2.000 €.
- Lilatonen babesletza: 1.500 €.
- Sebastian Sariaren babesletza: 1.500 €.

GASTU ERALDATZAILAREN EBOLUZIOA				
DONOSTIA TURISMO	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	17.500,00	5.000,00	-12.500,00	-%71,43
GUZTIRA	17.500,00	5.000,00	-12.500,00	-%71,43

Bestalde, programa honetan **ez da gastu sentikorrik identifikatu**.

GOMENDIOAK

- **Berdintasun planean eta plangintzaren arabera ezarritako neurriak implementatzeko beharrezkoak diren baliabideak atxikitzea.**
- Donostiako hirian eta turismo ekimen gisa **emakumeek egiten duten ekarpena** areago **ikusaraztea**.

5.4.2. DONOSTIA SUSTAPENA, SA

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Donostia Sustapena SA **udal sozietate publikoa** da, eta hiriko **ekonomia eta gizartea sustatzen eta garatzen du**, berrikuntzaren, ezagutzaren sorkuntzaren eta eraldaketaren, sareko lanaren eta proiektuen sustapen eta kudeaketaren bidez, hori guztia iraunkortasun irizpideei jarraiki.

2026rako **aurrekontu zuzkidura** +% 47,44 emendatu da, eta udal aurrekontuetan ere handitu egin du bere pisua % 3,23tik % 4,99ra.

Bestalde, **Udalaren ekarpenaren guztizkoa 14.067.442 €**-koa da 2026rako, 6.425.000 € gastu arrunterako eta 7.642.442 € kapital gasturako.

DONOSTIA SUSTAPENA, S.A.	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	3.667.292,00	3.697.087,00	29.795,00	%0,81
2. kapitulua	8.027.444,00	8.656.353,00	628.909,00	%7,83
3. kapitulua	274.229,00	152.215,00	-122.014,00	-%44,49
4. kapitulua	3.103.720,00	3.443.359,00	339.639,00	%10,94
6. Kapitulua	1.297.521,00	7.642.442,00	6.344.921,00	%489,00
8. Kapitulua	0,00	665.084,00	665.084,00	
9. Kapitulua	370.296,00	426.410,00	56.114,00	%15,15
GUZTIRA	16.740.502,00	24.682.950,00	7.942.448,00	%47,44

Igoera hori, funtsean, arrandegi eraikina moldatzeko bideratutako inbertsioan oinarritzen da.

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

124.700 €-koa da programa honetan identifikatutako **gastu eraldatzailea** (**+% 11,78ko** igoera **2025ekoarekin alderatuta**). Aurreko urteetan bezala, **2. eta 4. kapitulu**etan banatzen da.

2. kapituluan esleitutako zenbatekoa, guztira, **67.000 €**-koa da (**2025ean baino +% 19,47 gehiago**), eta kontzeptu hauetan banatzen da:

- **I. Berdintasun Planaren ebaluazioa, diagnostikoa eguneratzea eta II. Plana diseinatzea:** 10.000 € (2025ean 3.080 € I. Planaren arabera neurriak inplementatzeko).
- **Emakumeak zientzian eta berrikuntzan ikusarazteko ekimenak:** 10.000 € (2025ean 7.500 €).
- **Emakumeen enplegarritasuna Ekialdeko distrituan hobetzeko jarduerak:** 47.000 € (2025ean 1.000 €).

4. kapituluari dagokionez, **57.700 €**-ko zenbatekoa esleitu da (**2025ean baino +% 4,01 gehiago**), eta aurreko urteetako ikuspegiari jarraituz, berdintasuna sustatzeko ekintzetara bideratutako aurrekontu esleipenaren zenbatespena egin da, bereziki dirulaguntzen lerro jakin batzuen barruan emakumeen parte hartzea eta ahalduntzea indartzera bideratutakoetara. Irizpide hori ardatz hartuta, emakumeei zuzendutako **ekintza positiboak** biltzen dituzten **hiru lerro** definitzen dira:

- **Lanbideren kontratatze**ko laguntzak (enplegua sustatzeko tokiko ekintzak). Laguntzen oinarriaren % 10eko igoera emakumeentzat: lanaldi osoko kontratazio mugagabeetarako igoeraren zenbatekoa: 800 € edo 1.000 €, kolektiboak izanez gero; jendaurreko ekitaldietako lanaldi osoko artisten edo teknikarien aldi baterako kontratazioetarako igoeraren zenbatekoa: 600 € edo 750 €, kolektiboak izanez gero. **Zenbatespena: 21.250 €** (2025ean, 27.725 €).
- **Laguntzak enpresa berriak sortze**ko: laguntzen oinarriaren % 10eko igoera emakumeentzat (igoera hori ez da soilik emakumeentzat, ezpada egoera jakin batzuentzat, horien artean emakume izatea): 150 €. **Zenbatespena: 6.450 €** (2025ean, 3.750 €).
- **Ekinn Talent laguntzak:** 2.000 €-ko gehikuntza kontratatutako pertsona emakumea bada (igoera hori ez da soilik emakumeentzat, ezpada egoera jakin batzuentzat, horien artean emakume izatea): **Zenbatespena: 30.000 €** (2025ean, 24.000 €).

Ondoko taulan dago jasota gastu eraldatzailearen eboluzioa:

GASTU ERALDATZAILAREN EBOLUZIOA				
DONOSTIAKO SUSTAPENA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulu	56.080,00	67.000,00	10.920,00	%19,47
4. kapitulu	55.475,00	57.700,00	2.225,00	%4,01
GUZTIRA	111.555,00	124.700,00	13.145,00	%11,78

Azkenik, programa honetan **ez da gastu sentikorrik identifikatu**.

GOMENDIOAK

- Berdintasuna sustatzeko jarduerak barne hartzea kanpoko jardueretan, helburuak, adierazleak, baliabideak eta abar dituen jarduera plan egituratu baten barruan, barneko berdintasun plana osatzeko.**

5.4.3. DBUS

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Dbus programara bideratutako aurrekontua, 2026an, **-% 11,16 murriztu da**, eta aurrekontuetan duen pisua ere % 13,86tik **% 12,88ra gutxitu da**.

2026rako **Udalaren ekarpena**, guztira, **47.964.332 €**-koa da, 36.275.000 € gastu arrunterako eta **11.689.332 €** kapital gasturako. Aurreikuspenen arabera zerbitzuak emateagatik 2026an sortuko diren diru sarrerak 15.690.837 €-koak izango dira.

DBUS	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	38.047.425,00	39.130.736,00	1.083.311,00	%2,85
2. kapitulua	9.639.640,00	9.905.445,00	265.805,00	%2,76
3. kapitulua	29.000,00	19.000,00	-10.000,00	-%34,48
6. kapitulua	22.926.797,00	11.689.332,00	-11.237.465,00	-%49,01
8. kapitulua	258.870,00	2.152.996,00	1.894.126,00	%731,69
9. kapitulua	807.660,00	807.660,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	71.709.392,00	63.705.169,00	-8.004.223,00	-%11,16

Garraio publikoa gastu sentikor gisa identifikatu ondoren, **6. kapituluan** gertatzen da aldaketarik esanguratsuenak. Hona hemen xehetasunak:

Deskribapena	2025	2026
Furgoneta elektrikoa	40.000,00	0,00
Microbusak	339.797,00	339.797,00
Suteen aurkako sistema	1.250.000,00	281.000,00
BEI Proiektua	13.850.000,00	11.068.535,00
NG (Electrizen): 12 metroko 14 autobus elektriko erostea	7.371.000,00	0,00
NG (Electizen): Autobus elektrikoen flotarako kargak kudeatzeko sistema	76.000,00	0,00
GUZTIRA	22.926.797,00	11.689.332,00

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Programa honetan **gastu eraldatzailea eta gastu sentikorra** identifikatu dira.

a) Gastu eraldatzaileari dagokionez:

2026rako, 41.000 €-tik 30.000 €-ra murriztu da gastu eraldatzailea (-% 26,83). Hona hemen jarduerak banan-banan berezita (ez dugu atxikitako zenbatekoen berri):

- DBUSeko emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoa eta dagokion plana egiteko aholkularitza zerbitzua.
- Berdintasun plan berriaren inplementazioa.
- Langileei berdintasunaren arloko prestakuntza ematea.
- BAI SAREaren bileretan eta lan jardunaldietan parte hartzea.
- ATUC-eko Mugikortasuna eta Generoa Batzordearen bileretan eta lan jardunaldietan parte hartzea.

GASTU ERALDATZAILAREN EBOLUZIOA				
DBUS	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	41.000,00	30.000,00	-11.000,00	-%26,83
GUZTIRA	41.000,00	30.000,00	-11.000,00	-%26,83

b) Gastu sentikorrari dagokionez:

Garraio publikoak, hiri baten barruan, **garrantzi handia du genero ikuspegitik mugikortasunarekin, segurtasunarekin eta zaintza arduren banaketarekin** zerikusia duten hainbat faktoreren ondorioz. Hainbat hiri testuingurutan egindako azterlanek eta estatistikek erakusten dute garraio kolektiboaren erabilera nagusi dela emakumeen, nesken eta zaintzaileen artean gizonekin alderatuta, gizonak askoz ere gehiago erabiltzen baitute garraio pribatua. Alde hori, neurri handi batean, zaintza rol tradizionalak eta baliabide ekonomikoak eskuratzeko desberdintasunek azaltzen dute.

Errealitate hori Donostiako hirian **2024an pertsonalizatutako Mugi txartelen erabiltzaileen erabilera datuetan** islatzen da:

MUGI TXARTELA	E	%E	G	%G	Guztira
Desgaitasuna duen pertsona	185.066	%46,62	211.865	%53,38	396.931
Familia ugaria	447.038	%71,37	179.339	%28,63	626.377
Gazteak	2.708.873	%57,39	2.011.635	%42,61	4.720.508
65 urtetik gorakoak	1.615.449	%68,89	729.582	%31,11	2.345.031
Arrunta	11.351.511	%70,71	4.702.238	%29,29	16.053.749
Soziala	871.674	%64,13	487.617	%35,87	1.359.291
GUZTIRA	17.179.611	%67,37	8.322.276	%32,63	25.501.887

Garraio publikoa **funtsezko tresna da zaintza lanak egiten dituztenentzat**; izan ere, etxetik, lantokitik, ikastetxeetatik, ospitaleetatik eta senideak edo mendekotasuna duten pertsonak zaintzen diren beste gune batzuetatik modu eraginkorragoan mugitzeko aukera ematen du. Zaintza lan horiek, nahiz eta gehienbat emakumeek egiten dituzten, mugikortasun sarria eta malgua eskatzen dute, eta garraio sistema irisgarri, seguru eta eskuragarri batek betekizun horiek betetzea errazten du, lan, hezkuntza edo gizarte partaidetzako aukerak mugatu gabe.

Horrexegatik, **gastu sentikorrari** atxikitako zenbatekotzat hartzen da **Udalak Dbus sozietateari egindako ekarpena**, 2026an **guztira 47.964.332 €-ko ekarpena** egingo baitio.

GOMENDIOAK

- Berdintasun plan berria inplementatzeko dinamikari eustea.

5.4.4. HIRI MANTENTZE ETA ZERBITZUAK: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Azpiegiturak gastu politikan sartzen da **Hiri Mantentze eta Zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa programa**. 2026rako aurrekontu zuzkidura **-% 1,53an murriztu da**, eta udal aurrekontuetan % 0,33 hartzen du (2025ean, % 0,32).

HIRI MANTENTZE ETA ZERBITZUAK	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	1.316.729,00	1.405.085,00	88.356,00	%6,71
2. kapitulua	341.375,00	238.000,00	-103.375,00	-%30,28
6. kapitulua	10.500,00	0,00	-10.500,00	-%100,00
GUZTIRA	1.668.604,00	1.643.085,00	-25.519,00	-%1,53

1. kapituluaren gehikuntza % 2ko igoera orokorrean eta GUNEko (Espazio publikoaren okupazioa) administratzaile lanpostu berri batean oinarritzen da.

2. kapituluaren jaitsiera oso-osorik gertatzen da 226.09 Azterlan eta lan teknikoak partidan, eta eutsi egiten zaio puntu kritikoak desagerrarazteko 226.99.02 partidari 2025eko zenbateko berberarekin (25.000 €). **6. kapituluari** dagokionez, kendu egin da erabilera orokorreko Azpiegitura eta urbanizazio partidara bideratutako zenbatekoa.

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

226.99.02 partidaren barruan eta **gastu eraldatzaile gisa**, aurreko urteetako 25.000 €-ko aurrekontuari eusten zaio **puntu kritikoak** desagerrarazteko lanetatik etorritako gastuak ordaintzeko. Nolanahi ere, azken bi urteetan ez da esleitutako zenbateko hori gauzatu.

Ez da gastu sentikorrik identifikatu.

GOMENDIOAK

- Puntu kritikoetarako** esleitutako **gastua gauzatu behar dela** azpimarratzea.

5.4.5. PROIEKTU ETA OBRAK

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Azpiegiturak gastu politikan sartzen da **Proiektu eta obrak** programa. 2026rako **-% 46,12 murriztu da aurrekontu zuzkidura**, eta guztizko aurrekontuetan ere pisu gutxiago du, % 1,28 izatetik % 0,72 izatera igaro baita.

PROIEKTU ETA OBRAK	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	2.505.536,00	2.718.169,00	212.633,00	%8,49
2. kapitulua	87.575,00	87.575,00	0,00	%0,00
6. kapitulua	4.021.243,00	758.090,00	-3.263.153,00	-%81,15
GUZTIRA	6.614.354,00	3.563.834,00	-3.050.520,00	-%46,12

Programaren aldaketa hori funtsean **6. kapituluaren** murrizketan oinarritzen da, baina positiboki nabarmendu behar da **puntu kritikoetara bideratutako partidari eutsi izana**.

Proiektu eta obrak		758.090,00
601.07	Puntu kritikoak	500.000,00
643.01	Segurtasuna eta osasuna koordinatzea	238.090,00
643.02	Ikerketak eta proiektuak	20.000,00

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

2023an, 2024an eta 2025ean esleitutako baina **puntu kritikoak** desagerrarazteko **oraindik egikaritu gabeko 500.000 €-ko gastu eraldatzaileari** eutsi zaio, xede zehatza zehazteke baitago.

GOMENDIOAK

- Esleitutako gastua puntu kritikoen esparruan egikaritzea.

5.5. JARDUKETA OROKORRAK

Gastuen arlo honetan **aurreko urtean baino bi programa gehiago** aztertu dira (Gobernu organoak eta Informatika – DonostiaTIK), eta, beraz, **guztira 6 programa** aztertu dira:

- Gobernu organoak.
- Informatika (DonostiaTIK)
- Ekialdeko distritua.
- Giza baliabideak.
- Herritarren parte hartzea.
- Kudeaketa ekonomikoa.

5.5.1. GOBERNU ORGANOAK

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Gobernu organoak programa izen bereko gastu politikan sartzen da. 2026rako **-% 35,09 murriztu da aurrekontu zuzkidura**, eta guztizko aurrekontuetan ere pisu gutxiago du, % 0,54 izatetik % 0,36 izatera igaro baita.

GOBERNU ORGANOAK	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	441.790,00	442.043,00	253,00	%0,06
2. kapitulua	345.562,00	334.562,00	-11.000,00	-%3,18
4. kapitulua	638.550,00	641.500,00	2.950,00	%0,46
7. kapitulua	1.344.142,00	379.901,00	-964.241,00	-%71,74
GUZTIRA	2.770.044,00	1.798.006,00	-972.038,00	-%35,09

Aldaketa nagusia **7. kapituluan** gertatu da; izan ere zenbateko hori oso-osorik dago bideratuta, bai 2025ean bai 2026an, Miramar jauregia berritzeko lanak ordaintzera.

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Programa honetan 2. eta 4. kapituluetan identifikatu dira gastu eraldatzaileak.

- **226.18 partidan** guztira **4.356 €**-ko zenbatekoa sartu da **ASPEGI sarien** banaketa sustatzeko. Sari horiek 2016. urteaz geroztik ematen dira, eta bi kategoriatan aitortzen dira emakume enpresaburuak eta zuzendariak: Enpresaburua eta Zuzendaria eta/edo profesionala.
- Bestalde, **15.000 €** esleitu dira modu nominatiboan **481.06 partidan (Dirulaguntza ERAGIN kultur elkarteari)**, 2026an elkartearen 60 urteko historia ospatzeko. ERAGIN kultur elkarte bat da, eta haren xedea da emakumea maila pertsonalean eta kulturean indartzea.

Beraz, guztira, **19.356 €-koa da 2026an gastu eraldatzailearen zenbatekoa**.

Bestalde, **ez da gastu sentikorrik identifikatu**.

GOMENDIOAK

- **Dirulaguntza eta hitzarmen** lerroetan berdintasunerako **klausulak txertatzea**.

5.5.2. INFORMATIKA (DonostiaTIK)

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Programa honetan biltzen da **Udalaren erakunde autonomo DonostiaTIK-era bideratutako aurrekontu** osoa. Erakunde horren helburua da telekomunikazioen eta informatikaren arloko zerbitzuak ematea udal antolamendu osoari.

Programa hau **Jarduketa orokorrak** gastu politikan sartzen da. 2026rako **aurrekontu zuzkidura +% 0,06 handitu da**, eta udal aurrekontuetan hartzen duen pisua % 1,83tik % 1,92ra emendatu da.

Udalaren ekarpenaren guztizkoa 9.487.719 €-koa da, 8.785.698 € gastu arrunterako eta 702.021 € kapital gasturako.

INFORMATIKA (DonostiaTIK)	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	5.461.947,00	5.622.356,00	160.409,00	%2,94
2. kapitulua	3.128.458,00	3.163.092,00	34.634,00	%1,11
4. kapitulua	250,00	250,00	0,00	%0,00
7. kapitulua	891.118,00	702.021,00	-189.097,00	-%21,22
GUZTIRA	9.481.773,00	9.487.719,00	5.946,00	%0,06

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

Gastu eraldatzaile gisa **15.000 €** esleitu dira 2026an DonostiaTIK-en lehenengo Berdintasun plana egiteko.

Programan **ez da gastu sentikorrik identifikatu**.

GOMENDIOAK

- Sailentzat garatutako **aplikazio informatikoetan aldagaien arabera sailkatutako datuen erabilera erraztea, emakumeen eta gizonen egoera ikuspegi intersektional batetik aztertzeko aukera izateko.**
- **Berdintasun atalarekin eta udaleko informazio unitatearekin koordinatuta lan egitea, hiriaren egoeraren genero adierazleetan oinarritutako datu euskarriak sortzeko.**

5.5.3. EKIALDEKO DISTRITUA

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Jarduketa orokorrak gastu politikan sartzen da **Ekialdeko Distritua** programa. 2026rako aurrekontu zuzkidura **+% 36,96an handitu da**, eta udal aurrekontuetan % 0,14 hartzen du (2025ean, % 0,10).

EKIALDEKO DISTRITUA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	70.000,00	396.323,00	326.323,00	%466,18
6. kapitulua	435.426,00	295.930,00	-139.496,00	-%32,04
GUZTIRA	505.426,00	692.253,00	186.827,00	%36,96

Programa honen bidez gauzatzen dira berariaz Hiriko Ekialdeko Distritura bideratutako jarduketak, hala jardueri nola inbertsioei dagokienez. Azpimarratu behar dugu **Ekialdeko Distrituan ari den berdintasuneko lantalde** bat, programa honen bidez garatu beharreko arlo honetako lehentasunak aztertzen eta identifikatzen dituen. Aldi berean, aintzat hartzen ditu herritarren parte hartze prozesuetan hartutako erabakiak.

Igoera hori **Ekialdeko Distrituko Proiektuetara** bideratutako zenbatekoaren emendioaren emaitza da, eta **2. eta 6. kapituluetan berrantolatu dira** proiektu horiek.

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

2025. urteari begira aurreikus daitezkeen egikaritze datuak kontuan hartuta, 2026rako guztira **130.000 €** aurreikusten dira **gastu eraldatzaile gisa**. Halere, estimazio bat baizik ez dela azpimarratu behar dugu.

Positiboki nabarmendu behar da aurreko urteetan programa honetan jarduera ildo argi bat finkatu dela emakumeak ahalduntzeko, emakumeak espazio publikoan ikusarazteko eta indarkeria matxistaren aurrean erantzun komunitarioa emateko

Behin betiko aurrekontuarekin onartzen diren proposamenak **Ekialdeko Distrituko berdintasun lantaldeak** garatuko ditu.

GOMENDIOAK

- Ekialdeko Distrituan berdintasuneko neurri espezifikoak garatzeko **baliabide ekonomikoak, materialak (Ekialdeko Distrituko Emakumeen etxea) eta pertsonalak indartzen jarraitzea**. Eta esku hartzeko egungo lerroei eustea.

5.5.4. GIZA BALIABIDEAK

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Jarduketa orokorrak gastu politikan sartzen da **Giza Baliabideak** programa. 2026rako aurrekontu zuzkidura **+% 6,75ean handitu da**, eta udal aurrekontuetan % 0,78 hartzen du (2025ean, % 0,69).

GIZA BALIABIDEAK	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	3.247.348,00	3.487.191,00	239.843,00	%7,39
2. kapitulua	332.887,00	335.591,00	2.704,00	%0,81
6. kapitulua	15.000,00	15.000,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	3.595.235,00	3.837.782,00	242.547,00	%6,75

Generoa oso aintzat hartzen duen programa da, programa horretan definitzen eta kudeatzen baitira **erakundean lan egiten duten pertsonen lotutako barne politika eta prozedura** guztiak. Gainera, kontuan eduki behar da udal aurrekontuetan zatirik handiena hartzen duela 2026an: aurrekontu osoaren % 39,04.

Horrexegatik, **oso garrantzitsua da programa horren jardunean genero ikuspegia txertatzea**, zeharkakoa izanik aurrekontu programa guztietan eragiten baitu.

Programa honetan izandako gehikuntza **1. kapituluan** gertatzen da. Nabarmendu egiten da plantilla teknikari/langile juridikoko beste lanpostu batekin indartu izana eta 2025ean bete ez zen administrari lanpostu bat hornitu izana.

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

2025ean bezala, eutsi egin zaio **18.150 €**-ko zuzkidurari **gastu eraldatzaile gisa**.

Zenbateko hori 226.09.02 partidan (barneko Berdintasun plana) dago jasota, eta, Donostiako Udalaren barneko III. Berdintasunerako Planetik eratorrita, 2026rako ezarritako lehentasunezko neurriak aztertze eta inplementatzeko erabiliko da.

Programan **ez da gastu sentikorrik identifikatu**.

GOMENDIOAK

- **Barneko III. Berdintasun Plana inplementatzeko** beharrezkoak diren ebaluazio dinamikari eta baliabideen urteko zuzkidurari eustea.
- Pertsonen kudeaketari buruzko **datuak lortzeko eta aztertze sistematan aurrera egitea**, hainbat esparrutan diagnostikoak ahalbidetzeko: soldata arrakala, kontziliazioa, kontratazioa, sustapena, etab.

5.5.5. HERRITARREN PARTE HARTZEA

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Jarduketa orokorrak gastu politikan sartzen da **Herritarren parte hartzea** programa. 2026rako aurrekontu zuzkidura **+% 32,55 handitu da**, eta, ildo berean, handitu egin da aurrekontuetan duen pisua, % 0,89tik % 1,24ra.

HERRITARREN PARTE HARTZEA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	414.517,00	502.438,00	87.921,00	%21,21
2. kapitulua	280.000,00	230.000,00	-50.000,00	-%17,86
4. kapitulua	1.228.344,00	1.287.384,00	59.040,00	%4,81
6. kapitulua	2.335.427,00	3.650.000,00	1.314.573,00	%56,29
7. kapitulua	357.703,00	448.902,00	91.199,00	%25,50
GUZTIRA	4.615.991,00	6.118.724,00	1.502.733,00	%32,55

Programa **garrantzitsua da generoari dagokionez**, programa horren bidez dinamizatzen baitira herritarrek elkarte bidez edo modu indibidualean parte hartzen duten **partaidetzako aurrekontuak**.

1. kapituluari dagokionez, soldaten igoera orokorra eta zerbitzuburuaren hornidura dira igoera horren arrazoiak. **2. kapitulan** gertatutako murrizketari dagokionez, arrazoa da parte hartzeko prozesua 2025ean eraman dela burura, eta prozesu hori bi urtean behin egiten dela.

4. kapituluaren barruan, Igeldoko Toki Erakunde Txikiari egindako ekarpen handiagoa da (+59.040 €) igoeraren arrazoa, gainerako partidetan eutsi egin baitzaie edukiei eta zenbatekoei.

6. kapituluari dagokionez, ondoko taula honetan daude jasota aldaketak:

Partida	Gastuen deskribapena	2026	2025	Aldea
622.01.02	Igeldoko Eskola Zaharra berritzea	1.650.000 €	350.000 €	1.300.000 €
622.01.01	Elkarteei lagatako lokalak gaitzea	0 €	50.000 €	-50.000 €
619.02	Ekialdeko barrutia: Aurrekontu parte-hartzailea	500.000 €	435.427 €	64.573 €
619.01	Aurrekontu parte-hartzailea 2026-2027	1.500.000 €	0 €	1.500.000 €
619.01	Aurrekontu parte-hartzailea 2024-2025	0 €	1.500.000 €	-1.500.000 €
GUZTIRA		3.650.000,00	2.335.427,00	1.314.573,00

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

2026rako -2.000 €-an murriztu da **gastu eraldatzailea**, 2025ean antolatutako prestakuntza jarduerak burura eraman direlako. Honela banatzen da zenbatekoa:

- a) 10. 000 € berdintasuna eta parte hartzea uztartzen diren ekimenetan sakontzeko (226.00.06).
- b) 5. 000 € elkarteei prestakuntza eskaintzeko berdintasunaren arloan (226.99.03).

GASTU ERALDATZAILAREN EBOLUZIOA				
HERRITARREN PARTE HARTZEA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	12.000,00	15.000,00	3.000,00	%25,00
4. kapitulua	5.000,00	0,00	-5.000,00	-%100,00
GUZTIRA	17.000,00	15.000,00	-2.000,00	-%11,76

GOMENDIOAK

- **Berdintasun atalarekin elkarlanean jarraitzea** hainbat esparrutan: berdintasun klausulak udal dirulaguntzetan, aholku kontseiluetan, hiri antolamenduko planean, mugikortasun planean eta abarretan

5.5.6. KUDEAKETA EKONOMIKOA

PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Finantza eta zerga administrazioa gastu politikan sartzen da **Kudeaketa Ekonomikoa** programa. 2026rako aurrekontu zuzkidura **-% 55,39an murriztu da**, eta 2026ko udal aurrekontuetan % 1,03 hartzen du (2025ean, % 2,21).

KUDEAKETA EKONOMIKOA	2025	2026	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	3.046.364,00	3.073.202,00	26.838,00	%0,88
2. kapitulua	1.185.405,00	1.226.977,00	41.572,00	%3,51
4. kapitulua	800.000,00	800.000,00	0,00	%0,00
6. kapitulua	6.400.345,00	0,00	-6.400.345,00	-%100,00
GUZTIRA	11.432.114,00	5.100.179,00	-6.331.935,00	-%55,39

Aurrekontu programa honetan biltzen dira **Kudeaketa Ekonomikoko Departamentuaren funtzionamenduari lotutako gastuak**, eta bertatik honako zerbitzu hauek kudeatzen dira: **Programazioa, azterlanak eta aurrekontuak; Kontratazioa; Ondarea; eta Interbentzioa eta kontabilitatea.**

Programa hau **gainerako aurrekontu programetarako zeharkako euskarria da**, eta horregatik da hain garrantzitsua programa horretatik neurriak eta irizpideak bultzatzea **barneko prozeduretan** genero ikuspegia gehiago txertatzeko **eta kanpoko mailan eragiteko** (bereziki kontratazio eta aurrekontu prozesuei dagokienez).

Berdintasun atalaren lankidetzarekin batera, programa honen bidez konpromisoa aktibo mantentze da udal aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzeko prozesuan. Eta hain zuzen ere programa horretan **esleitzen da prozesuan laguntza teknikoa emateko aurrekontua.**

Aldaketa batez ere **6. kapitulan** gertatu da, eta ez da 2026rako inbertsio espezifikorik esleitu.

GASTU ERALDATZAILEA ETA SENTIKORRA

2026rako eutsi egin zaio gastu eraldatzailearen zuzkidurari, **18.788,27 €-ko zenbatekoarekin**. Genero ikuspegia aintzat hartzen duten aurrekontuak egiten jarraitzeko laguntza tekniko bat kontratatzeko bideratuko da zenbateko hori.

Identifikatutako gastua kanpo kontratazioari lotuta badago ere, nabarmendu behar da **programazio, azterlan eta aurrekontu zerbitzuko teknikarien eta Kudeaketa Ekonomikoaren Saileko zuzendaritzaren dedikazioaren** zati bat prozesu hori sustatzera eta sistematizatzera bideratuta dagoela.

Kasu honetan, eta beste programa batzuetan adierazi den bezala, ez da 1. kapitulu honetako balorazio ekonomikoa sartu, jarduera horretan emandako denboraren arabera ehuneko bat modu kuantitatiboan esleitzea ahalbidetuko duen sistematika bat definitzen ez den bitartean.

Azkenik, **ez da gastu sentikorrik identifikatu**.

GOMENDIOAK

- **Udal aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzeko prozesuan aurrera egiten jarraitzea:** aztertutako aurrekontu programen kopurua handitzea, esparruetako genero adierazleak identifikatzea, diru sarreraren azterketara zabaltzea, etab.
- **Baliabideak gaitzea** udal kontratazio publikoan **berdintasunerako klausulak txertatzeari buruzko urteko azterketa** egiteko.

5.5.7. BARNEKO LANGILEEN PRESTAKUNTZA BERDINTASUN ARLOAN

2026ko aurrekontuaren barruan, eutsi egiten zaio **26.000 €-ko zenbatekoari** barneko langileak berdintasun arloan prestatzeko. Zenbateko hori **gastu eraldatzailea** da oso-osorik.

6. GASTU ERALDATZAILEAREN EBOLUZIOA ETA LABURPENA

Atal honetan daude jasota **gastu eraldatzailearen datu orokorrak**. Gastu horren xedea da genero arrakalak ixtea eta berdintasuna sustatzea ikuspegi intersektional batetik. Gastu mota horrek, **egungo desberdinkeriei erantzuteaz gain, horiek sostengatzen dituzten egiturazko arrazoiak eraldatu nahi ditu**, aldaketa kulturalak, ekonomikoak, sozialak, lanekoak eta ordezkaritzakoak sustatuz, berdintasuna eraginkorra eta iraunkorra izan dadin.

Hauexek dira kapitulu honetan jasotako datuen xehetasunak:

1. 2017-2026 eboluzio taula, honako hauekin lotutako datuak jasotzen dituen:

- Berdintasun programaren aurrekontuaren zenbatekoa.
- Berdintasun programaren urteko hazkuntza ehunekotan.
- Berdintasun programaren aurrekontuaren %-a udal aurrekontu osoaren gainean.
- Udal aurrekontuen zenbateko osoa.
- Udal aurrekontuen urteko hazkuntza ehunekotan.
- Urtero eta genero ikuspegia duten aurrekontu prozesuetan aztertutako programen kopurua.
- Identifikatutako gastu eraldatzailea duten programen kopurua.
- Aztertutako programen %-a, gastu eraldatzaile esleituarekin.
- Gastu eraldatzailearen urteko zenbatekoa.
- Gastu eraldatzailearen %-a udal aurrekontuen gainean.

2017 – 2026 EBOLUZIO TAULA

	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025	2026	Aldakuntza tasa (2017-2026)
Berdintasun Programaren Aurrekontua	747.661 €	898.190 €	966.041 €	1.004.374 €	1.087.353 €	1.127.103 €	1.063.697 €	1.078.736 €	1.088.726 €	1.116.022 €	49,27%
Berdintasun programaren hazkuntza (%)		20,13%	7,55%	3,97%	8,26%	3,66%	-5,63%	1,41%	0,93%	2,51%	
Berdintasun programaren aurrekontua aurrekontu osoaren gainean (%)	0,18%	0,20%	0,21%	0,23%	0,27%	0,27%	0,23%	0,22%	0,21%	0,23%	25,39%
Udal aurrekontuen guztia	416.260.408 €	444.929.771 €	467.446.691 €	432.540.636 €	397.387.617 €	424.842.665 €	461.913.070 €	483.617.126 €	517.493.047 €	494.456.134 €	18,79%
Udal aurrekontuen hazkuntza (%)		6,89%	5,06%	-7,47%	-8,13%	6,91%	8,73%	4,70%	7,00%	-4,45%	
Aztertutako programen kopurua	37	37	37	40	40	40	44	44	47	52	40,54%
Gastu eraldatzailea duten programen kopurua	13	13	13	14	13	13	20	20	25	28	115,38%
Gastu eraldatzailea duten programen aztertutako guztizkoarekiko (%)	35%	35%	35%	35%	33%	33%	45%	45%	53%	54%	53,25%
Gastu eraldatzailearen zenbatekoa	1.590.538 €	1.839.312 €	2.002.711 €	2.220.903 €	2.453.343 €	2.808.568 €	3.897.202 €	3.882.397 €	4.190.644 €	4.903.259 €	208,28%
Gastu eraldatzailearen hazkuntza (%)		16%	9%	11%	10%	14%	39%	0%	8%	17%	
Gastu eraldatzailearen aurrekontu osoarekiko (%)	0,38%	0,41%	0,43%	0,49%	0,61%	0,66%	0,79%	0,81%	0,81%	0,99%	160,96%

Atal honetan **2026ko emaitzen balorazioa** baino ez da egiten, eta azken kapitulura ("Balorazio orokorra eta gomendioak") bideratzen dira eboluzio datuen balorazioa eta gomendio orokorrak.

2026ko emaitzei dagokienez, hauexek nabarmendu behar ditugu:

- **Gastu eraldatzailea:** 2025ekoaren aldean % 17 handitu da, eta udal aurrekontuen gainean ere pisu handiagoa du, % 0,81 izatetik % 0,99 izatera igaro baita.
- **Berdintasun programa:** 2025ekoaren aldean % 2,51 handitu da, eta udal aurrekontuen gainean ere pisu handiagoa du, % 0,21 izatetik % 0,23 izatera igaro baita.
- **Gastu eraldatzailea duten programak:** gehiago dira gastu eraldatzailea esleituta duten aurrekontu programak, aztertutako programa guztietatik % 54k gastu eraldatzailea baitute.


2. Honako hauei buruzko eboluzio grafikoak:

- Berdintasun programara eta gastu eraldatzaileara bideratutako **aurrekontu esleipena**.
- Berdintasun programaren eta udal aurrekontuen gaineko gastu eraldatzailearen **irudikapena**.

AURREKONTU ZUZKIDURAREN EBOLUZIOA



Gastu eraldatzailaren eboluzioa (€)



PISUAREN EBOLUZIOA AURREKONTU OSOAREN GAINEAN

Berdintasunaren Aurrekontua (%) aurrekontu osoaren gainean





Hurrengo orrialdeetan, honako laburpen taula hauek ageri dira:

3. Gastu eraldatzailearen xehetasuna, aurrekontu programetan eta kapitulu ekonomikoetan banatuta.

Aipatu behar da zenbateko horretan ez dagoela sartuta 1. kapituluari dagokiona, gastu eraldatzailearen batean nolabaiteko dedikazioa izan arren, dedikazio eksklusiborik ez duten lanpostuei dagokiena. Hori da Programazio, Azterlan eta Aurrekontu Zerbitzuko langileen kasua.

Lehen adierazi den bezala, hurrengo ekitaldietarako lan ildo gisa identifikatzen da sistematika bat definitzea, jardueraren ehuneko bat kuantitatiboki esleitu ahal izateko, jarduera horri eskaintzen zaion denboraren arabera.

4. Berdintasunerako V. Planaren ardatzetan aurreikusitako gastu eraldatzailearen trazabilitatea, txosten hau egin den datan plan hori onartzeke dagoela adieraziz.

UDAL AURREKONTUEN GASTU ERALDATZAILEA 2026 (€)						
Unitatea	1. kapitulua	2. kapitulua	4. kapitulua	6. kapitulua	GUZTIRA	Aurrekontua guztira (%)
Berdintasuna	490.936,00	333.861,00	241.225,00	50.000,00	1.116.022,00	%0,23
Udaltzaingoa	301.301,00	3.000,00			304.301,00	
Hiri mugikortsuna		20.000,00			20.000,00	
Hirigintza				15.000,00	15.000,00	
Cristina Enea		2.000,00			2.000,00	
Lankidetzeta eta Garapenarako hezkuntza			1.531.076,54		1.531.076,54	
Gizarte Ekintza	333.817,00	20.000,00			353.817,00	
Osasun publikoa eta animalien ongizatea		6.000,00			6.000,00	
Musika eta Dantza Eskola		14.500,00		1.100,00	15.600,00	
Heziketarako programak		63.485,00	6.833,00		70.318,00	
Giza eskubideak		29.000,00			29.000,00	
Kultur aniztasuna		8.481,00			8.481,00	
Donostia Kultura		64.500,00		60.000,00	124.500,00	
Euskara		10.000,00			10.000,00	
Gazteria		40.000,00			40.000,00	
Donostia Kirola		48.148,80	282.000,00		330.148,80	
Donostia Turismo		5.000,00			5.000,00	
Donostia Sustapena, S.A.		67.000,00	57.700,00		124.700,00	
Dbus		30.000,00			30.000,00	
Hiri mantentze eta zerbitzuak		25.000,00			25.000,00	
Proiektu eta obrak				500.000,00	500.000,00	
Gobernu organoak			19.356,00		19.356,00	
Informatika - DonsotiaTIK		15.000,00			15.000,00	
Ekialdeko distritua		130.000,00			130.000,00	
Herritarren parte hartzea		18.150,00			18.150,00	
Kudeaketa ekonomikoa		15.000,00			15.000,00	
Barneko berdintasunerako Plana (Giza Baliabideak)		18.788,28			18.788,28	
Udal langileen berdintasuna arloko prestakuntza	26.000,00				26.000,00	
GUZTIRA	1.152.054,00	986.914,08	2.138.190,54	626.100,00	4.903.258,62	%0,99

GASTU ERALDATZAILEAREN HEDAPENA (€) BERDINTASUNERAKO V. PLANAREN ARDATZAK (onartzeke)						
Unitatea	GOBERNU ONA	EMAKUMEEN ETXEA ETA LIDERGO FEMINISTA	GUNE SEGURUAK	GUNE JASANGARRIAK	GUNE INTERSEKZIONALAK	GUZTIRA
Berdintasuna	568.121,00	339.765,00	127.911,00	6.000,00	74.225,00	1.116.022,00
Udaltzaingoa	3.000,00		301.301,00			304.301,00
Hiri mugikortsuna	18.000,00		1.500,00	500,00		20.000,00
Hirigintza	15.000,00					15.000,00
Cristina Enea				2.000,00		2.000,00
Lankidetzeta eta Garapenarako hezkuntza		1.531.076,54				1.531.076,54
Gizarte Ekintza			353.817,00			353.817,00
Osasun publikoa eta animalien ongizatea		6.000,00				6.000,00
Musika eta Dantza Eskola		15.600,00				15.600,00
Heziketarako programak		31.688,00	28.130,00		10.500,00	70.318,00
Giza eskubideak					29.000,00	29.000,00
Kultur aniztasuna					8.481,00	8.481,00
Donostia Kultura		109.500,00		15.000,00		124.500,00
Euskara		10.000,00				10.000,00
Gazteria		9.000,00	31.000,00			40.000,00
Donostia Kirola		320.148,80		10.000,00		330.148,80
Donostia Turismo		1.500,00		2.000,00	1.500,00	5.000,00
Donostia Sustapena, S.A.		114.700,00		10.000,00		124.700,00
Dbus				30.000,00		30.000,00
Hiri mantentze eta zerbitzuak			25.000,00			25.000,00
Proiektu eta obrak			500.000,00			500.000,00
Gobernu organoak		19.356,00				19.356,00
Informatika - DonsotiaTIK				15.000,00		15.000,00
Ekialdeko distritua		115.000,00	15.000,00			130.000,00
Herritarren parte hartzea	18.150,00					18.150,00
Kudeaketa ekonomikoa		15.000,00				15.000,00
Barneko berdintasunerako Plana (Giza Baliabideak)	18.788,28					18.788,28
Udal langileen berdintasuna arloko prestakuntza	26.000,00					26.000,00
GUZTIRA	667.059,28	2.638.334,34	1.383.659,00	90.500,00	123.706,00	4.903.258,62

7. GASTU SENTIKORRAREN LABURPENA

Atal honetan daude jasota **gastu sentikorrari buruzko datu orokorrak**. Esplizituki berdintasuna bilatzen ez badu ere, herritarren bizi baldintzak hobetzen duten eta bizitzaren iraunkortasun baldintzetan eragiten duten aurrekontu baliabideei erantzuten die gastu honek. **Helburua ez du genero desberdinkeriak eragiten dituzten egiturak eraldatzea, baina gastu hori desagertuz gero handitu egingo lirateke arrakalak**, eta horrek bereziki eragingo lieke emakumeei eta zaugarritasun egoeran dauden beste talde batzuei.

Gastu honetan genero ikuspegia txertatzeak lagundu egiten du, zeharka bada ere, desberdinkeriak murrizten; aintzat hartzen ez bada, finkatu ditzake desberdinkeria horiek. Ezinbesteko zuzkidurak dira eguneroko bizitzarako, **eta mantendu egingo lirateke baita erabateko berdintasun egoera batean ere**.

Ondoko taulan dago jasota **gastu sentikorra**, kapituluetan eta unitateetan **bereizirik**:

UDAL AURREKONTUEN GASTU SENTIKORRA 2026 (€)				
Unitatea	2. kapitulua	4. kapitulua	6. kapitulua	GUZTIRA
Eskailerak, arrapalak eta igogailuak	337.661,00		50.000,00	387.661,00
Gizarte Ekintzak	16.203.955,00	310.880,00		16.514.835,00
Komunak	670.953,00			670.953,00
Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua	528.922,40			528.922,40
Euskara	194.925,00			194.925,00
Gazteria	1.513.284,63	64.657,00		1.577.941,63
Dbus	36.275.000,00		11.689.332,00	47.964.332,00
GUZTIRA	55.724.701,03	375.537,00	11.739.332,00	67.839.570,03

Gastu honi dagokionez, txostenean zehar jada azaldu dugu ez dela 1. kapitulua sartu, dedikazioa zehazteko sistematika objektibo bat zehazten ez den bitartean.

Bestalde, adierazi behar da Etxegintza programarako lan ildo bat identifikatu dela berdintasun atalaren eta etxebizitza programaren artean, gastu sentikorrera eta gastu eraldatzailera bideratutako balizko zenbatekoak identifikatu ditzaketen irizpideak adosteko.

8. BALORAZIO OROKORRA ETA GOMENDIOAK

Azken atal honetan, Udalak, aurrekontuak genero ikuspegiarekin aztertzeari dagokionez, azken urteetan garatutako prozesuari buruzko balorazio orokorrak aurkezten dira, egindako aurrerapenak eta hobetzeko alderdiak barne hartuta. Era berean, identifikatutako gastu eraldatzailearen eboluzioaren berri ematen da.

Gainera, genero ikuspegia duten udal aurrekontuen diseinua, egikaritzea eta ebaluazioa indartzen jarraitzeko gomendio orokor batzuk eskaintzen dira. Aurrekontu programa bakoitzari begira egindako iradokizun espezifikoak banan-banan zehaztu dira txosten honetan zehar.

A) PROZESUARI ETA METODOLOGIARI DAGOKIENEZ

Alderdi positiboak

- Programazio, Azterlan eta Aurrekontu Zerbitzuaren eta Berdintasun Atalaren artean hausnartzeko eta lan jarraibideak definitzeko lankidetzaren prozesua.
- Hobekuntza metodologikoa, gastuaren tipologia eta berdintasun politikak garatzera bideratutako gastuaren ehunekoan egozteko irizpideak argituz (2030erako helburua: % 1,5).
- Saileratutako jarraibide komun batzuk bidali dira excel euskarrian betetzeko eta egokitzeko.
- Handitu egin da aztertutako programen kopurua (2017an 37 programa; 2026an 52 programa), eta, beraz, % 40,54ko emendioa izan da.

Hobetzeko alderdiak: Gomendagarria da sailek betetako fitxen bidalketaren sistematizazioa hobetzea, sistemaren finkatze eta heldutasun prozesuaren zati gisa.

Prozesuan aurrera egiten jarraitzeko gomendioak:

- Aztertutako programa kopurua pixkanaka handitzea.
- Informazioa modu sistematikoago batean biltzeko prozesuan aurrera egitea eta, ahal den neurrian, Udaleko aplikazio komunetan txertatzea.
- Berdintasuneko arau eta programa esparruan jasotzea bai Donostiako Udalak bere gain hartutako gastu helburua, bai hori kalkulatzeko irizpide teknikoak, betiere EAEko erreferentziatzeko lege eta programa esparruak aintzat hartuta.

B) BERDINTASUN POLITIKETARA (GASTU ERALDATZAILEA) ETA GASTU SENTIKORRERA BIDERATUTAKO AURREKONTU ESPEZIFIKOAREN IDENTIFIKAZIOARI ETA ZUZKIDURARI DAGOKIENEZ:

Alderdi positiboak

- Gastu eraldatzailea esleitura duten aztertutako programen kopurua pixkanaka handitu izana (2017an 13 programa – 2026an 28 programa), 2017an aztertutako programen % 35 izatetik 2026an % 54 izatera igaro baita.
- Gastu eraldatzailearen ehunekoaren hazkundea udal aurrekontu osoaren gainean (2017an, % 0,38 – 2026an, % 0,99).
- Gehiago dira beren berdintasunerako plan propioak diseinatzeko eta inplementatzeko aurrekontu espezifikoak dituzten enpresa publikoak eta udal erakunde autonomoak.
- 2017tik 2026ra arteko epean zehar pixkanaka handitu egin da berdintasun programaren aurrekontu zuzkidura (guztira +% 49,27 2017tik 2026ra), bereziki 2018tik 2022ra arteko epealdian. Epealdi

horretan, +% 18,29 handitu dira udal aurrekontuak. Bestalde, berdintasun programak aldi horretan guztian zehar antzeko pisuari eutsi dio udal aurrekontuetan (% 0,18tik % 0,23ra igaro da).

- Udal aurrekontuetan gastu sentikorraren identifikazioa sartzea. Gastu mota horren helburua ez da berdintasuna berariaz sustatzea, ezta genero desberdinkeriak iraunarazten dituzten mekanismoak eraldatzea ere. Baina horiek ezabatuz gero, dauden arrakalak larriagotu litezke, eta emakumeei eta zaurgarritasun egoeran dauden beste kolektibo batzuei neurritz kanpo eragin diezaieke, abiapuntuko egoera dela eta. Azterketan horiek identifikatzeak gastuaren ikuspegi berri bat biltzen du, eta ikuspegi horri arreta berezia eman behar zaio genero ikuspegitik.

Hobetzeko alderdiak:

- “Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia” erreferentziazko programa esparrua kontuan harturik, bertan helburu gisa ezartzen baita euskal administrazio publikoen aurrekontuaren % 1,5 berdintasun politikak garatzera bideratu behar direla 2030. urterako, gastu eraldatzailea handitzen eta identifikatzen jarraitzea.
- Behar-beharrezkoa da esleitutako gastu eraldatzailearen egikaritzearen gaineko jarraipena egitea, zenbaitetan ez baitira gauzatzen aurreikusitako partida batzuk.

Prozesuan aurrera egiten jarraitzeko gomendioak:

- Programa jakin batzuei lotutako gastu eraldatzailea eta/edo sentikorra identifikatzen edo estrapolatzen laguntzen duten irizpide teknikoetan sakontzea, bereziki 1. kapituluarekin edo politika orokorrekin duten loturagatik neurketa egitea zailagoa den programetan.
- Jarraipen eta ebaluazio sistema bat definitzea, gastu sentikorra diseinatzean eta gauzatzean genero ikuspegia txertatzen dela bermatzeko. Ikuspegi hori ez izateak finkatu egin ditzake dauden arrakalak, eta betikotu egin ditzake emakumeen eta gizonen arteko egiturazko desberdinkeriak. Horregatik, hala dagokionean, neurri zuzentzaile eraldatzaileak bultzatzea gomendatzen da.
- Sailen eta berdintasun atalaren arteko koordinazio aktiboari eustea, berdintasun politikak bultzatzeko egitura nagusi gisa.
- Berdintasunaren arloko barneko prestakuntza ekintzak indartzen jarraitzea, etengabe, udaleko langile guztiei zuzenduta.
- Adierazleak gaitzea, Donostiako eremu guztietan emakumeen eta gizonen berdintasun egoeraren bilakaera neurtu ahal izateko.



ANÁLISIS DE LOS PRESUPUESTOS MUNICIPALES 2026 DESDE LA PERSPECTIVA DE GÉNERO

Septiembre 2025

ÍNDICE

1.	INTRODUCCIÓN Y TRAYECTORIA	3
2.	MARCO NORMATIVO Y PROGRAMÁTICO	5
3.	METODOLOGÍA	6
4.	PRESUPUESTOS GENERALES	9
5.	SEGUIMIENTO PROGRAMAS ANALIZADOS.....	18
5.1.	SERVICIOS PÚBLICOS BÁSICOS	21
5.1.1.	GUARDIA MUNICIPAL	21
5.1.2.	ESCALERAS, RAMPAS Y ASCENSORES	22
5.1.3.	MOVILIDAD VERTICAL	23
5.1.4.	MOVILIDAD URBANA.....	24
5.1.5.	URBANISMO	25
5.1.6.	ENTIDAD PÚBLICA EMPRESARIAL DE VIVIENDA – DONOSTIAKO ETXEGINTZA	26
5.1.7.	VÍAS PÚBLICAS.....	27
5.1.8.	ALUMBRADO PÚBLICO	28
5.1.9.	PARQUES Y JARDINES.....	28
5.1.10.	CRISTINA ENEA	29
5.1.11.	PLAYAS	30
5.2.	ACTUACIONES DE PROTECCIÓN Y PROMOCIÓN SOCIAL.....	31
5.2.1.	IGUALDAD.....	31
5.2.2.	COOPERACIÓN Y EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO	35
5.2.3.	DONOSTIA LAGUNKOIA	36
5.2.4.	CENTROS DE SERVICIOS SOCIALES	37
5.2.5.	BIENESTAR SOCIAL: DIRECCIÓN Y ADMINISTRACIÓN	37
5.2.6.	APARTAMENTOS TUTELADOS	38
5.2.7.	CENTRO DE ACOGIDA SOCIAL.....	39
5.2.8.	INSERCIÓN SOCIAL.....	40
5.2.9.	PREVENCIÓN DE INFANCIA Y FAMILIA.....	41
5.2.10.	PROMOCIÓN DE PERSONAS MAYORES	42
5.2.11.	RESIDENCIA PERSONAS MAYORES.....	43
5.2.12.	AYUDA DOMICILIARIA.....	44
5.2.13.	AYUDAS DE EMERGENCIA SOCIAL	45
5.2.14.	HOGAR DE JUBILADOS/AS	45
5.3.	PRODUCCIÓN DE BIENES PÚBLICOS DE CARÁCTER PREFERENTE	47

5.3.1.	EVACUATORIOS	47
5.3.2.	PROMOCIÓN DE LA SALUD	48
5.3.3.	SALUD PÚBLICA Y BIENESTAR ANIMAL	49
5.3.4.	FUNCIONAMIENTO DE LOS CENTROS EDUCATIVOS	49
5.3.5.	ESCUELA MUNICIPAL DE MÚSICA Y DANZA / ESCUELA DE MÚSICA Y DANZA (BIBLIOTECA) / ESCUELA DE MÚSICA Y DANZA (TXISTULARIAK)	51
5.3.6.	PROGRAMAS EDUCATIVOS	52
5.3.7.	DERECHOS HUMANOS	53
5.3.8.	DIVERSIDAD CULTURAL	55
5.3.9.	DONOSTIA KULTURA	56
5.3.10.	EUSKERA	57
5.3.11.	JUVENTUD	58
5.3.12.	DONOSTIA KIROLA / DEPORTES, DIRECCIÓN Y ADMINISTRACIÓN / INSTALACIONES DEPORTIVAS (DONOSTIA KIROLA)	60
5.4.	ACTUACIONES DE CARÁCTER ECONÓMICO	62
5.4.1.	DONOSTIA TURISMO	62
5.4.2.	FOMENTO, S.A.	63
5.4.3.	DBUS	65
5.4.4.	MANTENIMIENTO Y SERVICIOS URBANOS: DIRECCIÓN Y ADMINISTRACIÓN	67
5.4.5.	PROYECTOS Y OBRAS	68
5.5.	ACTUACIONES DE CARÁCTER GENERAL	69
5.5.1.	ORGANOS DE GOBIERNO	69
5.5.2.	INFORMÁTICA (DonostiaTIK)	70
5.5.3.	DISTRITO ESTE	71
5.5.4.	RECURSOS HUMANOS	72
5.5.5.	PARTICIPACIÓN CIUDADANA	73
5.5.6.	GESTIÓN ECONÓMICA	74
5.5.7.	FORMACIÓN INTERNA DEL PERSONAL EN MATERIA DE IGUALDAD	75
6.	RESUMEN Y EVOLUCIÓN DEL GASTO TRANSFORMADOR	76
7.	RESUMEN DEL GASTO SENSIBLE	82
8.	VALORACIÓN GENERAL Y RECOMENDACIONES	83

1. INTRODUCCIÓN Y TRAYECTORIA

El **presupuesto público** es la **herramienta central** que permite **diseñar, planificar y gestionar las políticas públicas**. A través de él se toman decisiones clave sobre cómo se distribuyen los recursos para responder de manera efectiva a las necesidades de la población.

Cuando hablamos de presupuestos con enfoque de género, nos referimos a incorporar en todas sus fases - diseño, ejecución y evaluación - la mirada sobre las desigualdades entre mujeres y hombres que aún persisten en los ámbitos social, económico, político, de representación y de participación. Se trata de reconocer cómo afectan de forma diferenciada a mujeres y hombres las medidas que se impulsan desde lo público.

Un presupuesto con perspectiva de género debe integrar este enfoque desde su origen. Solo así es posible valorar si su aplicación contribuye a reducir las desigualdades detectadas o, por el contrario, si corre el riesgo de perpetuarlas o profundizarlas.

Los presupuestos no son neutrales; siempre tienen un impacto que, de una u otra manera, está atravesado por las diferentes brechas de género. Si queremos avanzar hacia políticas que promuevan una igualdad real, es indispensable analizarlos y diseñarlos con esta perspectiva.

De este modo, los presupuestos con enfoque de género cumplen un doble propósito:

1. **Analizar su impacto diferencial en mujeres y hombres**, considerando además otros factores que pueden generar discriminaciones múltiples, como la edad, la situación administrativa, el nivel de renta, el origen racial o étnico, o la identidad de género, entre otros. No se trata solo de verificar si se destinan recursos de manera equitativa, sino de evaluar si esos recursos responden a sus necesidades reales.
2. **Servir como instrumento clave para impulsar la igualdad real**. En este sentido, la transversalidad de género es hoy una estrategia clave: implica revisar de manera sistemática todas las acciones públicas bajo esta mirada para garantizar que no se reproduzcan ni se refuercen las desigualdades.

El compromiso político con la igualdad requiere medidas concretas y sostenidas en el tiempo: desde la creación de normativa específica y el incremento de los recursos presupuestarios, hasta la puesta en marcha de estructuras especializadas y la capacitación de quienes diseñan, gestionan y evalúan las políticas públicas. Todo ello debe ir acompañado de una apuesta firme por la transparencia y la información.

En definitiva, **el presupuesto público es el motor** desde el cual **deben desarrollarse todas las políticas enmarcadas en los planes de igualdad** aprobados por los órganos de gobierno del Ayuntamiento de Donostia.

El Ayuntamiento de Donostia, consciente de todo ello, inició un proceso en 2013 que ha ido evolucionando a través de los años. Destacamos a continuación, gráficamente, los **principales hitos del proceso**:

2013 	Inicio del proceso: • Compromiso político. • Sesiones formativas / informativas. • Acuerdos metodológicos (igualdad / hacienda).
2014 	• Emisión informe: <i>"Recomendaciones para crear presupuestos con perspectiva de género e identificación áreas prioritarias de análisis"</i>. Establecimiento de base metodológica y pasos siguientes a acometer. • Identificación de áreas prioritarias con las que profundizar en el proceso: Infraestructuras y servicios urbanos, Movilidad, Acción Social, Promoción Social, Participación Ciudadana y Donostia Kultura. • Sesiones formativas equipo de gobierno y personal técnico áreas prioritarias e igualdad y hacienda. • Diciembre 2014, emisión informe: "Análisis de los presupuestos municipales 2015 desde la perspectiva de género".
2015 	• Emisión informe: <i>"Análisis de los presupuestos municipales 2016 desde la perspectiva de género"</i>. • Cambios contenido y enfoque del informe: se acuerda derivar el análisis del capítulo 1 de gastos (plantilla y contratación) a informes específicos y estructurar el análisis por programas presupuestarias y no por áreas/departamentos municipales. • Se estabiliza y estructura el trabajo conjunto entre el Negociado de Igualdad y Unidad de Programación, Estudios y Presupuestos.
2016 2022 	• Estabilización de la emisión de informes anuales: <i>"Análisis de los presupuestos municipales desde la perspectiva de género"</i>, incluyendo modificaciones derivadas de las enmiendas presupuestarias, así como análisis de la ejecución del gasto transformador previsto en el ciclo presupuestario anterior en algunos de los ejercicios analizados. • Trabajo conjunto Negociado de Igualdad y Unidad de Programación, Estudios y Presupuestos. • Proceso proyecto presupuestos 2022: participación activa de la unidad de igualdad en las reuniones celebradas para analizar las propuestas de presupuestos con cada unidad administrativa: Departamentos, Organismos Autónomos, Entidades públicas empresariales y Sociedades Anónimas.
2023 2025 	• Modificaciones puntuales de metodología, incluyendo una ficha de recogida de información a cumplimentar por las áreas. • Aumento de programas analizados. • Ejercicio 2025, identificación de tres objetivos a desplegar en siguientes años: Aumentar la participación de un mayor número de programas en este proceso; Revisar y sistematizar los criterios para la inclusión de la tipología de gasto como gasto transformador, y/u otras categorías, teniendo en cuenta los marcos legales y programáticos de la CAE; y Revisar y facilitar la sistemática interna de recogida de información. • Emisión de informes anuales: <i>"Análisis de los presupuestos municipales desde la perspectiva de género"</i> y <i>"Análisis del grado de ejecución del gasto transformador en igualdad"</i>.

2. MARCO NORMATIVO Y PROGRAMÁTICO

El proceso que nos ocupa se enmarca dentro del **Decreto legislativo 1/2023**, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres. Este Decreto constituye el principal **marco normativo** en este ámbito dentro de la **Comunidad autónoma de Euskadi**. Los **principales artículos relacionados** con el contenido del presente informe son los siguientes:

Artículo 3.5. Integración de la perspectiva de género: Los poderes públicos vascos han de incorporar la perspectiva de género en todas sus políticas y acciones, de modo que establezcan en todas ellas el objetivo general de eliminar las desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres.

